Osakidetza



GOI MAILAKO TEKNIKO JURIDIKOA

GALDERAK

1. Honako hauek dira lehentasunezko prozedura sumarioaren bidez babestu daitezkeen oinarrizko eskubideak:

a) 15. artikulutik 29.era eta 14. eta 30.2 artikuluetan jasotako eskubideak.
b) I. tituluko II. kapituluko I. atalean jasotako oinarrizko eskubideak, esklusiboki.
c) I. tituluko II. kapituluan jasotako guztiak.
d) I Tituluko eskubide guztiak..

2. Espainiako Arartekoaren izendapena:

a) Diputatuen Kongresuaren eskumena da.
b) Lau urterako egiten da.
c) Nazioko Gobernuaren eskumena da.
d) Gorte Nagusien eskumena da.

3. 1978ko Espainiako Konstituzioa:

a) Espainiar guztiek dute hizkuntza ofizial guztiak jakiteko betebeharra.
b) Estatuko hiriburua Madril hiria da; nolanahi ere, Gorte Nagusiek beste kokapen bat zehaztu ahal izango dute lege organiko baten bidez.
c) Estatu espainiarraren forma politikoa monarkia demokratikoa da.
d) Pluraltasun politikoa ordenamendu juridikoaren balio nagusietako bat da.

4. Babes-elegitearen bidez babes daitezke:

a) I. tituluko oinarrizko eskubide guztiak.
b) I. tituluko II. kapituluan jasota dauden oinarrizko eskubide guztiak.
c) Konstituzioaren 53.2 artikuluan adierazitako oinarrizko eskubideak, eta Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoan adierazitako beste batzuk.
d) I. tituluko II. kapituluko I. atalean jasotako oinarrizko eskubideak, bai eta berdintasunerako eskubidea eta kontzientzia-eragozpena ere.

5. Konstituzioak:

a) EZ du adierazten, bereziki, adin-nagusitasuna zer adinetan lortzen den, hori Kode Zibilak zehazten baitu.
b) Asilo-eskubidea onartzen du Espainiako herritar guztientzat.
c) Espainiar nazional batek naziotasuna gal dezakeela onartzen du.
d) EZ du onartzen estradizio pasiboa espainiar nazionalentzat.

6. Konstituzioaren 14. artikuluan aipatzen diren bereizkeria-kategorien artean EZ da jasotzen:

a) Etnia.
b) Sexua.
c) Iritzia.
d) Jaiotza.

7. Aurreneurrizko atxiloketa:

a) Ezin izango du hogeita lau ordu baino gehiago iraun.
b) Ezin izango du berrogeita zortzi ordu baino gehiago iraun.
c) Konstituzioak debekatzen du.
d) EZ du behar-beharrezkoa den denbora baino gehiago iraungo.

8. Babes-errekurtsoaren bidez babes daiteke:

a) Osasunerako eskubidea.
b) I. tituluko II. kapituluan jasota dauden oinarrizko eskubide guztiak.
c) Eskatzeko eskubidea.
d) Etxebizitzarako eskubidea.

9. 1978ko Espainiako Konstituzioa:

a) Herritar guztiek eska dezakete osasunaren babesa, babes-errekurtsoa jarriz Konstituzio Auzitegian.
b) Lege bidez bakarrik arautu ahal izango da ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea egikaritzea. Lege horrek eskubide horren oinarrizko edukia errespetatu beharko du beti, eta 161.1.a) artikuluan ezarri bezala babestuko da.
c) Atxilotutako pertsona orok du eskubidea berehala, eta berarentzat ulergarri den moduan, bere eskubideei nahiz atxiloketaren arrazoiei buruz informatua izateko; era berean, ezin izango da deklarazioa egitera behartu, alarma-egoera edo salbuespen-egoera deklaratu den kasuetan izan ezik.
d) Terrorismo-ekintzak estradiziotik kanpo gelditzen dira.

10. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (abenduaren 18ko 3/1979ko Lege Organikoa), Euskal Herrian diren jurisdikzio-organoen eskumena honako hauetara hedatzen da:

a) Administrazioarekiko auzien arloan, auzialdi eta gradu guztietara.
b) Zigor- eta lan-arloetan, auzialdi eta gradu guztietara, kasazio-errekurtsoetara izan ezik.
c) Zigor- eta lan-arloetan, auzialdi eta gradu guztietara, berrikuspen-errekurtsoetara izan ezik.
d) Arlo zibilean, auzialdi eta gradu guztietara, Euskal Herriko foru-zuzenbide zibil bereziko gaietako kasazio- eta berrikusteko errekurtsoak barne.



11. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (abenduaren 18ko 3/1979ko Lege Organikoa), Eusko Legebiltzarkideen erantzukizun penala:

a) Auzitegi Goreneko Zigor-arloko salan argitu ahal izango da, delitu-egintzak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten direnean.
b) Auzitegi Goreneko Zigor-arloko salan argitu ahal izango da beti.
c) Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian argitu ahal izango da kasu guztietan.
d) Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio, Estatuaren segurtasunaren aurkako delituetan izan ezik.

12. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (abenduaren 18ko 3/1979ko Lege Organikoa), aukera hauetatik zein EZ da zuzena?

a) Eusko Legebiltzarrak bere barne-araudia finkatuko du, legebiltzarkideen gehiengo osoz onartu beharko delarik.
b) Bilkuraldi arrunta urtean zortzi hilabetekoa izango da gutxienez.
c) Biltzarrak bilkura bereziak egin ahal izango ditu Jaurlaritzaren, Batzorde Iraunkorraren nahiz legebiltzarkideen gehiengo osoaren eskariz.
d) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak aldarrikatuko ditu Legebiltzarraren legeak.

13. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (abenduaren 18ko 3/1979ko Lege Organikoa), Estatutuaren erreformaren kasuan:

a) Eusko Legebiltzarrari dagokio ekimena, legebiltzarkideen heren baten proposamenez, edo Eusko Jaurlaritzari.
b) Eusko Legebiltzarrari dagokio ekimena, legebiltzarkideen bostenaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzari ala Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei.
c) Eusko Legebiltzarrari dagokio ekimena, legebiltzarkideen gehiengo osoaren proposamenez.
d) Eusko Legebiltzarrari ala Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei dagokie, kideen gehiengo osoaren proposamenez.

14. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, adierazi baieztapen zuzena:

a) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea aitortzen dio Nafarroari, bertan ezarritako prozeduraren arabera.
b) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea aitortzen die Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziei, eta ez Nafarroari.
c) Espainiako Konstituzioaren 4. Xedapen Iragankorrak Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko prozedura ezartzen du, baldin eta Nafarroak Euskal Autonomia Erkidegoan sartzea erabakitzen badu.
d) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak ez du aipatzen Nafarroak Euskal Autonomia Erkidegoa osatzeko duen eskubidea.



15. Eukal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (abenduaren 18ko 3/1979ko Lege Organikoa), barne-osasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio:

a) Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea, araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak izan ezik.
b) Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.
c) Estatuaren legeria betearaztea.
d) Bakarreko eskumena.

16. Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du:

a) Barne-osasun arloan.
b) Gizarte-laguntza arloan.
c) Lan-legeria arloan.
d) Gizarte Segurantza arloan, honen araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak izan ezik.

17. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren erreformari dagokionez, baieztapen hauetatik, zein da ZUZENA?

a) Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari, legebiltzarkideen gehiengo soilaren proposamenez, dagokie erreformaren ekimena.
b) Eusko Legebiltzarrak onartu behar du erreforma-proposamena, legebiltzarkideen bi herenek osatutako gehiengo kalifikatuz.
c) Eusko Legebiltzarrak onartu ostean, Gorte Nagusiek onartuko dute erreforma lege organiko baten bidez.
d) Gorte Nagusietara bidali aurretik, Euskadiko hautesleek onartu beharko dute erreferendum batean.

18. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan guztiz bere lurralde barruan kokaturiko beste lurralde edo udalerri batzuk Euskal Autonomia Erkidegoari gehitzeko baldintza hauetako zein EZ da zuzena?

a) Delako Udalerri edo lurralde horretako biztanleek hala erabaki dezatela, gehiengo osoz onartutako erreferendum bidez.
b) Estatuko Gorte Nagusiek Lege Organiko bidez onar dezatela.
c) Eusko Legebiltzarrak onar dezala.
d) Doakion udalak edota udalen gehiengoak atxikimendua eskatu dezala.

19. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduak jasotzen duen moduan, legebiltzarkideren batek erabakiak hartzeko quoruma egiaztatzea eskatuko balu eta 90.1 artikuluan eskatutako quorumik ez balego, bozketa eten egingo da, gehienez ere

a) Bi orduz eta denbora-tarte hori igarotakoan, bozketa baliozkoa izango da, baldin eta bertaratutako kideen kopurua organo hori osatzen duten kideen bostena baino handiagoa bada.
b) Hiru orduz eta denbora-tarte hori igarotakoan, bozketa baliozkoa izango da, baldin eta bertaratutako kideen kopurua organo hori osatzen duten kideen herena baino handiagoa bada.
c) Bi orduz eta denbora-tarte hori igarotakoan, bozketa baliozkoa izango da, baldin eta bertaratutako kideen kopurua organo hori osatzen dutenen herena baino handiagoa bada.
d) Ordubete igaro ondoren, bozketa baliozkoa izango da, baldin eta bertaratutako kideen kopurua organo hori osatzen dutenen herena baino handiagoa bada.

20. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduak jasotzen duen bezala, legebiltzarkideen pertzepzio ekonomikoei dagokienez, aukeratu zuzena:

a) Mahaiak finkatutako diru-esleipena jasoko dute, eta kargua uzteagatiko kalte-ordainak ere bai, uko eginez gero. Erregelamenduan berariaz araututa daude kalte-ordain horiek.
b) Beren eginkizuna eraginkortasunez eta duintasunez betetzeko diru-kopuru bat jasoko dute, bai eta beren eginkizuna betetzeko ezinbestekoak diren gastuengatiko laguntzak, frankiziak eta kalte-ordainak ere.
c) Bertaratzeagatiko dietak baino ez dituzte jasoko, esleipen finkorik gabe, Osoko Bilkurak berariazko erabakia hartu ezean.
d) Kargu publikoa izateagatik tributaziotik salbuetsitako esleipen ekonomikoa jasoko dute.

21. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduak ezarritakoaren arabera, Eusko Legebiltzarraren aurreko legegintza-ekimena honako honi dagokio:

a) Legebiltzarreko kideei, legebiltzar-taldeei eta Eusko Jaurlaritzari.
b) Legebiltzarkideei, legebiltzar-taldeei, Eusko Jaurlaritzari eta lurralde historikoetako ordezkaritza duten instituzioei.
c) Legebiltzarkideei eta legebiltzar-taldeei, erregelamendu honetan aurreikusitakoari lotuta, Eusko Jaurlaritzari, lurralde historikoetako ordezkaritza duten instituzioei eta herritarrei, legegintzarako herri-ekimena bideratzeko arauetan aurreikusitakoari lotuta.
d) Eusko Jaurlaritzari bakarrik.

22. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduak ezarritakoaren arabera, Lehendakaria izendatzeko bozketak:

a) Izenezkoak izango dira, aurretik legebiltzarkideei dei eginda.
b) Publikoak izango dira, beti, isilpeko bozketa bidez.
c) Publikoak izango dira beti, bola bidezko bozketa bidez.
d) Publikoak izango dira, beti, bozketa arrunt bidez.

23. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduaren arabera, zein da Legebiltzarreko Mahaiaren eginkizun nagusia?

a) Osoko bilkurako eztabaidak zuzentzea eta osoko bilkuretako gai-zerrenda finkatzea.
b) Legebiltzarreko idazkiak eta dokumentuak kalifikatzea eta izapidetzea onartzeari buruz erabakitzea.
c) Eusko Legebiltzarraren ordezkari instituzionala izatea beste legegintza-ganbera batzuen aurrean.
d) Eusko Jaurlaritzaren ekintza kontrolatzea, galderen eta interpelazioen bidez.

24. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduaren arabera, zein gehiengo behar da osoko bilkurak erabakiak balio osoz hartzeko, erregelamenduak gehiengo kualifikatua eskatzen duenean izan ezik?

a) Legebiltzarreko kideen gehiengo osoa.
b) Bertaratutako legebiltzarkideen bi herenen gehiengoa.
c) Emandako botoen gehiengo soila, baldin eta arauzko quoruma badago.
d) Bilkuran dauden kideen aho bateko adostasuna.

25. Nork du eztabaidak antolatzeko, bilkurak zuzentzeko eta autonomia erkidegoko ganberaren osoko bilkuran ordena mantentzeko eskumena?

a) Legebiltzarreko Mahaiak, kide anitzeko eran.
b) Bozeramaileen Batzordeak, adostasunezko akordioen bidez.
c) Legebiltzarreko lehendakariak.
d) Osoko bilkurak, bilkura bakoitzaren hasieran hartutako erabakiaren bidez.

26. Eusko Legebiltzarraren erregelamenduaren arabera, zein gehiengo behar da Autonomia Estatutua aldatzeko proposamenaren behin betiko testua onartzeko?

a) Eusko Legebiltzarraren gehiengo soila
b) Eusko Legebiltzarraren gehiengo osoa.
c) Autonomia Estatutuan bertan aurreikusitako gehiengo kualifikatua.
d) Eusko Legebiltzarreko kideen aho bateko adostasuna.

27. Ondorengo baieztapenetatik, zeinek deskribatzen du behar bezala ganbera autonomikoko kideen bortxaezintasun parlamentarioaren irismena?

a) Agintaldian egindako egintzengatik edozein motatako erantzukizun penala eragozten du.
b) Legebiltzarkidearen jarduera guztietara hedatzen da, bai bere eginkizunen barruan, bai kanpoan.
c) Karguan aritzean azaldutako iritziak, izandako jokaerak eta emandako botoak direla eta soilik babesten ditu.
d) Legebiltzarkidea ezin da atxilotu inongo egoeratan.

28. Otsailaren 27ko 3/1985 Arartekoaren Erakundea sortu eta arautzen duen Legeak, Arartekoaren izendapenari buruz dio:

a) Lau urterako dela, eta behin bakarrik hautatu ahal izango dute berriro, aldi bererako.
b) Lau urterako dela, eta behin bakarrik hautatu ahal izango dute berriro, aldi bererako.
c) Bost urterako dela, baina ezin izango da berriro hautatu.
d) Bost urterako dela, eta behin bakarrik hautatu ahal izango dute berriro, aldi bererako.

29. Otsailaren 5eko 1/1988 Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Legeak xedatzen duenez, zenbat kide ditu Epaitegi horrek?:

a) Hamabi.
b) Hamar.
c) Zazpi.
d) Bost.

30. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoaren Erakundea sortu eta arautzen duenak xedatzen duenez, Arartekoa bere karguan zabarkeria nabarmenez arituz gero, Legebiltzarrak bere eginkizunak bertan behera uztea erabaki dezake. Horretarako, hartutako erabakia honela hartuko da:

a) Legebiltzarreko kideen gehiengo osoz.
b) Legebiltzarreko kideen bi herenen gehiengoz.
c) Legebiltzarreko kideen hiru bostenen gehiengoz.
d) Legebiltzarrean diren kideen gehiengoz.

31. Otsailaren 5eko 1/1988 Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Legearen arabera, adierazi baieztapen hauetatik zein <u>EZ</u> den zuzena Osoko Bilkuraren funtzionamenduari dagokionez:

a) Osoko Bilkura urtean lau aldiz bilduko da gutxienez, hiruhileko natural bakoitzean behin, eta lehendakariak egingo du deialdia.
b) Osoko Bilkura balio osoz eratutzat joko da kideen erabateko gehiengoa bertaratzen deneana.
c) Erabakiak balio osoz hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da Osoko Bilkurara bertaratutakoen gehiengo osoaren aldeko botoa eta, betiere, bi kideren aldeko botoa.
d) Osoko Bilkura urtean bitan bilduko da gutxienez, seihileko natural bakoitzean behin, eta lehendakariak egingo du bilkurarako deialdia.



32. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Legeak dioenez, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren beraren aurrekontu-baterazpenaren azterketa egingo du:

a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak.
b) Gasteizko Legebiltzarrak berak.
c) Kanpoko ikuskaritza batek, edozein kasutan.
d) Kanpoko ikuskaritza batek edo beste autonomia-erkidego bateko kanpo-kontroleko organoren batek.

33. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoaren Erakundea sortu eta arautzen duenak xedatzen duenez, Arartekoak eten egin beharko ditu berari eragin diezaioketen bateraezintasun-egoera guztiak:

a) Izendatu ondorengo bost egunen barruan eta karguaz jabetu aurretik.
b) Izendatu ondorengo hamabost egunen barruan eta karguaz jabetu aurretik.
c) Izendatu eta kargua hartu baino lehen, gehienez ere hilabeteko epean.
d) Izendatu ondorengo hamar egunen barruan eta karguaz jabetu aurretik.

34. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoaren Erakundea sortu eta arautzen duenak xedatzen duenez, Arartekoaren ondokoa:

a) Arartekoak izendatuko du, Legebiltzarraren oniritzia jaso ondoren.
b) Legebiltzarrak izendatuko du, bertako erregelamenduak zehazten duen moduan.
c) Arartekoak izendatuko du, eta ez da beharrezkoa izango Legebiltzarraren aldez aurreko onarpena.
d) rartekoak izendatuko du eta Legebiltzarrak kenduko du.

35. Otsailaren 5eko 1/1988 Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Legearen arabera, goi-mailako titulu akademikoa duten pertsonen artetik hautatuko dira bertako kideak, baldin eta Epaitegiaren eremu funtzionalari dagokionez gaitasun egiaztatua badute eta, betiere, lanbide-esperientzia badute, gutxienez:

a) Hamabi urtez.
b) Hamar urtez.
c) Hamabost urtez.
d) Zortzi urtez.

36. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak:

a) Egokitzat jotzen dituen prekauzio-neurri guztiak hartu ahal izango ditu ondasunak, emariak eta efektu publikoak zaintzeko eta babesteko.
b) Jaurlaritzak ikuskatuko ditu haren kontuak.
c) Ezingo ditu jurisdikzio-prozedurak instruitu ustezko kontabilitate-erantzukizunak epaitzeko.
d) Epaitegiaren beraren egoitzan egingo ditu kontrolak.

37. Adierazi Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean funtzioak eskuordetzeari buruz ezarritako erantzun hauetako zein den zuzena:

a) Eskuordetza lehendakariaren dekretu bidez egin beharko da.
b) Eskuordetzan emandako eginkizunak ezin dira errebokatu eman ondoren, salbuespen gisa izan ezik.
c) Eskuordetza erabiliz emandako egintzak organo eskuordetza-emaileak berak emandakotzat joko dira.
d) Eskuordetzan emandako eginkizuna azpieskuordetu daiteke, baldin eta eskuordetze-dekretuan edo -aginduan aukera hori aurreikusita badago.

38. Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarraren aurrean duen erantzukizunari dagokionez, erantzun hauetako zein da zuzena?

a) Eusko Legebiltzarrak zentsura-mozio bat onartzen badu, lehendakariak dimisioa aurkeztuko du, eta zentsura-mozioan proposatutako hautagaia Legebiltzarrak hautatutzat joko du, erregeak izendatu dezan.
b) Eusko Legebiltzarrak erantzukizuna eskatu ahal izango dio Jaurlaritzari, zentsura-mozio bat onartuz. Legebiltzarkideen bostenak gutxienez egin beharko du zentsura-mozioaren proposamena.
c) Eusko Legebiltzarrak lehendakariak aurkeztutako konfiantza-arazoa ukatzen badu, lehendakariak hauteskundeak deitu beharko ditu lehendakari berria hautatzeko.
d) Lehendakariak, Jaurlaritzak aztertu ondoren, bere programari edo politika orokorreko adierazpen bati buruzko konfiantza-arazo bat proposa dezake Legebiltzarrean. Konfiantza eman zaiola ulertuko da legebiltzarkideen erabateko gehiengoak aldeko botoa ematen badu.

39. Eusko Jaurlaritzak legegintzako dekretuak emateko duen ahalmenari dagokionez, erantzun hauetako zein da ZUZENA?

a) Eusko Legebiltzarrak lege-mailako arauak emateko ahalmena eman diezaioke Jaurlaritzari eskuordetzan, legegintzako dekretu izenekoak, baina aparteko eta presazko beharrizana dagoenean bakarrik.
b) Legegintzarako eskuordetza lege arrunt baten bitartez ebatzi behar da helburua testu artikulatu bat egitea bada, eta oinarri-lege baten bitartez helburua hainbat lege-testuren testu bategina egitea bada.
c) Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskuordetu ahal izango dio oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen garapenari eragiten dioten legegintzako dekretuak emateko ahalmena.
d) Eusko Legebiltzarrak ezin dio Jaurlaritzari eman Jaurlaritzaren oinarrizko antolamenduari edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren araubide juridikoari eragiten dioten legegintzako dekretuak emateko ahalmena.

40. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari:

a) Dagokio Gobernu-egitasmoa finkatzea.
b) Legebiltzarrera bidaltzeko lege-proposamenak onartzea edo baztertzea dagozkio, Legebiltzarraren araudiak ezarritako baldintzen arabera.

c) Dagokio legegintzarako eskuordetza, legegintzako dekretuen bidez, lege honek ezarritako moduan.
d) Dagokio legegintzarako eskuordetza, lege-dekretuen bidez, lege honek ezarritako moduan.

41. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak ezarritakoaren arabera, lehendakaria:

a) Legebiltzarrak hautatuko du eta Estatuko Gobernuko presidenteak izendatuko du.
b) Legebiltzarrak hautatuko du legebiltzarkideen artetik eta Erregeak izendatuko du errege-dekretu baten bitartez.
c) Legebiltzarrak hautatuko du legebiltzarkideen artetik eta Erregeak izendatuko du lege baten bitartez.
d) Legebiltzarrak hautatu eta izendatuko du legebiltzarkideen artetik errege-dekretu baten bitartez.

42. Adierazi, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arabera, erantzun hauetatik zein EZ den zuzena:

a) Lehendkari hautatua izango da lehenengo bozketan, Legebiltzarreko botoen erabateko gehiengoa lortzen duen hautagaia.
b) Eusko Legebiltzarraren legegintzaldi bakoitzaren hasieran, Legebiltzarreko lehendakariak Legebiltzarrari deia egingo dio lehendakaria hautatzeko, Legebiltzarraren Erregelamenduak horretarako finkatzen duen prozedurarekin bat.
c) Legebiltzarrak Lehendakaria hautatu ondoren, Legebiltzarreko lehendakariak izendatuko du.
d) Lehenengo bozketan hautagai batek ere erabateko gehiengoa lortzen ez badu, beste bozketa bat egingo da, eta hautagaien artean baliozko boto gehien daukana izendatuko da lehendakari.

43. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera, adierazi Jaurlaritzaren erregelamendu-ahalari buruzko baieztapen hauetatik zein den OKERRA:

a) Sailetako titularrek dekretu bidez gauzatuko dute erregelamenduak egiteko ahala. Dekretu horiek saileko titularrak berak sinatuko ditu.
b) Erregelamenduzko arauek zehapenik edo isunik ezin izango dute ezarri, legeak berariaz onartutako kasuetan izan ezik.
c) Izaera orokorreko administrazio-xedapenak joango dira dekretu gisa, bai eta lehendakariaren xedapenak ere.
d) Erregelamenduzko arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta argitaratu eta hogei egunera jarriko dira indarrean.

44. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera:

a) Lehendakariaren aldi baterako absentziek Legebiltzarraren aldez aurreko baimena beharko dute.
b) Jaurlaritzan bi sexuek % 50ko ordezkaritza izango dute, gutxienez,
c) Jaurlaritzan bi sexuek % 40ko ordezkaritza izango dute, gutxienez.



d) Lehendakariak bi aste baino luzaroago kanpoan egon behar badu, Legebiltzarrak aurretik baimena eman beharko dio.

45. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera:

a) Jaurlaritzaren bilkuretarako deialdietan gai-zerrenda ere sartuko da, Lehendakariak finkatuta eta sinatuta.
b) Jaurlaritzaren bilkuretan, baliozkotasunez eratuak izateko, lehendakaria edo haren ordezkoa eta Jaurlaritzako kideen erdia gutxienez bertan izatea beharrezkoa izango da.
c) Jaurlaritzari aurkeztutako dokumentuak ezkutukoak eta isilpekoak izango dira, eta ezin izango dira publiko egin.
d) Lehendakariak egingo du, inola ere, eskuordeko batzordeen bilkuretarako deia.

46. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, lege baten erregelamendu-garapenerako gaitasunak, oro har, honako hauei emango zaizkie:

a) Gobernuko presidenteari.
b) Gobernuari.
c) Ministroei.
e) Estatu-idazkariei.

47. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen duenaren arabera, lege organikoak dira:

a) Konstituzioaren I. tituluan aitortutako edozein eskubideren garapenari buruzkoak, Autonomia Estatutuak onartzen dituztenak eta harmonizazio-legeak.
b) Oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen garapenari buruzkoak, Autonomia Estatutuak onartzen dituztenak, hauteskunde-araubide orokorra eta Konstituzioak aurreikusitako gainerakoak.
c) Gizarte- eta ekonomia-politikaren printzipio gidarien garapenari buruzkoak, Autonomia Estatutuak onartzen dituztenak eta lege markoak.
d) Gobernuaren antolaketari buruzkoak, Autonomia Estatutuak onartzen dituztenak eta oinarrizko legeak.

48. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen duenaren arabera, lege organikoak onartu, aldatu edo indargabetzeko beharrezkoa izango da:

a) Kongresuaren gehiengo soila, proiektuaren osotasunari buruzko azken bozketan.
b) Ganbera bakoitzaren gehiengo absolutua, proiektuaren artikulu bakoitzari buruzko bozketan.
c) Kongresuaren gehiengo absolutua, proiektuaren osotasunari buruzko azken bozketan.
d) Kongresuaren hiru bosteneko gehiengoa, proiektuaren osotasunari buruzko azken bozketan.

49. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen duenaren arabera, legegintza-eskuordetza Gobernuari eman beharko zaio:

a) Berariaz, gai zehatz baterako eta erabiltzeko epea zehaztuta.
b) Berariaz edo isilbidez, gai bat edo gehiagorako, betiere legegintzaldi berean.
c) Berariaz, gai zehatz baterako, eta epea zehaztu beharrik gabe testu bateginak egiteko bada.
d) Berariaz, gai jakin baterako, eta Gobernutik bestelako agintariei azpieskuordetu ahal izango zaie, eskuordetze-legeak hala aurreikusten badu.

50. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen duenaren arabera, lege-testuak bateratzeko baimenak, testu bakarra formulatzeaz gain, honako hau barne hartu ahal izango du:

a) Bateratutako arloan ordenamendu juridikoa askatasunez berritzeko ahalmena.
b) Bateratu beharreko lege-testuak arautu, argitu eta harmonizatzeko ahalmena.
c) Bateratutako arloari buruzko erregelamendu betearazleak emateko ahalmena.
d) Lotutako erregelamendu-arau guztiak indargabetzeko ahalmena.

51. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen duenaren arabera, legegintza-eskuordetza duten Gobernuaren xedapenek honako izendapena jasoko dute:

a) Lege-dekretuak.
b) Errege dekretu normatiboak.
c) Legegintzako dekretuak.
d) Lege eskuordetuak.

52. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezartzen duenaren arabera, premia berezi eta presazko egoeran, Gobernuak behin-behineko lege-xedapenak eman ahal izango ditu, honako ezaugarriekin:

a) Estatuaren oinarrizko erakundeen ordenamenduan eragina izan dezakete, Kongresuak gehiengo absolutuz baliozkotzen baditu.
b) Ezin izango dute eraginik izan Estatuaren oinarrizko erakundeen ordenamenduan, I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.
c) Edozein gai arautu ahal izango dute, lege organikoari erreserbatutakoak izan ezik.
d) Automatikoki galduko dute indarraldia hamabost egun igaro ondoren baliozkotuak izan ez badira.

53. Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera, lege organikoen ezaugarria honako hau da:

a) Lege arrunten gainetik dagoen maila hierarkiko handiagoa dute.
b) Edozein gai arautzen dute, Gorte Nagusiek hala erabakitzen badute.
c) Gai jakin batzuetara mugatuta daude eta Kongresuaren gehiengo absolutua eskatzen dute proiektu osoaren azken bozketan.
d) Senatuak soilik onar ditzake gehiengo kualifikatuaren bidez.

54. Lege-dekretuaren aurrekontu gaitzaileari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

a) Premia berezi eta presazko egoera Diputatuen Kongresuak aldez aurretik deklaratu behar du.
b) Premia berezi eta presazko egoeraren existentzia Gobernuak baloratzen du, Kongresuaren kontrolaren kalterik gabe.
c) Egoera hori krisi ekonomikoetan soilik eman daiteke.
d) Egoera hori Konstituzio Auzitegiak deklaratu behar du, aurretiaz, araua onartu aurretik.

55. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, xedapen orokor baten aurkako zuzeneko aurkaratzerik ezak edo haren aurka jarritako errekurtsoa ezesteak:

a) Ez dute eragozten aplikazio-egintzak aurkaratzea, xedapen horiek Zuzenbidearekin bat ez datozela oinarri hartuta.
b) Ezinezko egiten dute aplikazio-egintzak aurkaratzea, xedapen horiek Zuzenbidearekin bat ez datozela oinarri hartuta.
c) Ezinezko egiten dute aplikazio-egintzak aurkaratzea, xedapen horiek deuseztagarriak direla oinarri hartuta.
d) Ezinezko egiten dute aplikazio-egintzak aurkaratzea, estaldura ematen duen xedapena ordenamendu juridikoan aurreikusitako epean errekurritu ez denez egintza horiek irmoak direlakoan oinarrituta.

56. 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, ezartzen duenaren arabera, xedapen orokor bateko manu bat deuseztatzen duten epai irmoek:

a) Eraginkortasunik gabe utziko dituzte hura aplikatu duten administrazio-egintza irmoak, deuseztapenak ondorio orokorrak izan baino lehenagokoak badira, eta bereziki manuaren deuseztapenak oraindik osorik betearazi ez diren zehapenen ezabaketa edo murrizketa badakar.
b) Eraginkortasunik gabe utziko dituzte hura aplikatu duten epai irmoak, deuseztapenak ondorio orokorrak izan baino lehenagokoak badira, eta bereziki manuaren deuseztapenak oraindik osorik betearazi ez diren zehapenen ezabaketa edo murrizketa badakar.
c) Ez diete berez eragingo deuseztapenak ondorio orokorrak izan baino lehen manu hori aplikatu duten epai edo administrazio-egintza irmoen eraginkortasunari, salbu eta manuaren deuseztapenak oraindik osorik betearazi ez diren zehapenen ezabaketa edo murrizketa badakar.
d) Ez diete berez eragingo deuseztapenak ondorio orokorrak izan baino lehen manu hori aplikatu duten epai irmoen eraginkortasunari; bai, ordea, egintza irmoen eraginkortasunari, bereziki manuaren deuseztapenak oraindik osorik betearazi ez diren zehapenen ezabaketa edo murrizketa badakar.

57. Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera, Gobernuaren arau-ahalmena honela gauzatzen da:

a) Modu autonomoan, legeari men egin gabe.
b) Konstituzioaren eta legeen arabera.
c) Lege organikoak garatzeko soilik.
d) Gorte Nagusien delegazio bidez soilik.

58. Espainiako Konstituzioaren arabera, erregelamendu-ahala honako honi dagokio:

a) Gorte Nagusiei, Gobernuari egindako eskuordetza gorabehera.
b) Erregeari, Gobernuko presidenteak berresten dituen errege-dekretuen bidez.
c) Gobernuko presidenteari, jatorrizko eta izaera orokorreko ahal gisa.
d) Gobernuari, Konstituzioarekin eta legeekin bat etorriz.

59. Estatuko erregelamenduen hierarkian, ministro-aginduen gainetik honako hauek daude:

a) Ministro Kontseiluak onartutako errege-dekretuak bakarrik, baina ez Gobernuko presidentearenak.
b) Gobernuko presidentearen errege-dekretuz edo Ministro Kontseiluaren errege-dekretuz onartutako xedapenak.
c) Gobernuaren Ordezko Batzordeetako erabakiak, edozein dela ere haien forma.
d) Ministroaren eskuordetzaz emandako estatu-idazkarien ebazpenak.

60. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, administrazio-xedapenak deusezak izango dira honako kasu hauetan:

a) Antolamendu juridikoko edozein arau urratzen dutenean.
b) Konstituzioa, legeak edo goragoko mailako administrazio-xedapenak urratzen dituztenean, legeari erreserbatutako gaiak arautzen dituztenean edo zehapen-xedapen atzeraeraginkorrak ezartzen dituztenean, kaltegarriak edo eskubideak murrizten dituztenean.
c) Hierarkikoki eskumena ez duten organoek ematen dituztenean.
d) Akats materialak edo aritmetikoak dituztenean.

61. Deuseza den xedapen administratibo baten ofiziozko berrikuspena Administrazioak honela erabaki ahal izango du:

a) Hura onartu zenetik lau urteko epearen barruan bakarrik.
b) Alderdi interesdunaren eskariz bakarrik.
c) Edozein unetan, ofizioz, Estatu Kontseiluaren edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen irizpen aldekoa jaso ondoren.
d) Deuseztasuna epai irmo batetik datorrenean soilik.



62. Administrazioarekiko auzien ordenan, honako hauen aurkako errekurtsoa onargarria da:

a) Xedapen orokorren aurka eta administrazio-bidea amaitzen duten egintza espresu edo ustezkoen aurka, legeak ezarritako baldintzetan.
b) Estatuko erregelamenduen aurka bakarrik, baina ez autonomia-erkidegoetakoen edo toki-erakundeetakoen aurka.
c) Egintza behin betikoen aurka bakarrik, inoiz ez xedapen orokorren aurka.
d) Xedapen orokorren aurka bakarrik, baldin eta aurrez administrazio-bidean errekurritu badira.

63. Administrazioarekiko auzien organo batek epai irmo estimatzailea ematen duenean, aplikatutako xedapen orokorraren edukia legez kontrakotzat jota, honako hau egin beharko du:

a) Kasu zehatzean xedapena ez aplikatzera mugatu, geroko beste jarduketarik egin gabe.
b) Xedapen orokorra zuzenean deuseztatu, kasu guztietan.
c) Xedapen orokorraren indarraldia ofizioz eten.
d) Legez salbuetsitako kasuetan izan ezik, ilegalitate-arazoa planteatu xedapenaren aurkako zuzeneko errekurtsoa ezagutzeko eskumena duen auzitegiaren aurrean.

64. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoak, ezartzen duenaren arabera:

a) Forma-akatsak administrazio-egintzen deuseztagarritasuna ekarriko du.
b) Administrazio-jarduketak ezarritako epetik kanpo egiteak egintzaren deuseztagarritasuna ekarriko du.
c) Deuseztagarriak dira aldekoak ez diren zehapen-xedapenen edo banakako eskubideak murrizten dituzten xedapenen atzeraeragina ezartzen duten administrazio-xedapenak.
d) Administrazio-jarduketak ezarritako epetik kanpo egiteak egintzaren deuseztagarritasuna ekarriko du bakarrik epe edo terminoaren izaerak hala eskatzen duenean.

65. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa, arau-hauste bat egiteagatik sortzen den administrazio-erantzukizuna:

a) Ez da bateragarria izango arau-haustea egin duenari berak eraldatutako egoera lehengoratzeko exijentziarekin, salbu eta arau-haustea egitean doloz edo zabarkeria larriz jokatu bada.
b) Bateragarria izango da arau-haustea egin duenari berak eraldatutako egoera jatorrizko egoerara lehengoratzeko exijentziarekin, bai eta eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharrarekin ere.
c) Ez da bateragarria izango eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharrarekin, salbu eta arau-haustea egitean doloz edo zabarkeria larriz jokatu bada.



d) Bateragarria izango da arau-haustea egin duenari berak eraldatutako egoera jatorrizko egoerara lehengoratzeko exijentziarekin, baina ez eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharrarekin, salbu eta arau-haustea egitean doloz edo zabarkeria larriz jokatu bada.

66. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoak, ezartzen duenaren arabera:

a) Administrazio publikoek nahitaezko betearazpena gauzatuko dute, betiere proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, honako bitarteko hauen bidez: a) ondarearen gaineko premiamendua, b) betearazpen subsidiarioa eta c) pertsonen gaineko hertsapena.
b) Administrazio-egintza baten ondorioz diru-kopuru likido bat bete behar bada, isun hertsatzailearen eta/edo nahitaezko desjabetzearen prozedura arautzen duten arauetan aurreikusitako prozedura jarraituko da.
c) Isun hertsatzailea independentea da izaera horrekin ezar daitezkeen zehapenei dagokienez, eta haiekin bateragarria da.
d) Administrazio publikoek, kasu bakoitzean eskumena duten organoen bidez, administrazio-egintzen nahitaezko betearazpena gauzatu ahal izango dute, aldez aurretik ohartarazpena eginda.

67. Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera, Administrazio Publikoak honela jarduten du:

a) Konstituzioari, legeari eta Zuzenbideari erabateko menpekotasunez.
b) Lege formalari bakarrik men eginez, gainerako ordenamendu juridikoa kontuan hartu gabe.
c) Gobernuari men eginez, legea aplikagarria denean izan ezik.
d) Lehentasuna eman behar zaie administrazio-egokitasuneko irizpideei.

68. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, nahitaezko betearazpen-bideak dira:

a) Ondarearen gaineko premiamendua, betearazpen subsidiarioa, hertsapen-isuna eta pertsonen gaineko derrigortzea.
b) Ondarearen gaineko premiamendua, betearazpen subsidiarioa eta ofiziozko berrikuspena.
c) Hertsapen-isuna, pertsonen gaineko derrigortzea eta kaltegarritasun-deklarazioa.
d) Betearazpen subsidiarioa, pertsonen gaineko derrigortzea eta gora jotzeko errekurtsoa.

69. Espainiako Konstituzioak berariaz bermatzen du, besteak beste, honako printzipio hau botere publikoen jardunean:

a) Administrazioaren balioespen askatasuna, ondorengo jurisdikzio-kontrolik gabea.
b) Botere publikoen arbitrariotasunaren debekua.



c) Administrazio-erabaki ororen diskrezionaltasun orokorraren presuntzioa.
d) Diskreziozko administrazio-egintzen jurisdikzio-immunitatea.

70. Espainiako Konstituzioaren arabera, Administrazio Publikoak objektibotasunez zerbitzatzen ditu interes orokorrak, eta honela jarduten du:

a) Konstituzioari, legeari eta Zuzenbideari erabateko men eginez.
b) Legeari bakarrik men eginez, baina ez gainerako ordenamendu juridikoari.
c) Gobernuari erabateko men eginez, parlamentu-kontrolaren kalterik gabe.
d) Aukera politikoaren irizpideei lehentasunez jarraituz.

71. Espainiako Konstituzioaren arabera, auzitegiek honako hau kontrolatzen dute:

a) Administrazioaren zehapen-ahala soilik.
b) Erregelamendu-ahala eta administrazio-jarduketaren legezkotasuna, bai eta jarduketa hori justifikatzen duten helburuei men egiten dien ere.
c) Egintza arautuak bakarrik, baina ez diskrezionalak.
d) Egitatezko bide administratiboa baino ez, eta ez egintza adieraziak.

72. 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikoen Zuzenbide administratiboari lotutako egintzak:

a) Ematen diren egunetik baliozkotzat hartzen dira eta ondorioak sortzen dituzte, egintza horietan besterik xedatzen ez bada.
b) Jakinarazten diren unetik aurrera bakarrik sortzen dituzte ondorioak, kasu guztietan.
c) Ez dute eraginkortasunik goiko organoak berretsi arte.
d) Administrazio-bidea agortzen dutenean bakarrik sortzen dituzte ondorioak.

73. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, organo berri bat sortzea honako kasu honetan bakarrik egingo da:

a) Egiaztatu ondoren administrazio berean edo beste administrazio publiko batean ez dagoela jarduera-eremu berean eginkizun bera betetzen duen beste organorik.
b) Egiaztatu ondoren administrazio berean ez dagoela jarduera-eremu berean eginkizun bera betetzen duen beste organorik.
c) Egiaztatu ondoren administrazio berean edo beste administrazio publiko batean ez dagoela lurralde eta biztanleria berean eginkizun bera betetzen duen beste organorik.
d) Egiaztatu ondoren administrazio berean ez dagoela lurralde eta biztanleria berean eginkizun bera betetzen duen beste organorik.

74. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera, Europar Batasuneko organo batek egitate berengatik zehapena ezarri badu:

a) Ebazteko eskumena duen organoak kontuan hartu beharko du zehapena, hala badagokio, ezarri beharrekoa graduatzeko, eta arindu ahal izango du, baldin eta subjektu eta oinarriaren identitatea gertatzen ez bada.

b) Ebazteko eskumena duen organoak ez du zertan kontuan hartu behar zehapena graduazio-ondorioetarako
c) Ebazteko eskumena duen organoak ez du zertan kontuan hartu behar zehapena, nahiz eta arindu ahal izan, subjektu eta oinarriaren identitatea gertatzen bada.
d) Ebazteko eskumena duen organoak kontuan hartu beharko du zehapena, eta areagotu ahal izango du, subjektu eta oinarriaren identitatea gertatzen bada.

75. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eskumena:

a) Administrazioko edozein organok erabili ahal izango du, eraginkorragoa bada.
b) Uka daiteke, egokitasun administratiboko arrazoiak badaude.
c) Ukaezina da, eta berezko eskumena duten administrazio-organoek baliatuko dute, delegazio edo abokazio kasuetan izan ezik.
d) Goi-mailako organoek bakarrik baliatu ahal izango dute, nahiz eta behe-mailako organoei esleituta egon.

76. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, kide anitzeko organoei dagokienez:

a) Gai-zerrendan ageri ez diren gaiak salbuespenik gabe erabaki ahal izango dira.
b) Ezin izango da gai-zerrendan ageri ez den gairik eztabaidatu edo erabaki, salbu eta kide guztiak bertan badaude eta premia gehiengoz adierazten bada.
c) Idazkariaren presentzia ez da beharrezkoa organoa balioz eratuta egoteko.
d) Erabakiak beti aho batez hartu beharko dira.

77. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, administrazio publikoen jarduera-printzipioen artean honako hau dago:

a) Arau-hierarkiaren printzipioa, maila baxuagoko arauak jurisdikzio-kontrolik gabe ez aplikatzea ahalbidetzen duena.
b) Plangintzaren printzipioa, aurretik onartutako programen arabera jarduteko betebeharra adierazten duena.
c) Erantzukizunaren printzipioa, Konstituzioari, legeari eta zuzenbideari erabat men eginez.
d) Eraginkortasunaren printzipioa, Konstituzioari, legeari eta zuzenbideari erabat men eginez.

78. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera, administrazio-organoek beren menpeko organoen jarduera zuzendu ahal izango dute:

a) Jarraibide eta zerbitzu-aginduen bidez, kasu guztietan dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko direnak.
b) Jarraibide eta zerbitzu-aginduen bidez; horien argitalpena beharrezkoa izango da arau bereziren batek hala ezartzen duenean edo hartzaileen arabera komenigarritzat jotzen denean.
c) Barne-zirkularren bidez, betiere izaera arauemailea izango dutenak.



d) Antolaketa-erregelamenduen bidez, goi-organoak onartu beharrekoak.

79. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera, eskumenen eskuordetzea:

a) Eraginkorra izan dadin, nahitaez argitaratu behar da dagokion aldizkari ofizialean.
b) Ezinezkoa egiten du organo eskuordetzaileak gai jakin baten ezagutza bereganatzea.
c) Eskumenaren titulartasuna organo eskuordetuari transferitzea dakar.
d) Ezin da egin hierarkikoki menpekoak ez diren organoen artean.

80. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera, abokazioa:

a) Edozein unetan egin daiteke, arrazoitu beharrik gabe.
b) Arrazoitua izan behar du eta soilik goi-organo hierarkikoak erabaki dezake.
c) Banakako errekurtsoaren xede izan daiteke.
d) Organoen arteko eskumenen behin betiko aldaketa dakar.

81. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera, organo kolegiatuak:

a) Lehenengo deialdian balioz eratuko dira presidentea eta idazkaria eta kideen heren bat bertaratzen badira.
b) Bigarren deialdian eratu ahal izango dira presidentea bertaratu gabe.
c) Lehenengo deialdian balioz eratzeko, beharrezkoa izango da presidentea eta idazkaria edo haien ordezkoak bertaratzea, bai eta kideen erdia gutxienez ere.
d) Edozein gairi buruzko erabakiak har ditzakete, gai-zerrendan jasota egon ala ez.

82. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, egintza administratiboen eraginkortasuna:

a) Atzeratu egingo da egintza behin betikoak direnean eta goi-organoak hala erabakitzen duenean diskrezioz.
b) Atzeratu egingo da egintzaren edukiak hala eskatzen duenean edo haren jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goi-mailako onespenaren mende dagoenean.
c) Atzeratu egingo da izapide-egintzak direnean eta haien argitalpenaren mende dagoenean, goi-organoaren erabaki diskrezionalaren ondorioz.
d) Atzeratu egingo da izapide-egintzak direnean eta egintza eman duen organoak hala erabakitzen duenean diskrezioz.

83. 39/2015 Legearen arabera, prozedura administratiboa hasi aurretik hartutako behin-behineko neurriak:

a) Prozedura hasteko erabakian berretsi, aldatu edo baliogabetu beharko dira, hartzen direnetik hamar eguneko epean, eta erabaki hori dagokion errekurtsoaren xede izan daiteke.
b) Prozedura hasteko erabakian berretsi, aldatu edo baliogabetu beharko dira, hamar eguneko epean, baina erabaki hori ezin izango da errekurritu.
c) Prozedura hasteko erabakian berretsi, aldatu edo baliogabetu beharko dira, hamabost eguneko epean, eta erabaki hori dagokion errekurtsoaren xede izan daiteke.
d) Prozedura hasteko erabakian berretsi, aldatu edo baliogabetu beharko dira, hamabost eguneko epean, baina ezin izango da errekurritu.

84. 39/2015 Legearen arabera, prozeduran sortzen diren gorabehera-gaiak:

a) Prozeduraren tramitazioa etengo dute, salbu eta errekusazioaren kasuan.
b) Prozeduraren tramitazioa etengo dute, salbu eta jarduketen deuseztasunari buruzkoak direnean.
c) Ez dute prozeduraren tramitazioa etengo, salbu eta jarduketen deuseztasunari buruzkoak direnean.
d) Ez dute prozeduraren tramitazioa etengo, salbu eta errekusazioaren kasuan.

85. 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute:

a) Pertsona fisikoek eta juridikoek.
b) Kaltetuen taldeek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta ondare independente edo autonomoek.
c) Adingabeek.
d) Adingabeek, ordenamendu juridikoak baimentzen duen neurrian, beren eskubide eta interesak defendatzeko, guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza dutenen laguntzarik gabe; salbuespena izango da gaitasun-murrizketak eskubide horien egikaritza eragozten duenean.

86. 39/2015 Legearen arabera, txostena epe barruan ematen ez bada:

a) Prozeduraren tramitazioa nahitaez etengo da.
b) Ezin izango da prozedurarekin jarraitu txostena eman arte.
c) Jarduketek aurrera jarraitu ahal izango dute, txostena eman ez duen organoaren erantzukizuna gorabehera.
d) Epez kanpo emandako txostena zuzenbide osoz deuseza izango da.



87. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan:

a) Berariazko ebazpenik ez emateak ezespen-ondorioak izango ditu.
b) Berariazko ebazpenik ez emateak baiespen-ondorioak izango ditu, non eta Europar Batasuneko lege-mailako edo zuzenbide-mailako arau batek ez duen kontrakoa ezartzen.
c) Berariazko ebazpenik ez emateak prozedura azkentzen du, ondorio juridikorik izan gabe.
d) Berariazko ebazpenik ez badago, ezin da administrazio-errekurtsorik aurkeztu.

88. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, Administrazioak:

a) Ez du ebazpenik eman behar, gaia argi araututa ez dagoenean.
b) Derrigorrez eman behar du ebazpen adierazia eta jakinarazi, prozedura guztietan, hasiera-modua edozein dela ere.
c) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan bakarrik du ebazteko betebeharra.
d) Ebazpen adierazia ordezka dezake interesdunari egindako jakinarazpen informal batekin.

89. Prozedura administratiboen hasieraren araubideari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

153. Produktu farmazeutikoei dagokienez, Estatuaren Osasun Administrazioari honako eginkizun hau dagokio:

a) Prezioen ezarpen esklusiboa, kalitatean esku hartu gabe.
b) Sendagaien egokitasun sanitarioaren balorazioa eta haien baimena.
c) Farmazia pribatuen kudeaketa zuzena.
d) Sendagaien banaketa komertziala .

154. Azaroaren 21eko 44/2003 Legearen arabera, osasun-lanbide tituludunak honako hauek dira:

a) Autonomia Erkidegoek soilik erabakitzen dituztenak.
b) Osasun-arretara bereziki bideratutako prestakuntza dutenak eta botere publikoek aitortutako elkargo profesionaletan antolatuta daudenak.
c) Osasunarekin lotutako edozein jarduera, bere arauketa edozein dela ere.
d) Esperientzia profesionalaren arabera zehazten direnak, titulazio ofizialik izan gabe ere.

155. Azaroaren 21eko 44/2003 Legearen arabera, osasun-lanbideen antolamenduari buruzkoa, garapen profesionalaren lehen gradua lortzeko beharrezkoa izango da:

a) Hiru urteko jarduera profesionala egiaztatzea.
b) Bost urteko jarduera profesionala egiaztatzea.
c) Hamar urteko jarduera profesionala egiaztatzea.
d) Proba teoriko bat gainditzea soilik.

156. Osasun-arloko lanbideen antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen arabera, medikuak uko egin diezaioke pazienteari arreta emateari:

a) Bakarrik jarduera profesionala esparru pribatuan garatzen badu.
b) Edozein kasutan, bai sistema publikoan bai besteren kontura jarduten duen esparru pribatuan.
c) Bai sistema publikoan bai besteren kontura jarduten duen esparru pribatuan, baina soilik uko horrek pazientearen arretarik eza eragiten ez badu.
d) Legeak ez du aurreikusten pazienteari arreta emateari uko egiteko eskubiderik.

157. 44/2003 Legearen xedeari eta aplikazio-eremuari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Legeak soilik sektore publikoko osasun-zerbitzuetan lanbideen jarduera arautzen du.
b) Legeak soilik besteren konturako jarduerari dagokionez arautzen ditu osasun-lanbide tituludunen oinarrizko alderdiak.
c) Legeak, besteak beste, lanbide-jarduera, prestakuntzaren egitura orokorra, garapen profesionala eta osasun-lanbideen antolamenduan profesionalen parte-hartzea arautzen ditu.
d) Legeak soilik prestakuntza espezializatua eta garapen profesionala arautzen ditu.

158. Osasun-lanbide tituludunei dagokienez, adierazi aukera zuzena:

a) Legean aurreikusi gabeko jarduera bati osasun-lanbide tituludun eta arautu izaera ministerio-agindu bidez eman ahal izango zaio.
b) Osasun-lanbideak lizentziadun mailako lanbideetara mugatzen dira.



c) Legean aurreikusi gabeko jarduera bati osasun-lanbide tituludun eta arautu izaera eman ahal izango zaio lege-mailako arau baten bidez.
d) Osasunarekin lotutako jarduera oro automatikoki osasun-lanbide tituludun eta arautu gisa hartzen da.

159. Osasun-lanbide baten jardunari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Norberaren konturako jardunak titulu ofiziala eskatzen du, baina besteren konturako jardunak ez.
b) Osasun-lanbide baten jardunak, norberaren kontura zein besteren kontura, dagokion titulu ofiziala edo, hala badagokio, legez ezarritako ziurtagiria eskatzen du.
c) Elkargokide profesionala izatea nahikoa da osasun-arloko lanbidean aritzeko.
d) Osasun-lanbide baten jardunak esperientzia profesionala egiaztatzea soilik eskatzen du.

160. Osasun-profesionalen eta haien ardurapean dauden pertsonen arteko harremanari dagokionez, honako hau da legeak ezarritako printzipio orokorretako bat:

a) Profesionalak bere esku dituen baliabide diagnostiko eta terapeutikoak modu arrazoizkoan erabiltzeko betebeharra, gehiegizko erabilera, erabilera eskasa edo erabilera desegokia saihestuz.
b) Profesionalak baliabide diagnostiko eta terapeutikoak inolako baldintzarik gabe erabiltzeko askatasuna, baldin eta pazientearen baimena badago.
c) Profesionalak informazio klinikoa mugatzeko ahalmena, zentroaren antolaketa-arrazoiengatik.
d) Profesionalak arreta emateari uko egiteko aukera, pazienteak gomendio mediko bat ukatzen duenean.

161. Osasun-arloko prestakuntza- eta irakaskuntza-jardueraren printzipio gidarien artean honako hau dago:

a) Osasun-zentroen eta gradu aurreko prestakuntzaren arteko bereizketa funtzionala, esku-hartze asistentzialak saihesteko.
b) Osasun-sistemaren egitura osoa profesionalen gradu aurreko, espezializatutako eta etengabeko prestakuntzarako erabiltzeko prest egotea.
c) Osasun-zentroak ikerketa zientifikorako zentro gisa erabiltzea debekatzea.
d) Prestakuntza jarraitua borondatezkoa izatea erakunde eta zentro sanitarioentzat.

162. Osasun Zientzietako prestakuntza espezializatuari dagokionez, adierazi aukera zuzena:

a) Borondatezkoa eta ez ofiziala da, eta egiaztatu gabeko zentroetan egin daiteke.
b) Egoitza-sistemaren bidez egingo da, egiaztatutako zentroetan.
c) Beste edozein jarduera profesionalekin bateragarria da, baldin eta sanitarioa bada.
d) Ez du eskatzen prestakuntza jasotzen duen espezialistak progresiboki parte hartzea bere espezialitateko jardueretan eta erantzukizunetan.



163. Maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen arabera, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu laguntzaileen oinarrizko zorro komunak:

a) Farmaziako eta ortoprotesiaren prestazioak soilik barne hartzen ditu.
b) Osorik finantzaketa publikoarekin estalitako jarduera asistentzialak barne hartzen ditu, hala nola prebentzioa, diagnostikoa, tratamendua, errehabilitazioa eta larrialdiko garraio sanitarioa.
c) Erabiltzailearen ekarpena duten prestazioak barne hartzen ditu.
d) Zerbitzu osagarriak soilik barne hartzen ditu.

164. Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen arabera, zerbitzu osagarrien zorro komunak honako hau barne hartzen du:

a) Funtsezkotzat jotzen ez diren eta/edo patologia kroniko baten hobekuntzarako lagungarri edo osagarri diren jarduera, zerbitzu edo teknika guztiak, prestazio-izaerarekin eta finantzaketa publiko osoz estalita.
b) Prestazio-izaerarik ez duten eta funtsezkotzat jotzen ez diren eta/edo patologia kroniko baten hobekuntzarako lagungarri edo osagarri diren jarduera, zerbitzu edo teknika guztiak, erabiltzailearen ekarpenaren edo itzulketaren mende daudenak.
c) Prestazio-izaerarik ez duten baina funtsezkotzat jotzen diren jarduera, zerbitzu edo teknika guztiak, finantzaketa publiko osoz estalita.
d) Prestazio-izaerarekin funtsezkotzat jotzen ez diren jarduera, zerbitzu edo teknika guztiak, erabiltzailearen ekarpenaren edo itzulketaren mende daudenak.

165. 16/2003 Legearen xedeari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Osasun-prestazioen arauketa soilik du helburu.
b) Estatu-finantzaketaren bidez soilik bermatzen du sistemaren kohesio territoriala.
c) Administrazio publiko sanitarioen koordinazio- eta lankidetza-ekintzak ezartzea du helburu, Osasun Sistema Nazionalean ekitatea, kalitatea eta gizarte-partaidetza bermatzeko.
d) Autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuen barne-antolaketa soilik arautzen du.

166. Maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen arabera, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzuen zorro komuna honako hau da:

a) Autonomia Erkidegoek soilik zehazten dituzten osasun-prestazioen multzoa.
b) Osasun-prestazioak eraginkor bihurtzen dituzten teknika, teknologia edo prozeduren multzoa.
c) Ospitale-mailako prestazio asistentzialetara mugatzen dena.
d) Prebentzio-izaerako zerbitzuak soilik barne hartzen dituena.

167. Osasun Sistema Nazionalaren zorro komun osagarriari dagokionez, adierazi aukera zuzena:

a) Finantzaketa publiko osoz estalitako prestazio asistentzialak soilik barne hartzen ditu.
b) Erabiltzailearen ekarpena eskatzen duten prestazioak barne hartzen ditu, hala nola anbulatorioko prestazio farmazeutikoa.
c) Zerbitzu ez-sanitarioak soilik barne hartzen ditu.
d) Premiazko osasun-garraioa soilik barne hartzen du.

168. Osasun Sistema Nazionalean osasun-profesionalei dagokienez, adierazi baieztapen zuzena:

a) 16/2003 Legeak ez du aurreikuspenik egiten osasun-profesionalei buruz.
b) Giza baliabideen plangintza autonomia-mailan soilik egiten da, estatu-mailako koordinaziorik gabe.
c) Legeak koordinazio-mekanismoak ezartzen ditu osasun-profesionalen plangintzarako sistema osoan.
d) Osasun-profesionalen kudeaketa Estatuari dagokio soilik.

169. Osasun Sistema Nazionalean ikerketari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Ikerketa sanitarioa sistemaren eremutik kanpo geratzen da.
b) Ikerketa sanitarioa biztanleriaren osasunaren hobekuntzara bideratu behar da.
c) Ikerketa sanitarioa entitate pribatuen esku dago soilik.
d) Ikerketa sanitarioa ez da osasun-politika publikoen parte.

170. Osasun-informazioaren sistemari dagokionez, adierazi aukera zuzena:

a) Autonomia-izaerako sistema da, estatu-mailako integraziorik gabea.
b) Barne-kudeaketa administratiborako soilik balio du.
c) Sistemaren plangintza, ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzeko informazio sanitarioaren eskuragarritasuna bermatzea du helburu.
d) Administrazio Orokorraren erabilerarako soilik den sistema da.

171. Osasun Sistema Nazionalaren kalitateari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Kalitatea antolaketa-printzipio hutsa da, garapen normatiborik gabea.
b) Kalitatea ospitaleen ebaluaziora mugatzen da.
c) Legeak mekanismoak ezartzen ditu osasun-sistemaren kalitatea etengabe hobetzeko.
d) Kalitatea autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboa da, koordinaziorik gabe.



172. Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzuen zorro erkideari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Autonomia Erkidego bakoitzak bere lurralde-eremuan definitutako osasun-prestazioen multzoa da.
b) Osasun-prestazioak gauzatzeko erabiltzen diren teknika, teknologia edo prozeduren multzoa da.
c) Ospitaleko laguntza-prestazioetara soilik mugatzen da.
d) Osasun publikoko prestazioetara mugatzen da.

173. Osasun Sistema Nazionalaren oinarrizko zerbitzu-zorro erkideari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa eskatzen duten prestazioak barne hartzen ditu.
b) Premiazko osasun-garraioa soilik barne hartzen du.
c) Prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta errehabilitazioko jarduera asistentzialak barne hartzen ditu, guztiz finantzaketa publikoarekin estalita.
d) Sistema sanitarioaren barruan izaera osagarria du.

174. Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro erkide osagarriari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Erabat finantzaketa publikoarekin estalita dago.
b) Anbulatorioan ematen diren prestazioak barne hartzen ditu, eta erabiltzailearen ekarpena eskatzen dute.
c) Konplexutasun handiko ospitale-prestazioetara mugatzen da.
d) Izaera prebentibo hutsa du.

175. Estatuko Osasun Sistemaren zerbitzu osagarrien zorro erkideari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Funtsezko prestazioak barne hartzen ditu, finantzaketa publiko osoarekin.
b) Farmazia-prestazioetara soilik mugatzen da.
c) Prestazio izaerarik ez duten jarduera, zerbitzu edo teknikak barne hartzen ditu, erabiltzailearen ekarpen edo itzulketaren mende daudenak.
d) Autonomia Erkidego guztietan derrigorrez aplikatu beharrekoak dira.

176. Autonomia Erkidegoen zerbitzu-zorro osagarriari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Ezin dute Osasun Sistema Nazionalaren zorro erkidetik kanpoko prestaziorik gehitu.
b) Teknikak edo prozedura gehigarriak sar ditzakete, betiere haien finantzaketa bere gain hartzen badute.
c) Estatuaren funtsen kargura finantzatu behar dira.
d) Estatuko Gobernuaren aldez aurreko baimena behar dute.

177. Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro erkidean teknika, teknologia edo prozedura berriak sartzeko:

a) Osasun Ministerioaren erabaki politikoa nahikoa da.
b) Aurretiazko ebaluazioa egin behar da, eraginkortasunari, segurtasunari, eragingarritasunari eta erabilgarritasunari buruz.
c) Autonomia Erkidegoen txostena soilik behar da.
d) Lege formal baten bidez onartu behar da.

178. Osasun Sistema Nazionaleko prestazioen bermeei dagokienez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Ospitaleko asistentziaren kalitatera mugatzen dira.
b) Irisgarritasun-, mugikortasun-, kalitate-, segurtasun-, informazio- eta denbora-bermeak barne hartzen dituzte.
c) Autonomia Erkidegoen eskumen esklusiboa dira, estatu-mailako koordinaziorik gabe.
d) Zentro publikoetan soilik aplikatzen dira.

179. Osasun Sistema Nazionalean teknikak, teknologiak edo prozedurak modu babestuan erabiltzeari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Automatikoki ahalbidetzen du zorro erkidean behin betiko sartzea.
b) Denbora-mugarik gabe egiten da.
c) Bere segurtasuna, eraginkortasuna edo eragingarritasuna ebaluatzea du helburu, zorroan sartu aurretik.
d) Pazientearen baimenik gabe egin daiteke.

180. Osasun Sistema Nazionalean osasun-gastuen itzulketari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Beti dagokio, pazienteak osasun pribatura jotzen duenean.
b) Administrazioaren aldez aurreko baimena dagoenean soilik dagokio.
c) Kanpoko baliabideak erabiltzen direnean dagokio, premia larriko egoeretan edo sistema publikoko baliabideak erabiltzeko aukerarik ez dagoenean.
d) Automatikoki dagokio edozein osasun-prestaziotan.

181. Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legearen arabera, pazienteek osasun-informazioa jasotzeko duten eskubidea:

a) Ezin da inola ere mugatu.
b) Premia terapeutikoko egoeraren bat egiaztatuta edukitzeagatik muga daiteke.
c) Ezintasuna egiaztatuta egoteagatik muga daiteke, ezintasunaren maila edozein dela ere.
d) Egiaztatutako premia epidemiologikoko egoera batek mugatu dezake.

182. Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legearen arabera, adingabeei dagokienean, osasun-jardueretarako baimen informatua:

a) Legezko ordezkariari dagokio beti, adingabearen adina edo heldutasuna edozein dela ere.
b) Adingabeari dagokio behar besteko heldutasuna duenean eta, nolanahi ere, 16 urtetik aurrera, legez aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.
c) Adingabeak ezingo du inoiz ere eman, nahiz eta 16 urte izan.
d) Alde batera utz daiteke adingabearen edozein ezgaitasun-maila badago.

183. Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legeak xedatutakoaren arabera, lege honetan xedaturiko arau-hausteak:

a) Legean bertan arautzen dira zehatz-mehatz, jarduketen eta zehapenen berariazko katalogoarekin.
b) Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren zehapen-araubidean aurreikusitakoaren arabera zehatzen dira.
c) Ez dute zehapen-araubiderik.
d) Dolo edo fede txar kasuan baino ez dira zigortzen.

184. Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legeak xedatutakoaren arabera, pazienteak, laguntza ematen dion medikuaren irizpidearen arabera, bere egoera fisiko edo psikikoagatik informazioa ulertzeko gaitasunik ez badu:

a) Agintaritza judizialak hala xedatzen badu, familia-arrazoiengatik edo egitatezko arrazoiengatik harekin lotuta dauden pertsonei jakinaraziko zaie informazioa.
b) Zentroko Laguntza Etikoko Batzordeari kontsulta egin ondoren, familia-arrazoiengatik edo egitatezko arrazoiengatik hari lotutako pertsonei jakinaraziko zaie informazioa.
c) Zentroko zuzendaritzarekin kontsultatu ondoren, familia-arrazoiengatik edo egitatezko arrazoiengatik hari lotutako pertsonei jakinaraziko zaie informazioa.
d) Familia-arrazoiengatik edo egitatezko arrazoiengatik harekin lotura duten pertsonei jakinaraziko zaie informazioa.

185. Oro har, nola eman behar zaio pazienteari informazio asistentziala 41/2002 Legearen arabera?

a) Legezko ordezkariaren bitartez, nahitaez.
b) Informazio-liburuxka estandarizatuak entregatuz.
c) Ahoz, historia klinikoan jasota utziz.
d) Idatziz bakarrik, segurtasun juridikoa bermatzeko.

186. Zein da gehienezko epea, pertsona bat osasun publikorako arriskua dela-eta nahitaez barneratu behar dela agintari judizialari jakinarazteko?:

a) 12 ordu.
b) 72 ordu.
c) 24 ordu.

d) 48 ordu.

187. Zer gertatzen da paziente batek ez badu borondatezko alta sinatzen agindutako tratamendua errefusatu ondoren?

a) Zentroko zuzendaritzak erabaki dezake nahitaezko alta ematea, legeak araututako baldintzetan.
b) Behaketapean eduki behar da, zaintzarik aplikatu gabe.
c) Pazientea behartuta dago laguntza judizialaren bidezko tratamendua jasotzera.
d) Mediku arduradunak berehalako desgaikuntza zibila eskatu behar du.

188. Mediku-ziurtagirien doakotasunari dagokionez:

a) Doakoak izango dira, baldin eta pazienteak 18 urte baino gutxiago baditu..
b) Doakoak izango dira lege- edo erregelamendu-xedapen batek hala ezartzen duenean.
c) Espainiar guztientzat dohainik dira beti.
d) Medikuek egoki deritzotena kobra dezakete, prestigioaren arabera.

189. 41/2002 Legearen arabera, zein da pazienteak bere historia klinikora sartzeko duen eskubidearen muga esplizitua?

a) Datuen antzinatasuna, erregistroan hiru urte baino gehiago eman badira..
b) Profesionalek beren ohar subjektiboak erreserbatzeko duten eskubidea.
c) Mediku arduradunak berariaz uko egitea, informazioa nahasia dela uste duelako.
d) Zentroaren administrazio- eta fakturazio-datuetarako sarbidea.

190. Zer osasun-laguntza motari aplikatzen zaio 38/2012 Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoan?

a) Erakunde ez-sanitario batean integratutako zerbitzu sanitarioei bakarrik.
b) Akutuentzako ospitaleei bakarrik, tokiko kontsultategiak eta psikologia-kabineteak izan ezik.
c) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko ospitaleetan emandako osasun-laguntza publikoari bakarrik.
d) Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zentroetan ematen den edozein osasun-laguntza publiko eta pribaturi, bai lehen mailako arretan, bai espezializatuetan, baita banaka egiten den osasun-jardueran ere.

191. 38/2012 Dekretuaren arabera, pazienteak bere historial klinikoari buruz eskatutako dokumentazioa entregatzeko gehienezko epea da:

a) Hirurogei egun, historia klinikoa kanpoko artxibo batean edo paperezko euskarri batean badago.
b) Hogeita hamar egun baino gutxiagoko epea, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita.
c) Hamabost egun natural, eskaria egiten denetik.

d) Ez dago horretarako gehienezko eperik.

192. Dokumentazio klinikoaren kontserbazioari dagokionez, zein da nahitaezko gutxieneko epealdi orokorra?

a) Bost urtez gorde beharko da, gutxienez, osasun-laguntzako jardueraren alta-egunetik kontatzen hasita.
b) Hamar urte, dokumentazio kliniko osorako, salbuespenik gabe.
c) Pazientea hil eta bi urtera.
d) Hogei urte, etorkizuneko ikerketa epidemiologikoa ziurtatzeko.

193. 38/2012 Dekretuaren 12.1 artikuluaren arabera, zer informazio bazter daiteke pazienteak bere historia klinikoa eskuratzetik?

a) Espezialisten arteko kontsulta-txostenak.
b) Osasun-profesionalen ohar subjektiboak.
c) Proba diagnostikoen emaitzak.
d) Diagnostiko nagusia.

194. Historia klinikoan datuak ezerezteko eskubideari dagokionez, zein da eskubide hori baliatzearen ondorio nagusia?

a) Pazientearen izena kode anonimo batekin ordezkatzea.
b) Sistemaren erregistro guztiak berehala ezabatzea.
c) Datuak blokeatzea.
d) Datuak nahitaez beste osasun-zentro batera transferitzea.

195. 38/2012 Dekretuaren arabera, dokumentu hauetatik zein <u>ezin</u> da inoiz suntsitu, ezta kontserbatzeko epe orokorrak amaitu ondoren ere?:

a) Anamnesia eta hasierako miaketa fisikoa.
b) Alta-txostena, baimen informatua eta txosten kirurgikoa.
c) Eguneroko mediku-aginduak eta farmazia-administrazioaren orria.
d) Konstante grafikoen erregistroa eta erizaintzako zainketen planifikazioa.

196. Agiri klinikoak baloratzeko, aukeratzeko eta garbitzeko batzordearen funtzio nagusia da:

a) Lanbide-sekretuaren betebeharra betetzen ez duten profesionalak zehatzea.
b) Pazienteek beren historia kliniko elektronikoetarako sarbidea kudeatzea.
c) Kontserbazio-arauak ematea eta dokumentazio klinikoa selektiboki ezabatzeko prozesuak baimentzea.
d) Pazienteen alta-txostenak berrikustea.

197. Medikuntza nuklearreko eta erradioterapiako zerbitzuetarako, dokumentazioa gordetzeko epea hau da:

a) 50 urte, erradiazio ionizatzaileen eraginpean egoteko arriskuagatik.

b) 15 urte edo pazientea hil arte.
c) 30 urte, kalitate-irizpideei buruzko berariazko araudian xedatutakoaren arabera..
d) 5 urteko epe orokorra.

198. Osasun-erakundeen betebeharra da, 38/2012 Dekretuaren arabera:

a) Egoki deritzen neurriak hartzea agiri klinikoak kudeatzeko..
b) Dokumentuak garbitzeko prozesuak egitea, artxiboaren karga arintzekoa.
c) Osasun-laguntza ematen den lekuan historia klinikoa eskuragarri egongo dela bermatzea.
d) Artxibo klinikoa antolatzeko irizpideak libreki erabakitzea, mugarik gabe

199. Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua honela osatzen da:

a) Presidentea eta, gehienez, hiru kide, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaritzan.
b) Presidentea eta, gehienez, bost kide, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaritzan.
c) Presidentea eta, gehienez, sei kide, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaritzan.
d) Presidentea, bost kide Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaritzan, eta osasun-arloko sail eskuduneko sailburua.

200. Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera:

a) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide pribatuaren mende egongo da jarduera guztietan, eta haren egintzek administrazio-bidea agortuko dute.
b) Entitatearen menpeko erakundeek ez dute administrazio-organo izaerarik izango.
c) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide publikoaren mende egongo da, administrazio-ahalmenak zuzenean edo delegazioz erabiltzen dituenean, baita ondare-erregimenari eta hirugarrenei eragindako kalteengatiko erantzukizunari dagokienez ere, eta haren egintzek administrazio-bidea agortuko dute.
d) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide publikoaren mende egongo da jarduera guztietan, eta haren egintzek administrazio-bidea agortuko dute.

201. Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera, osasun-plangintzaren lurralde-antolamenduaren oinarri nagusia Euskal Autonomia Erkidego osoa honako banaketa geografikoetan zatitzea da:

a) Eskualde sanitarioak.
b) Osasun Eremuak.
c) Lurralde Historikoak.
d) Eremu sanitarioak.

202. 8/1997 Legearen xedeari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Osasun-zentro publikoen arauketa soilik du helburu.
b) Euskadiko osasun-sistemaren antolamendua eta osasun-arloko jarduera publikoen arauketa du helburu.
c) Osakidetzaren antolaketa soilik du helburu.
d) Prestazio farmazeutikoa soilik arautzen du.

203. Ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko osasun-antolamenduari buruzkoa, Euskadiko osasun-sistema honela dago eratuta:

a) Osasun-baliabide pribatuak soilik barne hartzen ditu.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-baliabide publiko guztiek osatzen dute.
c) Baldintza juridiko berdinetan dauden osasun-baliabide publiko eta pribatuek osatzen dute.
d) Lehen mailako arretako zerbitzuetara mugatzen da.

204. Euskadiko Osasun Sistemaren printzipio programatikoei dagokienez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Gaixotasunen sendaketari lehentasuna ematea.
b) Herritarren parte-hartzea funtzio kontsultiboetara mugatzea.
c) Ospitale-arretari lehentasun esklusiboa ematea.
d) Baliabideak eta jarduketak osasunaren sustapenera eta gaixotasunen prebentziora lehentasunez bideratzea.

205. Ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko osasun-antolamenduari buruzkoa, Euskadiko osasun-sistemaren zuzendaritza, plangintza eta programazioa honako honi dagokio:

a) Udal korporazioei soilik.
b) Eusko Jaurlaritzari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunen bidez.
c) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari modu esklusiboan.
d) Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluari.

206. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduera guztietan Zuzenbide pribatuaren mende dago.
b) Ez du nortasun juridiko propiorik.
c) Zuzenbide pribatuko entitate publikoa da, baina administrazio-ahalmenak baliatzean Zuzenbide publikoaren mende jarduten du.
d) Kudeaketa-autonomiarik gabeko administrazio-organoa da.

207. Osasun-zerbitzuen hornidurari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Osasun-zerbitzuak kudeaketa publiko zuzenaren bidez soilik eman daitezke.
b) Osasun-zerbitzuen hornidura entitate pribatuekin harreman juridikoen bidez ere egin daiteke.
c) Debekatuta dago entitate pribatuen parte-hartzea osasun-zerbitzuen prestazioan.
d) Parte-hartze pribatua finantzaketara mugatzen da soilik.

208. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, honako hauek dagozkio Entitate Publikoko Administrazio Kontseiluari:

a) Bere zerbitzuen funtzionamenduagatik sortutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioak ebaztea.
b) Entitate Publikoaren kontratu guztiak baimentzea, delegatzeko aukerarik gabe.
c) Zerbitzu sanitarioak ematen dituzten erakunde guztiak zuzenean kudeatzea.
d) Plantilla estrukturalak onartzea beste organoen esku-hartzerik gabe.

209. Azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, administrazio-errekurtso arruntak ezagutzeko ondorioetarako:

a) Zerbitzu-erakundeetako zuzendari-kudeatzailea izango da hierarkikoki nagusia, eta kasuan kasu Osasun sailburua.
b) Administrazio Kontseilua izango da hierarkikoki nagusia kasu guztietan.
c) Entitate Publikoko zuzendari nagusia izango da zerbitzu-erakundeetako zuzendaritza-karguen hierarkikoki nagusia, eta, gaia antolakunde nagusiari dagokionean, Administrazio Kontseilua izango da nagusia.
d) Zerbitzu-erakundeetako zuzendari-kudeatzailea izango da nagusia, eta kasuan kasu zuzendari nagusia.

210. Azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Entitate Publikoko erakundeetako plantillak eta lan-eskaintza publikoak onartzea dagokio:

a) Osasun sailburuari, Administrazio Kontseiluaren proposamenez.
b) Zuzendari nagusiari, Administrazio Kontseiluaren proposamenez.
c) Administrazio Kontseiluari.
d) Zerbitzu-erakundeetako zuzendari-kudeatzaileei.

211. Osakidetzaren Estatutu Sozialen arabera, Administrazio Kontseilua honela osatzen da:

a) Presidentea eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bost ordezkari.
b) Presidentea eta sei ordezkari.
c) Presidentea eta zazpi ordezkari.
d) Presidentea eta hamar ordezkari.

212. **Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Entitate Publikoaren definizioari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:**

a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-erakunde autonomoa da, eta bere helburua osasun-plangintza da.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko entitate instituzionala da, izaera publikokoa eta zuzenbide pribatuko entitate publiko gisa sailkatua, eta bere xedea osasun-zerbitzuak ematea da, bere menpeko erakunde publikoen bidez.
c) Osasun Sailari atxikitako sozietate publikoa da, eta bere xede bakarra ospitale-kudeaketa da.
d) Izaera pribatuko entitate instrumentala da, eta bere jarduera nagusia osasun-zerbitzuen kontratazioa da.

213. Osakidetza Entitate Publikoaren xedeen artean honako hau dago:

a) Euskadiko mapa sanitarioa onartzea.
b) Osasun-antolakuntzari buruzko arau-ahalmena erabiltzea.
c) Osasun-zientzietako irakaskuntza sustatzea eta ikerketa-, azterketa- eta dibulgazio-jarduerak bultzatzea.
d) Osasun-zentro pribatuak baimentzea.

214. Osakidetza Entitate Publikoaren antolakunde nagusiari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Administrazio Kontseiluari laguntzeko egitura zuzendaritza bat da, eta zerbitzu-erakundeekiko kontrol-, koordinazio estrategiko, laguntza eta kudeaketa-eginkizunak betetzen ditu.
b) Aholkularitza juridikora mugatzen da.
c) Ez du eskumenik zerbitzu-erakundeekiko.
d) Presidentearen aholkularitza-organo hutsa da.

215. Antolakunde nagusiko Zuzendaritza Nagusiak honako laguntza izango du:

a) Bi ataleko zuzendarien laguntza.
b) Lau ataleko zuzendarien laguntza.
c) Hiru ataleko zuzendariz osatutako zuzendaritza-talde baten laguntza.
d) Administrazio Kontseiluak zehazten duen kopuru aldakorreko zuzendarien laguntza.

216. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Entitate Publikoaren Estatutu Sozialen arabera, zerbitzu sanitarioak ematen dituzten erakundeek, zuzendari-kudeatzaileaz gain, zuzendaritza-talde bat izan dezakete, gehienez honako kide kopuruarekin:

a) Lau zuzendaritza-kargu gehienez.
b) Bost zuzendaritza-kargu gehienez.
c) Sei zuzendaritza-kargu gehienez.
d) Erakunde bakoitzak askatasunez ezartzen duen zuzendaritza-kargu kopuru mugagabea.



217. Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretuaren arabera, honako hau dagokio sailburuari:

a) Sailaren gastuen baimenak, 300.000 eurotik gorako zenbatekoetan, Jaurlaritzaren eskumenei kalterik egin gabe.
b) Sailaren gastuen baimenak, 500.000 eurotik gorako zenbatekoetan, Jaurlaritzaren eskumenei kalterik egin gabe.
c) Sailaren gastuen baimenak, 350.000 eurotik gorako zenbatekoetan, Jaurlaritzaren eskumenei kalterik egin gabe.
d) Sailaren gastuen baimenak, 400.000 eurotik gorako zenbatekoetan, Jaurlaritzaren eskumenei kalterik egin gabe.

218. Osasun Sailaren eginkizunei dagokienez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Ospitale-arreta soilik barne hartzen dute.
b) Osasunaren plangintza eta antolamendua, osasun publikoa eta farmazia-antolamendua barne hartzen dituzte.
c) Osakidetzaren kudeaketara mugatzen dira.
d) Soziosanitario koordinaziora soilik mugatzen dira.

219. Osasun Saila bere eskumenak betetzeko honela egituratzen da:

a) Organo zentralak soilik.
b) Organo zentralak eta erakunde autonomoak soilik.
c) Organo zentralak eta organo periferikoak.
d) Organo zentralak, organo periferikoak eta entitate pribatuak.

220. Osasun Sailaren Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizun nagusia honako hau da:

a) Administrazio-errekurtsoak ebaztea.
b) Sailburuari laguntzea Sailaren politikaren gainbegiraketa eta jarraipenean.
c) Sailaren aurrekontua onartzea.
d) Zehatzeko ahalmena erabiltzea.

221. Zuzendaritza Kontseiluaren osaerari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Sailburua bakarrik osatzen du.
b) Sailburuordetzek soilik osatzen dute.
c) Sailburuak, sailburuordetzek eta, besteak beste, Osakidetzako zuzendari nagusiak osatzen dute.
d) Organo periferikoek soilik osatzen dute.

222. Osasun sailburuaren eskumenei dagokienez, adierazi aukera zuzena:

a) Ez du zuzendaritza-eginkizunik entitate publiko atxikien gainean.
b) Eginkizun normatiboak soilik betetzen ditu.

c) Sailari atxikitako entitate publiko eta organismoen zuzendaritza, koordinazioa eta kontrola egiten du.
d) Ez du eskumenik ondare-erantzukizunaren arloan.

223. Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren arabera, Osasun Administrazio eta Finantzaketarako Sailburuordetzako titularrari dagokio:

a) Sailaren gastuak edozein zenbatekotan baimentzea.
b) Sailaren gastuak baimentzea, espedienteen zenbatekoa 500.000 euroraino iristen denean.
c) Sailaren langileen gastuak soilik baimentzea.
d) Autonomia Erkidego mailako kontratazio sanitarioari dagozkion gastuak soilik baimentzea.

224. Osasun Sailaren sailburuordetzei dagokienez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Ez dute berezko eginkizunik.
b) Zuzendaritzen koordinazio-, bultzada- eta gainbegiratze-eginkizunak betetzen dituzte.
c) Aholku-eginkizunetara mugatzen dira.
d) Ez dute kanpoko entitateekin hitzarmenik sinatzeko aukerarik.

225. Osasun Sailaren zuzendaritzek:

a) Ez dute eskumen propiorik eta delegazio bidez soilik jarduten dute.
b) Politika publikoak garatzen dituzte, plan eta programen bidez, beren jarduera-eremuan.
c) Barne-kudeaketa administratibora mugatzen dira.
d) Ez dute administrazio-errekurtsoak ebazteko gaitasunik.

226. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, pazienteak edo erabiltzaileak:

a) Erabakiak idatzita utzi behar ditu, legez eskatzen denean edo gomendagarria denean.
b) Erabakiak idatzita utzi behar ditu, arreta ematen dioten profesionalek hala eskatzen diotenean.
c) Erabakiak idatzita utzi behar ditu, zentro sanitarioaren politikak hala ezartzen duenean.
d) Erabakiak idatzita utzi behar ditu, legezko erantzukizunaren ondoreetarako garrantzitsuak direnean.

227. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, pazienteak edo erabiltzaileak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Leial eta egiati ematea beren identifikazioari eta beren egoera fisikoari edo osasunari buruzko datuak, bai eta datu horiek lortzen laguntzea ere, osasun-laguntza emateko beharrezkoak direnean nahiz behar bezala arrazoituriko interes orokorreko arrazoiak tartean daudenean, betiere agindu judizial batek bermatzen badu.
b) Leial eta egiati ematea beren identifikazioari eta beren egoera fisikoari edo osasunari buruzko datuak, bai eta datu horiek lortzen laguntzea ere, osasun-laguntza emateko beharrezkoak direnean nahiz behar bezala arrazoituriko interes orokorreko arrazoiak tartean daudenean, betiere idatziz eskatzen bada.
c) Leial eta egiati ematea beren identifikazioari eta beren egoera fisikoari edo osasunari buruzko datuak, bai eta datu horiek lortzen laguntzea ere, osasun-laguntza emateko beharrezkoak direnean nahiz behar bezala arrazoituriko interes orokorreko arrazoiak tartean daudenean, betiere informazioa babesteko ezarritako bermeen berri idatziz ematen bada.
d) Leial eta egiati ematea beren identifikazioari eta beren egoera fisikoari edo osasunari buruzko datuak, bai eta datu horiek lortzen laguntzea ere, osasun-laguntza emateko beharrezkoak direnean nahiz behar bezala arrazoituriko interés orokorreko arrazoiak tartean daudenean.

228. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, langileen jarduketen aurkako erreklamazioak:

a) Diziplinazko arau espezifikoak aintzat hartuz ebatziko dira, hala egokituz gero informazio-espedientea ireki eta gero. Gainera, egintzetatik eratorritako erantzukizunak beteko dira.
b) Diziplinazko arau orokorrak aintzat hartuz ebatziko dira, hala egokituz gero informazio-espedientea ireki eta gero. Gainera, egintzetatik eratorritako erantzukizunak beteko dira.
c) Diziplinazko arau espezifikoak aintzat hartuz ebatziko dira, hala egokituz gero informazio- eta bitartekaritza-espedienteak ireki eta gero. Gainera, egintzetatik eratorritako erantzukizunak beteko dira.
d) Diziplinazko arau orokorrak aintzat hartuz ebatziko dira, hala egokituz gero informazio- eta bitartekaritza-espedienteak ireki eta gero. Gainera, egintzetatik eratorritako erantzukizunak beteko dira.

229. Euskadiko osasun-sisteman pertsonek dituzten Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpenaren ondorioetarako, bizitzako fase batzuk ezartzen dira, eta horietan behar espezifikoak zehazten dira. Horien artean, EZ dira agertzen:

a) Haurren behar espezifikoak.
b) Gutxiengoen behar espezifikoak.
c) Bizitzaren amaierako behar espezifikoak.
d) Nerabeen behar espezifikoak.

230. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, EAEko sistema sanitarioko pazientearen edo erabiltzailearen eskubideetako bat, bere osasunaren kudeaketan parte-hartze arduratsua izatearekin lotua.

a) Esku-hartze terapeutiko oro pazienteak askatasunez eta borondatez baimena emanda egitea, egiazko informazioa, ulergarria eta egokia jaso ondoren esku-hartze horren xedeari, izaerari, ondorioei, arriskuei eta dauden tratamendu alternatiboei buruz.
b) Tratamenduari uko egiteko eskubidea, horrek osasunari kalte egiten badio ere edo hiltzea eragin badezake ere.
c) Osasunaren zainketei eta tratamenduari buruzko nahiak aurretiazko borondateen dokumentu batean aurretik adierazteko eskubidea, pertsonalki adierazi ezin dituen baldintzetan bete daitezen.
d) Gaixoak edo erabiltzaileak bere diagnostikoaren eta tratamenduaren ardura duen osasun-profesionala une oro ezagutzeko eskubidea, bai eta haren izena, titulazioa eta artatzen duten osasun-profesionalen espezialitatea ere. Halaber, haien estatus profesionala erraz bereizteko eskubidea izango du.

231. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, EAEko sistema sanitarioko pazientearen edo erabiltzailearen betebeharretako bat, bere osasunaren kudeaketan parte-hartze arduratsua izatearekin lotua.:

a) Nork bere osasunari buruzko erabakiak bere gain hartzea, erabaki horien ardura hartuz, eta erabaki horiek idatzita utziz, legez eskatzen denean edo gomendagarria denean (baimen informatua, borondatezko alta, tratamenduari uko egitea eta abar).
b) Norberaren bizitzako etapetako asistentzia sanitario espezifikoan aktiboki eta arduraz parte hartzea.
c) Leial eta egiati ematea beren identifikazioari eta beren egoera fisikoari edo osasunari buruzko datuak, bai eta datu horiek lortzen laguntzea ere, osasun-laguntza emateko beharrezkoak direnean.
d) EAEko sistema sanitarioak eskainitako baliabideak eta prestazioak egoki erabiltzea, beharren arabera.

232. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, Gaixoak eta Erabiltzaileak Artatzeko Zerbitzuei dagokienean:

a) Halakoak ez dira nahitaezkoak itunpeko zentro sanitarioetan; aitzitik, osasun-arloan eskumena duen sailak dituen zerbitzuek egingo dute lan hori.
b) Bere eginkizunetako bat da profesional sanitarioen eta egitura sanitarioetako gainerako langileen aurkako erasoak prebenitu eta artatzearren zentroko zuzendaritzak ezarritako neurriak ezartzea eta bete daitezen zaintzea, lan-arriskuak prebenitzearen arloan dauden prebentzio-zerbitzuei dagozkien eskumenen kalterik gabe.
c) Haien aurrean aurkezten diren erreklamazioak eta eskaerak erregistratuko dituzte soil- soilik, horien hartzailea atxikita dauden zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioa denean.
d) Haien ardura da hautemandako irregulartasunak konpontzea, beren jarduketak arautzen dituzten aurrekontu- eta lege-mugen barruan.

233. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren arabera, ahal dela, ospitaleratze pediatrikoko solairuan egingo dela ezartzen du:

a) 14 urte bete arte.
b) 12 urte bete arte.
c) Ospitaleko zuzendaritza bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.
d) 14 eta 16 urte bitartean dituztenean.

234. Euskadiko osasun-sisteman pertsonek dituzten Eskubide eta Betebeharren Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuan sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko laguntza espezifikoari dagokionez berariaz aitortutako eskubideen artean, EZ da agertzen:

a) Osasun-zentroan erditzeari buruz dituzun lehentasunak aurkezteko eskubidea.
b) Amagandiko edoskitzeari buruzko prestakuntza jasotzeko eskubidea, amagandiko edoskitzea haurren elikaduran erabiltzea sustatzeko.
c) Dilatazio-faserako posizioa erabakitzeko eskubidea.
d) Jaioberriari osasun-arreta eskaintzeko eskubidea, gurasoen sinesmenaren edo erlijioaren arabera.

235. Osasun-arloko aurretiazko borondateei buruzko abenduaren 12ko 7/2002 Legearen arabera, adierazi noren aurrean ezin den formalizatu aurretiazko borondateen agiria:

a) Idazkari judizialaren aurrean.
b) Notarioaren aurrean.
c) Hiru lekukoren aurrean.
d) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren ardura duen funtzionarioaren edo langile publikoaren aurrean.

236. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren arabera, adierazi zer den aurretiazko borondateen agiri bat ezeztea:

a) Edukian zati bat aldatzea, eraginik kendu gabe.
b) Eraginik gabe uztea eta berri bat ematea haren ordez.
c) Eraginik gabe uztea eta berri bat ez ematea haren ordez.
d) Haren edukia erabat aldatzea, eraginik kendu gabe.

237. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren arabera, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak agiri-emailearen gaitasunaren inguruan zalantza izanez gero:

a) Agiri-ematea eten dezake haren inguruan Erregistro Zibilak emandako egiaztagiria lortu arte.
b) Agiri-ematea eten dezake haren inguruan agintaritza judizialak emandako egiaztagiria lortu arte.
c) Prozedurarekin jarraituko du, eta Erregistro Zibilaren ziurtagiria eskatuko du haren inguruan.

d) Prozedurarekin jarraituko du, eta agintaritza judizialaren ziurtagiria eskatuko du haren inguruan.

238. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuarekin bat etorriz, erregistro horrek inskribatutako agiriak gordeko ditu eta soilik desegin ahal izango ditu:

a) Agiri-emailea hiltzen den momentutik bost urte pasa ondoren.
b) Ordezkatutako agiriak sei hilabete pasa ondoren desegin daitezke, ordezkapenaren inskripzioaren egunetik kontatuta.
c) Ezeztatutako agiriak lau hilabete pasa ondoren desegin daitezke, ezeztapenaren inskripzioaren egunetik kontatuta.
d) Sei urte pasa ondoren, agiri-emailea hiltzen den momentutik kontatuta.

239. Osasun-arloko aurretiazko borondateei buruzko abenduaren 12ko 7/2002 Legearen arabera, adierazi ondorengo baieztapenetatik zein EZ DEN ZUZENA:

a) Tratamenduaren gaineko jarraibideak berdin izan daitezke aurretiazko borondateen agiria egiten duen pertsonak dagoeneko badaukan eritasun edo lesio baten ingurukoak zein gero izan ditzakeenen ingurukoak.
b) Aurretiazko borondateen agiriko jarraibideak aplikatzerakoan antolamendu juridikoaren aurkakoak direla ikusten bada, ez direla jarri joko da.
c) Aurretiazko borondateen agiria egin duen pertsonak gaitasuna (lege honen 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera), jarduteko askatasuna eta adierazpenak egiteko modua dituen bitartean, edozein esku-hartze klinikoren aurrean, bere borondatea lehenago izango da agirian jasotako jarraibideak baino.
d) Kontuan hartuko dira emailearen medikuntzako tratamenduei buruzko jarraibideak, nahiz eta patologiarako kontraindikatuta egon.

240. Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko uztailaren 8ko 11/2016 Legearen arabera, adierazi zein den erantzun ZUZENA:

a) Bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsona orok eskubidea du proposaturiko esku-hartzea errefusatzeko, baldin eta horrek bere bizitzarako arrisku ziurra eta berehalakoa ez badakar.
b) Proposaturiko esku-hartzea errefusatu daiteke, errefusatze hori ahoz edo idatziz adierazi ahal izango da.
c) Esku-hartze edo tratamendu bat jasotzeari uko egiteak, edo horiek etetea erabakitzeak, ez du inola ere murriztuko ematen zaion bestelako arreta sanitarioa.
d) Proposaturiko esku-hartzearen errefusatzea historia klinikoari erantsiko zaio. Gaixoak sinatzerik ez badu, bi lekukok sinatuko dute haren ordez, hark eskatuta; historia klinikoan, berriz, lekuko horien identifikazioa eta egileak ezin sinatzeko arrazoia jaso beharko da.

241. Azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuan aurretiazko borondateen agiri-ematearen inskripziorako prozedurari buruz xedatutakoaren arabera, markatu erantzun OKERRA:

a) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak, aurretiazko borondateen agiriaren inskripzioari buruz emandako ebazpena, eskabidea aurkeztu duen pertsonari jakinarazi beharko dio hilabeteko epean.



b) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Ikerlan eta Garapen Sanitarioko zuzendariaren aurrean.
c) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren ebazpena ezarritako epearen barruan jakinarazten ez bazaio inskripzio eskubidea egun duen pertsonari, ezetsi egin dela ulertuko da.
d) Aurretiazko borondateen agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatuko da, estimatzeko eman den ebazpenaren egunetik kontatzen hasita, hiru egun balioduneko epean.

242. Osasun arloko aurretiazko borondateei buruzko abenduaren 12ko7/2002 Legearen arabera, adieraz ezazu aurretiazko borondateen agiria egin duenak zein pertsona izenda dezakeen bere ordezkari gisa, medikuaren edo osasun-taldearen solaskide baliozko izan dadin eta bere balio eta jarraibideak interpretatzeko gaitasuna emateko:

a) Agiria egiteko aukeratu diren lekukoak.
b) Notarioa.
c) Adinez nagusi den edozein pertsona, legezko gaitasuna kendu ez bazaio.
d) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren ardura duen funtzionarioa edo langile publikoa.

243. Osasun-arloko aurretiazko borondateei buruzko abenduaren 12ko 7/2002 Legearen arabera, adierazi ondorengo erantzun hauetatik zein den okerra aurretiazko borondateen agiria formalizatzeko lekukoei dagokienez:

a) Lekukoek adinez nagusi izan behar dute, jarduteko gaitasun osoa dutenak.
b) Ezin dute izan aurretiazko borondateen agiria egiten duenarekin ondare-harremanik.
c) Ezin dute izan aurretiazko borondateen agiria egiten duenarekin ezkontza edo elkartze libre zein izatezko bikote-kidearen bidezko loturarik.
d) Ez dute inolako ahaidetasun-harremanik izango aurretiazko borondateen agiria egiten duenarekin, ez odol-ahaidetasunik, ez ezkontza-ahaidetasunik.

244. Lanpostu funtzionaletako ordainsariei dagokienez, esan zein den erantzun okerra:

a) Lanpostu funtzionalen ordainsari-egitura oinarrizko ordainsariek eta ordainsari osagarriek osatzen dute.
b) Lanpostu funtzionalen ordainsarien zenbatekoak zentro bakoitzak ezartzen ditu, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.
c) Lanpostu funtzional batera iristeak lanpostu horri dagozkion ordainsariak jasotzea dakar.
d) Lanpostu funtzionalak, besteak beste, esleitutako ordainsari-ondorioekin identifikatuko dira.

245. 186/2005 Dekretuaren arabera, zein da langileen antolaketa, sustapena eta garapen osoa helburu duen langileak sailkatzeko tresna?:

a) Lanbide-taldea.
b) Kategoria.
c) Lanpostu funtzionala.
d) Titulazio-taldea.

246. 4. artikuluaren arabera, zein elementu ez da "erantzukizun funtzionala" bereizteko irizpideetako bat?:

a) Taldeak antolatzeko erantzukizun hierarkikoa.
b) Ezagupen espezializatu tekniko edo praktikoak
c) Baliabide materialak kudeatzeko ardura.
d) Lanpostuari esleitutako euskara-maila.

247. 186/2025 Dekretuaren arabera, zein da zerbitzu-erakunde bakoitzeko plantilla funtzionala onartzeko eskumena duen organoa?

a) Zerbitzu-erakundeko bertako zuzendari gerentea.
b) Osasun sailburua.
c) Osakidetzako Administrazio Kontseilua.
d) Jaurlaritzaren Kontseilua.

248. Plantilla funtzionala aldatzeak antolakundeko egiturazko plantilla aldatzea badakar:

a) Eusko Legebiltzarrak zuzenean onartu behar du.
b) Zuzendari gerenteak bakarrik onar dezake.
c) Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren onarpena behar du.
d) Automatikoki aplikatzen da negoziazio kolektiboaren ondoren.

249. Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, lanpostu funtzionaletan hasierako zehaztapenerako irizpideak arautzen dituen araudia hau da:

a) 67/2003 Dekretua.
b) 255/1997 Dekretua.
c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea.
d) Osasun Antolamenduko 8/1997 Legea.

250. Zer ordainsari-ondorio ditu lanpostu bat ofizioz egokitua duen eta ordainsari finkoak murriztuta dituen titular batek?

a) Urteko ordainsari baten baliokidea den konpentsazio-ordainketa bakar bat.
b) Osagarri pertsonal eta iragankor bat esleitzea.
c) Lansarien arteko aldea behin betiko galtzea.
d) Hurrengo deialdian lehiaketan parte hartzeko betebeharra.

251. 6. Xedapen Gehigarriaren arabera, lanpostu funtzional baterako gaitzen duten titulazio berriak sar ditzake, kategoria berririk sortu gabe:

a) Eusko Legebiltzarrak, legegintzako bidetik.
b) Hezkuntza Ministerioak.
c) Osakidetzako Administrazio Kontseiluak.
d) Giza Baliabideen Zuzendaritzak.

252. 186/2005 Dekretuaren arabera, "talde profesionala" honela definitzen da:

a) Ikasketa-mailan bakarrik oinarritutako sailkapena.
b) Sektorean aritutako urteetan oinarritutako banaketa.
c) Destino geografiko bera duten langileak.
d) Lanbideko gaitasunak eta prestazioaren berezko lanen eduki espezifikoa multzo bakar batean biltzea.

253. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Akordioarekin bat etorriz, euskalduntzeari eta alfabetatzeari dagokienez, honako hauek aplikatuko dira:

a) 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko III. Euskara Planean xedatutakoa.
b) Euskadiko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan xedatutakoa.
c) Euskadiko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan eta, subsidiarioki, zerbitzu-erakunde bakoitzaren barne-jarraibideetan xedatutakoa.
d) Euskadiko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan eta, subsidiarioki, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko III. Euskara Planean xedatutakoa.

254. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007, 2008 eta 2009ko Akordioaren arabera, euskara ikasteko liberatutako langileek honako hau jasoko dute:

a) Karteldegiagatik esleituta dituen ordainsari finkoen % 75.
b) Karteldegiagatik esleituta dituen ordainsari finko eta aldakorren % 100.
c) Oinarrizko soldata eta lanpostu-mailako osagarria.
d) Ordainsari finkoen % 100, baina ez ordainsari aldakorrena.

255. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007, 2008 eta 2009ko Akordioaren arabera, aktibo dauden langileek interesik gabeko aurrerakin arruntak jasotzeko eskubidea izango dute:

a) Hileko soldata gordinaren % 50eraino, gehi aparteko ordainsaritik sortutako zati proportzionala.
b) Gehienez bi hileko oso, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne.
c) Hileko soldata garbiaren % 100eraino, gehi aparteko ordainsaritik sortutako zati proportzionala.
d) Hiru hileko osora arte, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne.

256. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007ko, 2008ko eta 2009ko Akordioarekin bat etorriz, nomina-aurrerapenen gehieneko zenbateko orokorra honako hau izango da:

a) 3.000 euro.
b) 4.500 euro.
c) 5.800 euro.

d) 9.700 euro.

257. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007ko, 2008ko eta 2009ko Akordioarekin bat etorriz, bere eremuan dauden langileei zerbitzuagatiko kalte-ordainak ematea:

a) Ospitale bakoitzaren barne-akordio batek soilik arautzen du.
b) Funtzio publikoari buruzko estatuko araudiak soilik arautzen du.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ezarritako araudira egokitzen dela.
d) Ez du eguneratze automatikorik.

258. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Akordioarekin bat etorriz, lanbide-hobekuntzako ikasketak egiteko laguntza-eskabidea gutxienez honako aurrerapen honekin aurkeztu beharko da:

a) 5 egun.
b) 10 egun.
c) 30 egun.
d) 15 egun.

259. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko 2007ko, 2008ko eta 2009ko lan-baldintzak arautzen dituen Akordioarekin bat etorriz, sukaldeko plantillako langileei honako hau aitortzen zaie:

a) Egunean bi otordu egiteko eskubidea, egunean gutxienez 12 orduz lanean egonez gero, otordu horietan emandako denbora berreskuratuz.
b) Bazkaltzeko eskubidea, eguerdian edo gauean, gehienez ordu erdiko etenaldiarekin, zeina errekuperatu egingo baita.
c) Otorduetan zerbitzuan daudenean ordezko dirulaguntza jasotzeko eskubidea.
d) Benetan lan egindako ordu bateko etenaldia egiteko eskubidea.

260. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Akordioaren arabera, garraio arloan:

a) Garraio kolektiboa ezarrita dagoen tokian mantentzea bermatzen da.
b) Garraio kolektiboa pixkanaka kentzen da.
c) Garraio kolektiboa sortzen da zentro guztietan, salbuespenik gabe.
d) Osasun-eskualde bakoitzera geroratuta geratzen da, irizpide orokorrik gabe.

261. 235/2007 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Akordioarekin bat etorriz, beste gizarte-arreta batzuetarako funtsak honako hauek baztertzen ditu:

a) Salbuespenezko arrazoiak.
b) Gizarte Segurantzak, aurreikuspeneko beste edozein sistema publikok edo erakunde pribatuek emandako laguntza mediko-farmazeutikoan integratutako tratamenduak eta esku-hartzeak.

c) Gizarte Segurantzak edo aurreikuspeneko beste sistema publiko batek emandako laguntza mediko-farmazeutikoan integratutako tratamenduak eta esku-hartzeak.
e) Funtsaren beraren urteko finantzaketa.

262. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer erantzukizun dute osasun-arloan eskumena duten administrazio publikoek prebentzio-zerbitzuei dagokienez?

a) Laneko osasuneko politiken gauzatzea gainbegiratzea, laneko arriskuen ebaluazioan eta kontrolean esku hartu gabe.
b) Prebentzio-zerbitzuek enpresetan egiten dituzten osasun-jarduerak ebaluatzeko eta kontrolatzeko bitarteko egokiak ezartzea, jarduteko jarraibide eta protokoloen bidez.
c) Enpresek osasun-araudi orokorra betetzen dutela ziurtatzea, lan-osasuneko neurriak zehatz-mehatz ebaluatu eta kontrolatu beharrik gabe.
d) Laneko arriskuak kudeatzeko sistemen gaineko aldizkako kontrolak egitea, baina enpresak erabakiak hartzen inplikatu gabe.

263. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer egin dezake Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak langileen segurtasunerako edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa detektatzen badu?

a) Lanak berehala geldiarazteko agintzea.
b) Enpresari txosten bat eskatzea eta lan-arloko jurisdikzioan demanda bat jartzea.
c) Zehapen ekonomiko bat ezartzea berehala, eta, ondoren, lan-arloko jurisdikzioak zehatzea.
d) Erabakia lan-arloko epaitegiei eskuordetzea.

264. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer betebehar du enpresaburuak laneko ekipamenduei eta babes-baliabideei dagokienez?

a) Enpresaburuak zeregin arriskutsuez arduratzen diren langileei bakarrik eman behar dizkie lan-ekipoak.
b) Enpresaburuak bermatu behar du lan-ekipamenduak egokiak direla lanerako, eta langileen segurtasuna bermatu behar du horiek erabiltzean.
c) Enpresaburuak ez du lan-ekipoak emateko betebeharrik, hori langileen esku baitago.
d) Enpresaburuak lan-ekipamendu egokiak eman behar ditu, baina ez ditu langileen segurtasunera egokitu behar.

265. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zein da enpresaburuaren betebeharra langileen informazioari, kontsultari eta parte-hartzeari dagokienez?

a) Enpresaburuak ahalbidetu behar du langileek laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gaietan parte hartzea, baldin eta aldez aurretik lan-istripurik izan bada.

b) Enpresaburuak kontsulta egin behar die langileei laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gaiei buruz, baldin eta ordezkaritza handieneko edo ordezkaritza sinpleko sindikatuetan afiliatuta badaude.
c) Enpresaburuak kontsulta egin behar die langileei, eta laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gaietan parte hartzeko aukera eman.
d) Enpresaburuak kontsulta egin behar die langileei laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gaiei buruz, baldin eta ordezkaritza handieneko sindikatuetan afiliatuta badaude.

266. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer bermatu behar du enpresaburuak langileen prestakuntzari dagokionez?

a) Enpresaburuak prestakuntza teorikoa eta praktikoa bermatu behar du kontratazioa egiten den unean; langileak eskatzen badu, prestakuntza hori eman beharko dio.
b) Langileen ordezkariek eskatuz gero, enpresaburuak prestakuntza eman behar die langileei, organo horiek arduratuko baitira lan-osasuneko araudia betetzen dela zaintzeaz.
c) Enpresaburuak bermatu behar du langile bakoitzak prestakuntza egokia jasoko duela, bai kontratazioaren hasieran, bai haren eginkizunetan edo lantaldeetan aldaketak gertatzen direnean.
d) Langileak kudeaketa-karguetan trebatuko direla bermatu behar du enpresaburuak, langileen ordezkariek hala eskatuz gero. Organo horiek arduratuko dira laneko osasunari buruzko araudia betetzen dela zaintzeaz.

267. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer betebehar du enpresaburuak laneko segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentazioari dagokionez?

a) Enpresaburuak dokumentazioa prestatu behar du, eta organo judizialek eta osasun-agintariek eskuragarri izan behar dute.
b) Enpresaburuak lan-agintaritzarentzat eta osasun-agintarientzat eskuragarri izango duen dokumentazioa egin edo bete eta mantendu behar du.
c) Enpresaburuak laneko segurtasun eta osasunerako arriskuen ebaluazioa egin behar du, aldizkako kontrolak barne.
d) Enpresaburuak idatziz jakinarazi behar dizkio lan-agintaritzari lanak langileen osasunari eragindako kalteak.

268. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, amatasuna babesteari dagokionez, zer egin behar du enpresaburuak, arriskuen ebaluazioak haurdun dagoen edo bularra ematen ari den langile baten segurtasunerako edo osasunerako arriskurik erakusten badu?

a) Langileak bere zereginekin jarrai dezan ahalbidetzea, babes-neurri gehiago emanez.
b) Langilea erantzukizun gutxiagoko lanpostu batera lekualdatzea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak hala erabakitzen badu.

c) Langilearen lan-baldintzak edo -denbora egokitzea, eta, beharrezkoa bada, gaueko lana edo txandakako lana debekatzea.
d) Haurdun dagoen langilearen edo bularreko haurraren eskakizunei erantzutea; osasunaren ardura duten langileen ordezkarien aholkua jaso ahal izango du.

269. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer egin behar du Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileak laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian arau-hausteren bat detektatzen duenean?

a) Lan-ikuskatzaileak enpresaburuari eskatu ahal izango dio ikusitako akatsak konpontzeko; horretarako, akatsak zuzentzeko epe bat emango dio, eta errekerimendua prebentzio-ordezkariei jakinaraziko die.
b) Lan-ikuskatzaileak enpresaburuari eskatu ahal izango dio ikusitako akatsak zuzentzeko, eta epe bat emango dio akatsak zuzentzeko, eta errekerimendua Industria Ordezkaritzari jakinaraziko dio.
c) Laneko ikuskatzaileak zehapen ekonomiko bat baino ezin izango du ezarri, eta enpresaburuari akatsak bulego judizialaren bidez konpontzeko eskatuko dio.
d) Lan-ikuskatzaileak gertaeren txosten bakarra egin behar du, eta ez du enpresaburuaren ekintzarik eskatu behar; hala badagokio, bulego judizialak adieraziko du.

270. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer egin dezakete Gobernuak edo autonomia-erkidegoetako gobernu-organoek laneko segurtasun eta osasunaren arloko arau-hauste larrien kasuan?

a) Lan-jarduerak etetea edo lantokia ixtea erabakitzea, soldatak edo kalte-ordainak ordainduko direla bermatuz.
b) Zehapen ekonomiko bat ezartzea.
c) Erabakia lan-arloko epaitegiei eskuordetzea, zentroaren itxiera zehazteko.
d) Lan-jarduerak edo lantokiaren itxiera etetea, soldaten edo kalte-ordainen ordainketa bermatzeko betebeharra bere gain hartuta.

271. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, enpresan laneko arriskuak prebenitzeko plana:

a) Prebentzio-zerbitzuak bakarrik egindako informazio-dokumentu bat da.
b) Prebentzio-jarduera enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzeko eta prebentzio-politika ezartzeko tresna da.
c) Lan-agintaritzari zuzendutako txosten teknikoa da.
d) Lan-istripuen erregistro estatistikoa da.

272. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, Laneko Arriskuen Prebentzio Planak:

a) Enpresako zuzendaritzak onartzea, haren antolaketa-egitura osoak bere gain hartzea eta langile guztiek ezagutzea.

b) Langileen ordezkariek baino ez dute onartuko.
c) Lan-agintaritzak egitea eta enpresari jakinaraztea.
d) Erdi-mailako arduradunek soilik ezagutzea.

273. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, hauek dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana kudeatzeko eta aplikatzeko funtsezko tresnak:

a) Prebentzio-auditoretza eta langileen prestakuntza.
b) Istripuak ikertzea eta osasuna zaintzea.
c) Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
d) Lan-ikuskaritza eta negoziazio kolektiboa.

274. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, laneko arriskuen ebaluazioa da:

a) Enpresan dauden arrisku guztiak identifikatzeko eta langileei eragin diezaieketenak ezabatzeko prozedura.
b) Saihestu ezin izan diren arriskuen magnitudea kalkulatzeko prozesua, enpresaburuak prebentzio-neurriak hartu behar ote diren erabakitzeko behar den informazioa lortuta.
c) Lantokietan dauden arriskuak identifikatzeko eta kontrolatzeko metodoa, babes kolektiboko neurrien bidez.
d) Laneko arriskuak detektatzeko eta nahitaezko neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura teknikoa.

275. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, enpresaburuak honako subjektu hauekin kontsultatu beharko du arriskuak ebaluatzeko erabili beharreko prozedurari buruz:

a) Prebentzioko ordezkariak.
b) Langileen ordezkariek edo, horiek egon ezean, langileek berek.
c) Lan-agintaritza eskuduna eta langileak.
d) Kontratatutako kanpoko prebentzio-zerbitzuak.

276. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, lanpostuak berriro ebaluatu beharko dira, hasierako ebaluazioa egin ondoren, honako hauek eragina izan dezaketenean:

a) Lan-baldintzen aldaketak edo lanpostuaren baldintzekiko bereziki sentikorrak diren langileak lanean hastea.
b) Aldaketak egitea hitzarmen kolektiboan edo enpresaren antolaketan.
c) Aldaketak lan-ordutegian edo lanaldian.
d) Aldaketak langileen soldatan edo kontratu-baldintzetan.

277. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, prebentzio-jardueraren plangintza:

a) Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan aurreikusitako prebentzio-helburuak lortzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoen esleipena jasoko ditu.
b) Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jasoko ditu, bai eta proposatutako helburuak lortzeko behar diren baliabide ekonomikoen esleipena ere.
c) Prebentziorako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta eskuragarri dauden baliabide teknikoak jasoko ditu.
d) Jaurlaritzak aurreikusitako beharrezko baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak jasoko ditu.

278. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, administrazio publikoen eremuan prebentzio-jarduerak garatzeko behar diren baliabideak antolatzea:

a) Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera egingo da, salbuespenik gabe.
b) Horretarako ematen den araudi espezifikoan araututako moduan egingo da.
c) Administrazio publiko bakoitzak bakarrik zehaztuko du.
d) Langileen ordezkariekin adostuta ezarriko da.

279. 39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren arabera, administrazio publikoetan:

a) Erregelamenduaren V. kapituluan aurreikusitako auditoretzak aplikatuko dira.
b) Auditoretzak nahitaezkoak izango dira berariazko araudiak hala ezartzen duenean bakarrik.
c) Erregelamenduaren V. kapituluan jasotako auditoretzen arloko betebeharrak ez dira aplikatuko.
d) Auditoretzak lau urtean behin egingo dira.

280.- Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak ezagutzen du:

a) Administrazio-egintza adieraziak soilik.
b) Administrazio publikoen jarduera, Administrazio Zuzenbideari lotua.
c) Araudi administratiboak soilik.
d) Gobernuaren egintzak bakarrik.

281. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak honako hauek ezagutuko ditu:

a) Administrazio-organoen arteko jurisdikzio-gatazkak.
b) Diziplina militarreko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.
c) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.
d) Administrazio-jardueratik eratorritako gai penalak.



282. Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari ez dagokio:

a) Araugintza-ahalaren kontrola.
b) Administrazio-jardueraren legezkotasunaren kontrola.
c) Ordena jurisdikzional zibilaren, penalaren eta sozialaren esku utzitako gaiak.
d) Administrazioaren ondare-erantzukizuna.

283. Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan legitimazio aktiboa dute:

a) Administrazio publikoek bakarrik.
b) Eskubide edo interes legitimoa duten pertsona fisiko edo juridikoek.
c) Eskubide subjektiboen titularrek soilik.
d) Ministerio Fiskalak bakarrik.

284. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartezina da:

a) Ustezko egintzen aurka.
b) Xedapen orokorren aurka.
c) Epean eta moduan errekurritu ez diren egintza irmo eta onartutakoen aurka.
d) Administrazioaren jarduerarik ezaren aurka.

285. Administrazio-egintza adierazi baten aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epe orokorra honakoa da:

a) Hilabete bat.
b) Hiru hilabete.
c) Bi hilabete, jakinarazpenetik aurrera.
d) Sei hilabete, jakinarazpenetik aurrera.

286. Administrazioarekiko auzien prozeduran, demanda:

a) Aurreko administrazio-errekurtsoa erreproduzitzera mugatu behar da.
b) Administrazio-bidean alegatu ez diren arrazoiak oinarri har ditzake.
c) Arau-hauste formaletan soilik oinarritu daiteke.
d) Peritu-txostena aurkeztu behar da beti.

287. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan emandako epaiak:

a) Egintza deuseztatu besterik ezin du egin.
b) Egoera juridiko indibidualizatua aitortu eta hura berrezartzeko neurriak har ditzake.
c) Ezin dio Administrazioari jarduerak egitera kondenatu.
d) Ezin du kalte-ordainik ezarri.

288. Kautelazko neurriak:

a) Egintza etetea besterik ezin dute izan.
b) Prozeduraren hasieran soilik har daitezke.
c) Prozesuaren edozein unetan har daitezke, epaiaren eraginkortasuna bermatzeko.
d) Ezin dute interes publikoetan eraginik izan.

289. Prozedura Zibilaren Legea aplikatuko da:

a) Prozesu penalak, administrazioarekiko auziak, lan-arlokoak eta militarra arautzen dituzten legeetan xedapenik ez dagoenean.
b) Soilik berariaz hala ezartzen denean.
c) Soilik partikularren arteko eta justizia-auzitegien mende dauden gaiei dagokienez.
d) Auziaren objektua arau horretan jasotako gai bati buruzkoa den kasuetan.

290. Prozedura Zibilaren Legearen arabera, honako hauek izan daitezke alderdi prozesu zibiletan:

a) Pertsona juridikoak soilik merkataritza-sozietate forma dutenean.
b) Nortasun juridikorik gabeko entitateak, legeak alderdi izateko gaitasuna aitortzen direnak.
c) Pertsona fisikoak, soilik adin nagusikoak direnean.
d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

291. Prozedura Zibilaren Legearen arabera, prokuradorearen presentzia ez da beharrezkoa izango eta alderdiak bere kabuz ager daitezke:

a) Epaileak kasuaren inguruabar bereziak kontuan hartuta hala erabakitzen duenean.
b) Abokatuak entzunaldi berean hala adierazten duenean.
c) Zenbatekoaren arabera zehaztutako ahozko epaiketetan, zenbatekoa 2.000 €-tik gorakoa ez denean.
d) Abokatuarekin agertzea beharrezkoa ez den prozesuetan.

292. Prozedura Zibilaren Legearen arabera, declinatoria bidez demandatuak eta prozesuko alderdi izan daitezkeenek epaitegiaren jurisdikzio-falta salatu ahal izango dute:

a) Demandari erantzuteko epearen lehen hamar egunetan.
b) Auziari dagokion epaitegiaren aurrean edo eskuduna dela uste den epaitegiaren aurrean, eta horrek eten egingo du demanda erantzuteko epea epaitegi eskudunak
c) Epaitegiak ezin izango ditu froga-aseguramendu jarduerak ezta kautelazko neurriak ere gauzatu, atzerapen horrek demandatzaileari kalte konponezinak eragin badiezazkioke.
d) Beti bermatu beharko da kautela (fianza) declinatoria baliatzeagatik.

293. Prozedura Zibilaren Legearen arabera, jarduketa judizial guztietan epaileek, magistratuek, fiskalek, justizia-administrazioko letratuak eta gainerako funtzionarioek:

a) Gaztelania soilik erabiliko dute, Estatuko hizkuntza ofiziala.
b) Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute, baldin eta aldeetako inork ez badu aurka egiten.
c) Estatuan ofiziala ez den hizkuntza erabili ahal izango dute, prozesuko alderdi guztiak atzerritarrak badira eta ez badute ezagutzen Estatuko hizkuntza ofizialik.
d) Gaztelania ez dakiten pertsonak, edo hala badagokio hizkuntza ofiziala ez dakitenak, interpreteen bidez galdekatuko dituzte; jarduketa aktan jasoko da, baina balio juridikoa izango du soilik alderdiek berariaz adostasuna ematen badute.

294.- Prozedura Zibilaren Legearen arabera, legeak zein ebazpen mota erabili behar den zehazten ez duenean, epaia emango da:

a) Prozesua amaitzeko, lehen edo bigarren auzialdian, legean aurreikusitako ohiko izapidetzea amaitutakoan.
b) Ebazpenak prozesu-izaerako gaiak ebazten dituenean, legeak hala eskatzen duelako.
c) Errekurtsoak probidentzien aurka ebazten direnean edo demanda, kontrademanda, akzioen metaketa, froga onarpena edo transakzioen homologazio judiziala ebazten direnean.
d) Ebazpena prozesu-baldintzei, erregistro-inskripzioei eta auzi intzidentalei buruzkoa denean.

295.- Prozedura Zibilaren Legearen arabera, prozesuaren kostuak eta gastuak:

a) Beti demandatuak ordaindu beharko ditu demandatzailearen eskaera onartzen bada.
b) Beti prozedura berezi batean tramitatu beharko dira, prozesu nagusitik aparte.
c) Demandatzaileak ordaindu beharko ditu, bere eskaera onartzen ez bada.
d) Alde bakoitzak sortu ahala ordainduko ditu, Doako Laguntza Juridikoaren Legean xedatutakoa eta kostuen kondena dagoen kasuak salbu.

296.- 1. 36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, zer aurreikusten du lan-istripuek edo lanbide-gaixotasunek eragindako kalteei dagokienez?

a) Enpresaburuari bakarrik eska dakiokeela.
b) Ordena zibilean baino ezin dela erreklamatu.
c) Enpresaburuaren aurkako akzioa eta aseguratzailearen aurkako zuzeneko akzioa balia daitezkeela.
d) Ekintza Lan Ikuskaritzari dagokiola.

297. 36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, eta zigor-arloko judizio aurreko arazoei dagokienez, noiz eteten dute erabaki egokia hartzeko epea?

a) Baldin eta prozedura penal bat irekita badago, eta haren auziak kasu sozialari eragin badiezaioke.
b) Dokumentuak faltsuak direnean eta ebazpena emateko ezinbestekoa denean bakarrik.
c) Demandatzaileak eskatzen duenean bakarrik.
d) Laneko auziarekin zerikusia duen salaketa penal oro.

298. 36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, noiz ezagutzen dituzte auzialdi bakarrean justizia-auzitegi nagusietako gizarte-arloko salek gatazka kolektiboen prozesuak?

a) Haren ondorioak Espainia osora hedatzen direnean.
b) Haren ondorioek udalerri baten eremua gainditzen ez dutenean.
c) Ondorioak lan-arloko epaitegi batenak baino handiagoak direnean eta autonomia-erkidegokoa baino handiagoak ez direnean.
d) Inoiz ez, auzialdi bakarrean Auzitegi Nazionalak ezagutzen duelako.



299. 36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, zer egin dezakete sindikatuek lan-auzi batean?

a) Hala baimentzen dioten langile afiliatuen izenean eta interesean jardutea, eskubide indibidualak defendatzeko.
b) Fiskaltza ordezkatzea, letraduak hala baimentzen badio.
c) Gatazka kolektiboen prozesuetan langileen izenean esku hartzea, eta gainerakoetan, langileek hala baimentzen dutenean.
d) Eskubide indibidualak defendatzeko baimena ematen dion edozein langileren izenean jardutea, afiliatuta egon zein ez.

300. 36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, zer ezartzen du abokatuari, lan-harremanetako graduatu elkargokideari edo prokuradoreari buruz?

a) Auzialdian defentsa aukerakoa da; erregutzean, nahikoa da abokaturik eta lan-harremanetako graduaturik gabeko prokuradorea; eta kasazioan nahitaezkoa da abokatuaren defentsa.
b) Auzialdian defentsa aukerakoa da; erregutzean, nahikoa da prokuradorea, eta abokaturik eta lan-harremanetako graduaturik gabe jardun daiteke; eta kasazioan nahitaezkoa da abokatuaren defentsa.
c) Auzialdian, defentsa aukerakoa da; erregutzean, abokatu edo graduatu sozial kolegiatua eskatzen da; eta kasazioan, abokatuaren defentsa nahitaezkoa da.
d) Edozein auzialditan, pertsonak erabaki dezake profesionalarekin jarduten duen ala ez, eta prokuradorearen jarduna nahitaezkoa izango da.

301. 36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, zein prozesu daude aurretiazko adiskidetze- edo bitartekaritza-ahaleginetik salbuetsita?

a) Gizarte Segurantzari buruzko prozesuak, besteak beste.
b) Diziplinazko kaleratzeen prozesuetan bakarrik.
c) Bat ere ez, beti baita nahitaezkoa.
d) 2.000 eurotik beherako prozesuak bakarrik.

302. Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen arabera (2011), aurretiazko administrazio-bidea agortu ondoren, interesdunak zer epe du demanda formalizatzeko?

a) Hamar egun.
b) Hilabete.
c) Bi hilabete.
d) Sei hilabete.

303. Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, nork du legitimazio pasiboa lan-arloko eta Gizarte Segurantzako administrazio-egintzak aurkaratzeko prozesuan, prestazioak ematekoak izan ezik?

a) Aurkaratutako egintzaren hartzaileak.
b) Deuseztatzean interes legitimoa duen edozein pertsona.
c) Egintza eman duen administrazioa edo erakunde publikoa.

d) Demanda onartzen duen Justizia Administrazioaren letradua.

304. Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, interesdunek zer egoeratan eska dezakete kautelazko neurriak hartzea administrazio-egintza bat aurkaratzeko prozesuan?

a) Epaia eman arte itxaron beharko da.
b) Prozesuaren edozein egoeratan, aurkaratutako egintza betearazteak demandaren legezko helburua galaraz badezake.
c) Administrazio-zehapen bat aurkaratzeko prozedura bada bakarrik.
d) Prozesuaren edozein egoeratan, aurkaratutako egintza betearazteak oinarrizko eskubideren bat urra badezake.

305. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera:

a) Arlo zibilean, jurisdikzio militarrari ez dagokio gatazka armatuetan hiltzen diren Indar Armatuetako kideen testamentu-judizioak prebenitzea.
b) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiek eta epaileek, berezkoak dituzten gaiez gain, beste jurisdikzio-ordena bati esleitu ez zaizkion guztiez arduratuko dira.
c) Ordena zibileko auzitegiek eta epaileek, berezkoak dituzten gaiez gain, beste jurisdikzio-ordena bati esleitu ez zaizkion beste gai guztiez ere arduratuko dira.
d) Zigor-arloko jurisdikzioko epaileek auzi eta epaiketa kriminal guztien ardura izango dute.

306. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera:

a) Pertsona orok egikaritu ahal izango du herri-akzioa, legeak ezarritako kasuetan eta moduan.
b) Herritar orok izango du herri-akzioa baliatzeko aukera, legeak ezarritako kasu eta moduetan.
c) Espainiar nazionalitateko herritarrek herri-akzioa baliatu ahal izango dute, legeak ezarritako kasuetan eta moduan.
d) Herri-akzioa pertsona juridikoek soilik egikaritzen dute.

307. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera:

a) Eskumen-gatazka bat sortzen denean, epaileak edo auzitegiak, alderdiei eta Fiskaltzari 5 eguneko epe erkidean entzun ondoren, auto bidez erabakiko du egokia den gaia aztertzeari uko egitea edo aztertzen ari den jurisdikzio-organoari errekerimendua egitea.
b) Eskumen-gatazka bat sortzen denean, epaileak edo auzitegiak, alderdiei eta Fiskaltzari 7 eguneko epe erkidean entzun ondoren, auto bidez erabakiko du egokia den gaia aztertzeari uko egitea edo aztertzen ari den jurisdikzio-organoari errekerimendua egitea..
c) Eskumen-gatazka bat sortzen denean, epaileak edo auzitegiak, alderdiei eta Fiskaltzari 3 eguneko epe erkidean entzun ondoren, auto bidez erabakiko du egokia den gaia aztertzeari uko egitea edo aztertzen ari den jurisdikzio-organoari errekerimendua egitea..



d) Eskumen-gatazka bat sortzen denean, epaileak edo auzitegiak, alderdiei eta Fiskaltzari 10 eguneko epe erkidean entzun ondoren, auto bidez erabakiko du egokia den gaia aztertzeari uko egitea edo aztertzen ari den jurisdikzio-organoari errekerimendua egitea.o.

308. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera, Auzitegi Goreneko Kabinete Teknikoan zerbitzua emateko hautatzen diren letraduak denbora honetarako izendatuko dituzte:

a) Urtebeterako.
b) Bi urterako.
c) Hiru urterako.
d) Lau urterako.

309. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera, Auzialdiko Auzitegiko Atalek Presidentetza izango dute, baldin eta eman beharreko baldintzen artean, kasuan kasuko atalak, honako hauek betetzen baditu:

a) 8 plaza judizial edo gehiago egotea.
b) 6 plaza judizial edo gehiago dituztenak.
c) 10 plaza judizial edo gehiago egotea.
d) 5 plaza judizial edo gehiago egotea.

310. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera, Bake-epaileek eta haien ordezkoek:

a) Bi urterako izendatuko ditu dagokion Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak.
b) Bost urterako izendatuko ditu dagokion Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak.
c) Lau urterako izendatuko ditu dagokion Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak.
d) Hiru urterako izendatuko ditu dagokion Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak.

311. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera:

a) Epe prozesalak Kode Zibilean xedatutakoaren arabera zenbatuko dira.
b) Kausa guztietan, abuztuko egunak baliogabeak izango dira.
c) Ordu baliodunak dira goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte, legeak besterik xedatu ezean.
d) Justizia Ministerioak, erregelamendu bidez, egun baliogabeak gaitu ahal izango ditu jarduketa judizialen ondorioetarako, legeek aurreikusten ez dituzten kasuetan.

312. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera, funtsezko eskubide jakin baten urraketan oinarriturik jardueren deuseztasun-intzidentea planteatzeko epea:

a) 20 egunekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik hasita.
b) 10 egunekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik hasita.
c) 5 egunekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik hasita.
d) Hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik hasita.

313. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren arabera:

a) Abuztua baliogabea da jarduera judizial guztietarako, salbuespenik gabe, eta, beraz, ezin da jarduera zibilik ezarri.
b) Abuztua baliogabea da orokorrean, lege prozesalek premiazkotzat jotzen dituzten jarduketetarako izan ezik.
c) Abuztua beti da balioduna proba klinikoak kontserbatu behar direnean, osasun-jarduera oro zigor-jardueratzat hartzen baita.
d) Bost urtean behin, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak abuztua noiz den balioduna eta noiz baliogabea zehazten du.

314. Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legearen arabera, Espainiako Bioetika Batzordea:

a) Osasun Ministerioari atxikita dago.
b) Osasuneko Lurralde arteko Kontseiluari atxikita dago.
c) Justizia Ministerioari atxikita dago.
d) Gobernuko Presidentetzari atxikita dago.

315. Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legearen arabera, ikerketa-helburuekin eratzen diren Biobankuen titulartasuna:

a) Pertsona juridiko bati dagokio beti.
b) Izaera publikoa izango du beti.
c) Aldaketarik bada, agintaritza eskudunari horren berri emango zaio, hala badagokio, beste baimen bat eman dezan.
d) Aldaketarik bada, agintaritza eskudunari horren berri emango zaio, informazio-ondorioetarako.

316. Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak xedatutakoaren arabera, zenbat kide izango ditu gehienez Espainiako Bioetikako Batzordeak?

a) Hamabi.
b) Bi.
c) Hogei.
d) Hogeita hamar.

317. Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legearen arabera, Biobanku batek:

a) Zuzendari zientifiko bat eta fitxategiaren arduradun bat izango ditu, eta kanpoko bi batzorderi atxikita egongo da, bata zientifikoa eta bestea etikoa.
b) Zuzendari zientifiko bat eta fitxategiaren arduradun bat izango ditu, eta kanpoko batzorde etiko-zientifiko bati atxikita egongo da.
c) Zuzendari zientifiko bat, zuzendari nagusi bat eta fitxategiaren arduradun bat izango ditu, eta kanpoko bi batzorderi atxikita egongo da, bata zientifikoa eta bestea etikoa.

d) Zuzendari zientifiko bat eta fitxategiaren arduradun bat izango ditu, eta zentroko Ikerketarako Etika Batzordeari atxikita egongo da.

318.- Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legearen arabera, lagin biologikoak ikerketa-helburuekin ematea:

a) Doakoa izango da, emaileak ez du ordainik jasoko eta uko egingo die lagin biologiko horiekin egiten diren ikerketetatik lorturiko emaitzen gaineko izaera ekonomikoko eskubideei.
b) Doakoa izango da eta emaileak ez du ordainik jasoko, baina ez die zertan uko egin behar lagin biologiko horiekin egiten diren ikerketetatik lorturiko emaitzen gaineko izaera ekonomikoko eskubideei.
c) Doakoa izango da, emaileari dagozkiokeen ordainen kalterik gabe, eta uko egingo die lagin biologiko horiekin egiten diren ikerketetatik lorturiko emaitzen gaineko izaera ekonomikoko eskubideei.
d) Doakoa izango da, emaileari dagozkiokeen ordainen kalterik gabe, baina ez die zertan uko egin lagin biologiko horiekin egiten diren ikerketetatik lorturiko emaitzen gaineko izaera ekonomikoko eskubideei.

319.- Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legearen arabera, Ikerketako Etika Batzordeak.

a) Ez dute berariazko akreditaziorik behar, baina, hala ere, sorrera jakinarazi behar zaio administrazio-ondorioetarako, Autonomia Erkidegoko edo Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunari, kasuaren arabera,
b) Dagokien Autonomia Erkidegoko organo eskudunak akreditatuko ditu, eta Estatuaren Administrazio Orokorreko organo eskudunak egingo du akreditazioa, haren mendean dauden zentroen kasuan.
c) Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunak akreditatu beharko ditu.
d) Osasun Ministerioak akreditatu beharko ditu beti.

320.- Ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legearen arabera, aurre-enbrioiak ikerketa-asmoz soilik eratzea.

a) Baimenduta dago, baldin eta Giza Zelulak eta Ehunak Emateko eta Erabiltzeko Berme Batzordeak baimena ematen badu.
b) Baimenduta dago, baldin eta Giza Zelulak eta Ehunak Emateko eta Erabiltzeko Berme Batzordeak eta agintaritza autonomiko eskudunak baimena ematen badute.
c) Baimenduta dago, baldin eta Giza Zelulak eta Ehunak Emateko eta Erabiltzeko Berme Batzordeak, agintaritza autonomiko eskudunak eta dagokion zentroko Ikerketako Etika Batzordeak baimena ematen badute.
d) Debekatuta dago.

321.- Biomedikuntzako ikerkuntzari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak ezarritakoaren arabera, arau-hauste oso larria da:

a) Aurre-enbrioiak, enbrioiak eta fetuak ematean doakotasuna ez betetzea, Legean ezarritako moduan.



b) Jatorria giza enbrioian duten zelula eta ehunak lurralde batetik beste batera lekualdatzeko ezarritako arauak eta bermeak ez betetzea.
c) Aurre-enbrioien in vitro garapena 14 eguneko epeaz harago mantentzea, epe hori obozitoaren ernalketatik aurrera kontaturik, kriokontserbatuta eman duten denbora kontatu gabe.
d) Legeak ez ditu arau-hauste oso larriak jasotzen, arau-hauste penaltzat jotzen direlako.

322.- Biomedikuntzako ikerkuntzari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak ezarritakoaren arabera, gizakiengan prozedura inbaditzaileak egitea berekin dakarten ikerketak:

a) Pertsona bati buruzko ikerketa bat egiteko, haren adostasuna edo haren legezko ordezkariarena beharko da berariaz, espezifikoki eta idatziz.
b) Pertsona bati buruzko ikerketa bat egiteko, haren adostasuna edo haren legezko ordezkariarena beharko da berariaz, espezifikoki eta idatziz, salbu eta Ikerkuntzako Etika Batzorde batek salbuespen bat hautematen badu kasu jakin batean.
c) Pertsona bati buruzko ikerketa bat egiteko, haren adostasuna edo haren legezko ordezkariarena beharko da berariaz, espezifikoki eta idatziz, salbu eta haren osasunari onura badakarkio zuzenean.
d) Pertsona bati buruzko ikerketa bat egiteko, haren adostasuna beharko da berariaz, espezifikoki eta idatziz.

323.- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen arabera, EZ zaie aplikatuko datu pertsonalen tratamendu hauei:

a) Mondragon Unibertsitatea.
b) Euskal Herriko Unibertsitatea.
c) Arartekoa.
d) Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala-UNED.

324.- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen arabera:

a) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren ordezkaritza bere zerbitzu juridikoen esku egongo da.
b) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak, Agintaritza bera sortzeko legeak ezartzen duen sailaren bidez izando gitu harremanak Eusko Jaurlaritzarekin.
c) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak urtero onartuko du dagokion aurrekontuaren aurreproiektua.
d) Datuak Babesteko Euskal Agintaritza Lehendakaritzaren menpe dago.

325.- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 9. artikuluak <u>EZ</u> ditu datu-kategoria berezitzat hartzen tartean denari honako hauek identifikatzeko aukera ematen diotenak:

a) Bere ideologia eta afiliazio sindikala.
b) Bere erlijioa eta sexu-orientazioa.

c) Bere sinesmenak edo arraza- edo etnia-jatorria.
d) Bere prestakuntza akademikoa.

326.- Bideozaintza helburu duten datu tratamenduei buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Soilik pertsona fisikoek egin ahalko dute irudien tratamendua kamera edo bideokamera sistemen bidez, pertsonen eta ondasunen segurtasuna gordetzeko, bai eta haien instalazioena ere.
b) Edonola ere, datuak jaso eta gehienez hilabeteko epean ezabatuko dira.
c) Datuak hilabeteko epean ezabatuko dira, eskuratzen direnetik, salbu eta pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasunaren kontrako egintzak egin direla egiaztatzeko gorde behar direnean.
d) Datuak, pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasunaren aurka egiten duten egintzak gauzatu direla egiaztatzeko, datuok hartu eta hilabeteko epea igaro ondoren gorde behar badira, agintaritza eskudunaren esku jarri beharko dira, gehienez ere berrogeita zortzi orduko epean, grabazioa gertatu dela jakiten denetik kontatzen hasita.

327.- Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaria izendatzeko prozedurari buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena??

a) Gobernuak izendatuko du, Justizia Ministerioaren proposamenez, eta bi laguntzaile ondoko izango ditu.
b) Izendapena Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordeak berretsi beharko du, eta kideen gehiengo osoa lortu beharko da lehen bozketan.
c) Izendapena Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordeak berretsi beharko du, eta kideen botoen hiru bosten lortu beharko dira lehen bozketan.
d) Parlamentuak izendatuko du, lege baten bidez.

328.- Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, datu pertsonalak eragindako pertsonarengandik jasotzen direnean, tratamenduaren arduradunak 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritako informazio-betebeharra bete dezake, eragindako pertsonari utxienez oinarrizko informazio hau emanez:

a) Tratamenduaren arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren identitatea; tratamenduaren helburua; eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15. artikulutik 22. artikulura ezarritako eskubideak erabiltzeko aukera.
b) Tratamenduaren arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren identitatea; tratamenduaren helburua; eta tratatu beharreko datu-kategoriak.
c) Tratamenduaren arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren identitatea; tratamenduaren helburua; 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15. artikulutik 22. artikulura ezarritako eskubideak erabiltzeko aukera; eta datuen iturria.
d) Tratamenduaren arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren identitatea; tratamenduaren helburua; eta datuen iturria.

329.- Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

a) Datuak Babesteko Espainiako Agentzia estatu-mailako administrazio-agintaritza independentea da, nortasun juridikoa eta gaitasun publiko erabatekoa ditu, eta erabat independente dihardu bere eginkizunetan.
b) Datuak Babesteko Espainiako Agentzia 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera arautzen da.
c) Gobernuak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Estatutua onartuko du.
d) Gobernuak izendatuko ditu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren presidentea eta haren ondokoa, Justizia Ministerioaren proposamenez, gaitasun profesional aitortua duten pertsonen artean, bereziki datuen babesarekin loturiko gaitasuna.

330.- Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera, arau-hauste hauetatik zein ez da oso astuna?

a) 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluko printzipioak eta bermeak urratzen dituzten datu pertsonalen tratamenduak.
b) Adingabe baten datu pertsonalen tratamenduak egitea, haren adostasunik gabe –horretarako gaitasuna badu–, edo adingabearen gaineko guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularraren adostasunik gabe, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 8. artikuluan ezarri bezala.
c) Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 27. artikuluan baimendutako kasuetatik kanpo dauden arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datu pertsonalen tratamenduak.
d) Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritako konfidentzialtasun-betebeharra urratzea.

331.- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, adingabe baten datu pertsonalen tratamendua haren adostasunean baino ezingo da oinarritu:

a) 16 urtetik gorakoa denean.
b) 14 urtetik gorakoa denean.
c) Bere heldutasunak hala ahalbidetzen duenean.
d) 12 urtetik gorakoakoa denean.

332.- . Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzkoa), Administrazioari edozein pertsonak eskatutako informazioak datu pertsonalak baldin baditu, hala nola jatorri arrazialari, osasunari edo sexu-bizitzari buruzkoak, datu genetikoak edo biometrikoak barne hartzen baditu edo arau-hauste penal edo administratiboen inguruko datuak baditu, betiere arau-hauste horiek ez badute zigortuaren aurkako ohartarazpen publikorik ekarri:

a) Sarbidea soilik baimendu ahal izango da kaltetutako pertsonaren berariazko baimena badago edo arau-maila erregelamendukoa duen arau batek babesten badu.
b) Sarbidea soilik baimendu ahal izango da Administrazioaren berariazko baimena badago edo lege-mailako arau batek babesten badu.



c) Sarbidea soilik baimendu ahal izango da kaltetutako pertsonaren isilbidezko baimena badago edo arau-maila erregelamendukoa duen arau batek babesten badu.
d) Sarbidea soilik baimendu ahal izango da kaltetutako pertsonaren berariazko baimena badago edo lege-mailako arau batek babesten badu.

333. Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzkoa):

a) Informazio-eskatzailearen motibazio eza, berez, eskaera ukatzeko arrazoia izango da.
b) Eskatzaileak derrigorrez arrazoitu behar du informazioa eskuratzeko eskaera.
c) Eskatzaileak ez du derrigorrez arrazoitu behar informazioa eskuratzeko eskaera.
d) Eskatzaileak emandako arrazoiek ezin izango dira kontuan hartu ebazpena ematean.

334. 19/2013 Legearen xedea honako hau da:

a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea soilik arautzea.
b) Administrazio publikoen antolaketa arautzea.
c) Jarduera publikoaren gardentasuna handitu eta indartzea, informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea, eta gobernu onaren betebeharrak ezartzea.
d) Goi-kargudunen zehapen-araubidea soilik ezartzea.

335. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea:

a) Espainiako herritarrek bakarrik baliatu dezakete.
b) Kasu guztietan arrazoitu behar da.
c) Pertsona guztiei dagokie.
d) Amaitutako administrazio-prozeduretan bakarrik baliatu daiteke.

336. Informazio publikoa honela ulertzen da:

a) Amaitutako administrazio-espedienteetan jasotakoa soilik.
b) Organo judizialek egindako dokumentuak.
c) Subjektu obligatuen esku dauden eduki edo dokumentuak, beren eginkizunen esparruan sortuak edo eskuratuak.
d) Gardentasun Atarian argitaratutako informazioa soilik.

337. Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, baldin eta honako hauetarako kaltea eragiten badu:

a) Edozein interes pribaturi.
b) Segurtasun nazionalari, besteak beste.
c) Administrazioaren barne-antolaketari, bestelako justifikaziorik gabe.
d) Zerbitzu publikoen ohiko funtzionamenduari.

338. Informazio publikoa eskuratzeko eskaera bati erantzuteko gehieneko epea honako hau da:

a) Hamabost egun.
b) Bi hilabete, luzatu ezinak.
c) Hilabete bat, kasu jakin batzuetan beste hilabete batez luzagarria.
d) Hiru hilabete, kasu guztietan.

339.- Desgaitasuna duten pertsonei beren jarduera juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriei buruzko Kode Zibilaren araudiaren arabera:

a) Haien helburua izango da beren nortasuna erabat garatzea eta juridikoki garatzea, berdintasun-baldintzetan.
b) Eskatu ez duten adin nagusiko pertsonei bakarrik emango zaizkie.
c) Desgaitasuna duten pertsonei gaitasun juridikoa noizbehinka bakarrik emateko xedea dutenak
d) Ezin izango dira premia- eta proportzionaltasun-printzipioetara egokitu

340.-. Kode Zibilean aurreikusitako gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak honako hauek izango dira:

a) Ordezkariaren eta ordezkatuaren artean sinatutako kontratu-harreman batetik eratorritako babesa ematea. Harreman horretan, bi subjektuen arteko harremanetarako betebehar-eremu juridikoa zehazten da.
b) Desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzea beharrezkoa den eremuetan
c) Desgaitasuna duen pertsonari laguntza ematea, eta horrekin batera, une oro pertsona horren borondatea errespetatzen dela bermatzeko beharrezko babes-neurriak ezarri beharko dira.
d) Laguntza-neurria betetzen duenak aukera izan dezake laguntza behar duen pertsonaren ondasunak kostu bidez eskuratzeko.

341.- Adingabe bat, guraso-ahala edo tutoretzapean dagoena, adin-nagusitasunera iritsi ondoren bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar izan dezakeela arrazoiz aurreikusten denean, adin-nagusitasuna baino aurreko bi urteetan:

a) Administrazio-agintaritza eskudunak erabaki ahal izango du, adingabearen edo gurasoen eskariz, dagokion laguntza-neurria hartzea bidezkoa den ala ez.
b) Agintaritza judizialak erabaki ahal izango du, adingabearen, gurasoen, tutorearen edo Fiskaltzaren eskariz, dagokion laguntza-neurria hartzea bidezkoa den ala ez
c) Gurasoek bakarrik eskatu ahal izango diote administrazio eskudunari dagokion laguntza-neurria hartzea.
d) Agintaritza judizialak ofizioz hartu beharko du dagokion laguntza-neurria.

342. Egitatezko zaintza bukatzen da:

a) Laguntza jasotzen duen pertsonak laguntza beste modu batean antolatzea eskatzen duenean

b) Administrazio-agintaritzak, Fiskaltzak eskatuta, hori komenigarritzat jotzen duenean.
c) Zaintzailea konkurtso-prozedura batean ezgaitua izan denean.
d) Laguntza jasotzen duen pertsona desgaitua izan denean konkurtso-prozedura batean.

343. Kuratela:

a) Agintaritza judizialak eratutako laguntza-neurria da, ebazpen arrazoitu bidez, desgaitasuna duen pertsonarentzat beste laguntza-neurri nahikorik ez dagoenean
b) Laguntza-neurri informal bat da, borondatezko edo judizialeko neurriak eraginkortasunez aplikatzen ez direnean existitu daitekeena.
c) Laguntza-neurri formal bat da, laguntza-beharra noizbehinkakoa denean ezarriko dena, nahiz eta errepikakorra izan.
d) Administrazioak hartzen duen neurria da, desgaitasuna duen pertsona bat babestu nahi denean.

344. Autokuratela:

a) Gertatzen da adin nagusiko edo emantzipatutako adingabe batek, bere gaitasuna egikaritzea zaildu dezaketen egoerak aurreikusita, administrazio eskudunari aldez aurretik kuradorearen eginkizuna beteko duen pertsona bat izendatzeko proposamena egiten dionean.
b) Gerta daiteke adin nagusiko edo emantzipatutako adingabe batek, bere gaitasuna egikaritzea zaildu dezaketen egoerak aurreikusita, eskritura publikoan kuradorearen eginkizuna beteko duen pertsona baten izendapena proposatzen duenean
c) Gertatzen da adin nagusiko edo emantzipatutako adingabe batek, bere gaitasuna egikaritzea zaildu dezaketen egoerak aurreikusita, agintaritza judizial eskudunari aldez aurretik kuradorearen eginkizuna beteko duen pertsona bat izendatzeko proposamena egiten dionean.
d) Gertatzen da adin nagusiko edo emantzipatutako adingabeak bere burua kuradore izendatzen duenean.

345.- Ezin izango dira kuradore izan:

a) Fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako pertsona juridikoak.
b) Aurretik jada kuradore izan direnak.
c) Ebazpen judizial bidez guraso-ahala edo zaintza- eta babes-eskubideak osorik edo zati batean erabiltzetik kenduta edo etenda dituztenak
d) Ohorezkotasun-baldintza betetzen ez duten adin nagusiko pertsonak.

346.-.Kuratela amaitzen da:

a) Laguntza-neurriak dituen pertsonaren heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik
b) Administrazio-ebazpen bidez, laguntza-neurri hori beharrezkoa ez denean.
c) Laguntza-neurriak dituen pertsonaren beraren borondatez.
d) Laguntza-neurria ematen duen pertsonaren heriotza edo heriotza-deklarazioa

347. Desgaitasuna duten pertsonen defendatzaile judizialaren izendapena gertatzen da:

a) Administrazio-agintaritzak beharrezkotzat jotzen duenean.
b) Edozein arrazoirengatik laguntza eman behar duenak hori egin ezin duenean, kausa hori desagertu edo beste pertsona bat izendatu arte
c) Desgaitasuna duen pertsonaren eta kuradorea izendatu behar duen pertsonaren artean interes-gatazka dagoenean.
d) Laguntza pertsona bati baino gehiagori esleitu zaienean.

348. Atzerriko jurisdikzio borondatezkoaren arloko behin betiko ebazpenak, organo judizial batek emanak direnean, Espainiako erregistro publikoetan inskribatu ahal izango dira:

a) Espainian exequatur-prozedura edo intzidentziazko aitorpen-prozedura gainditu ondoren
b) Fiskaltzak hala erabakitzen duenean.
c) Espedientea inskripzioa egin baino bi urte lehenago hasi denean.
d) Espainiako administrazio-agintaritza eskudunak hala erabakitzen duenean.

349.- Atzerriko agintariek erabakitako jurisdikzio borondatezko egintza irmoek:

a) Ondorioak sortuko dituzte dagokion Espainiako erregistro publikoan inskribatu eta sei hilabetera.
b) Ondorioak sortuko dituzte eta Espainiako erregistro publikoetara iritsiko dira, indarreko legerian xedatutakoaren arabera aitorpena lortu ondoren
c) Ondorioak sortuko dituzte soilik Espainiako organo judizial eskudunak aitortu dituenean.
d) Administrazio-agintaritza eskudunak aitortzen dituenean bakarrik izango dituzte ondorioak.

350.- Atzerriko agintariek erabakitako jurisdikzio borondatezko egintzen Espainiako aitorpena ukatu egingo da:

a) Egintzak Espainiako ordenamendu juridikoan aurreikusi gabeko ondorioak sortzen dituenean.
b) Egintza Europar Batasuneko kide ez den estatu batek erabaki duenean.
c) Egintza agintaritza atzerritar nabarmenki eskumengabe batek erabaki duenean
d) Atzerriko agintaritzak erabakitako egintza ez denean notario edo fede-emaile publikoaren aurrean sinatu

351. Jurisdikzio borondatezkoaren espedienteak honela hasiko dira:

a) Ofizioz, Fiskaltzaren eskariz edo legitimazioa duen pertsona batek aurkeztutako eskabidearen bidez; eskabidean eskatzailearen identifikazio-datuak eta inguruabarrak adierazi beharko dira
b) Legitimazioa duen pertsonak hala eskatzen duenean bakarrik.
c) Fiskaltzak eta legitimatutako pertsonak eskatzen dutenean bakarrik.
d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

352. Eskabidea onartu ondoren, jurisdikzio borondatezko espedientean Justizia Administrazioko letraduak:

a) Agerraldia deituko du soilik epaileak edo Justizia Administrazioko letraduak espedientea hobeto ebazteko beharrezkotzat jotzen duenean.
b) Agerraldia deituko du soilik frogak epailearen edo Justizia Administrazioko letraduaren aurrean egin behar direnean.
c) Agerraldira deituko ditu espedientean parte hartu behar duten pertsonak, eskatzailea ez diren interesdunak entzunak izan behar direnean
d) Agerraldi baterako zitazioa egingo die interesdunei, eta ezin izango diote aurka egin..

353. Jurisdikzio borondatezkoaren espedientea honela ebatziko da:

a) Epaia emanez, agerraldia amaitu eta bost eguneko epean.
b) Interesdunen alegazioen, frogen edo agerraldiaren ondorioz ezagututako edozein egitateren arabera, nahiz eta egitate horiek eskatzaileak edo gainerako interesdunek alegatu ez izan
c) Agerraldian ezagututako egitateetan oinarrituta, baldin eta eskatzaileak berak alegatu baditu.
d) Fiskaltzak.

354. Desgaitasuna duen pertsona bati izaera egonkorreko laguntza-neurri judizialen bat ezartzea:

a) Dagokion espedientearen bidez sustatu ahal izango dute Fiskaltzak, desgaitasuna duen pertsonak berak, haren ezkontideak edo antzeko egitate-egoeran dagoen pertsonak, bai eta haren ondorengoek, aurrekoek edo anai-arrebek ere
b) Fiskaltzak sustatu ahal izango du, baina inoiz ez desgaitasuna duen pertsonak berak; azken horrek ezin izango du bere defentsan eta ordezkaritzan jardun.
c) Justizia Administrazioko letraduak sustatu ahal izango du, desgaitasuna duen pertsona neurri hori sustatzeko gai ez dela ohartzen denean eta Fiskaltzak beharrezkotzat jotzen ez duenean.
d) Epaileak laguntza-neurriak hartzea eskatzen duen egoera batean erabakigarriak izan daitezkeen egitateak ezagutzen dituen edozein pertsonak sustatu ahal izango du.

355. Tutoretza, kuratela eta legezko zaintzari buruzko espedienteen ezagutzarako:

a) Adingabearen edo, hala badagokio, desgaitasuna duen pertsonaren helbide edo bizilekuko administrazio-agintaritza izango da eskuduna.
b) Adingabearen edo, hala badagokio, desgaitasuna duen pertsonaren helbide edo bizilekuko lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna
c) Adingabearen edo, hala badagokio, desgaitasuna duen pertsonaren administrazioarekiko auzien epaitegia izango da eskuduna.
d) Desgaitasuna duen pertsonak ezin izango du bere defentsa eta ordezkaritzarekin jardun.

356. Tutoretza-karguaren edo kuratelaren egikaritzari uko egitea:

a) Kode Zibilean aurreikusitako arrazoietakoren bat gertatzen denean alegatu ahal izango da
b) Ofizioz erabaki ahal izango da, Fiskaltzak, tutoretzapeko pertsonak, kuratelapeko pertsonak edo beste interesdun batek eskatuta.
c) Behin baliatuta, automatikoki ordezko defendatzaile baten izendapena ekarriko du.
d) Kargu hori ematen den hasierako unean bakarrik alega daiteke.

357. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, honako prestazio hauetatik zein ez da jotzen gizarte zerbitzuen euskal sistemaren berezko prestazio teknikotzat?

a) Arreta soziojuridikoa.
b) Prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio indibidualak, berreskuratu ezin diren laguntza teknikoak eskuratzeko edo ohiko bizikidetza-ingurunean egokitzapenak egiteko.
c) Arreta pertsonala.
d) Diagnostikoa.

358. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, nori dagokio lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak ematea?

a) Kasu guztietan, udaleko gizarte-zerbitzuei.
b) Foru-aldundietako gizarte-zerbitzuei.
c) Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuei.
d) Udaleko gizarte-zerbitzuei, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzari baitagokio.

359. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera, ekimen pribatuak gizarte zerbitzuen euskal sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoko zerbitzuak ematen parte hartzea honako formula hauen bidez antolatu ahal izango da:

a) Zuzeneko kudeaketa.
b) Zeharkako kudeaketa, administrazio publikoen kontratazio-araudiaren esparruan.
c) Hitzarmenak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

360. 12/2008 Legeak ezarritakoaren arabera, gizarte zerbitzuen euskal sistemako zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titularrak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan legezko eta benetako bizilekua duten pertsonez gain, erroldatuta egon direla eta benetako bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan izan dutela egiaztatzen duten pertsonak:

a) Sistema horretan sartzeko eskaera egin aurreko 3 hilabete jarraituetan.
b) Sistema horretan sartzeko eskaera egin aurreko 6 hilabete jarraituetan.
c) Sistema horretan sartzeko eskaera egin aurreko 12 hilabete jarraituetan.
d) Sistema horretan sartzeko eskaera egin aurreko 9 hilabete jarraituetan.

361. 12/2008 Legeak ezarritakoaren arabera, gizarte zerbitzuen euskal sistemak honako prestazio mota hauek izango ditu gutxienez:

a) Prestazio teknikoak eta prestazio ekonomikoak.
b) Prestazio ekonomikoak eta prestazio teknologikoak.
c) Prestazio ekonomikoak.
d) Prestazio teknikoak, prestazio ekonomikoak eta prestazio teknologikoak.

362. 12/2008 Legearen arabera, gizarte-zerbitzuen mapa(k):

a) Sistemaren zehapen-araubidea ezartzea du helburu, arau-hausteak tipifikatuz eta aplikatu beharreko zehapenak zehaztuz.
b) Gizarte-zerbitzuak lurraldeka antolatzen dituen eta sistemaren lurralde-egitura definitzen duen plangintza-tresna da.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen finantzaketa bakarrik arautzen du.
d) Foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumenak bakarrik zehazten ditu.

363. 12/2008 Legearen 19. artikuluko esku hartzeko oinarrizko prozeduraren esparruan, nork hartzen du bere gain hasiera batean kasuaren koordinazioaren erantzukizuna?

a) Bigarren mailako arretako gizarte-hezitzaile batek.
b) Dagokion Foru Aldundiko teknikariak.
c) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langile batek.
d) Esleitutako egoitza-zentroko zuzendariak.

364. 12/2008 Legearen arabera, erabiltzaileek zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikoa (koordainketa):

a) Azken bi urteetan erabiltzaileak izandako diru-sarreren arabera bakarrik zehaztuko da.
b) Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoaren arabera ezarriko da, progresibotasun-irizpideetan oinarrituta.
c) Ohiko etxebizitza baliabide ekonomikoen zenbaketatik kanpo geratuko da beti.
d) Modu uniformean finkatuko da, banakako egoera ekonomikoa kontuan hartu gabe.

365. Arau-hausteei dagokienez, 12/2008 Legean, zein jokabide dago oso larritzat tipifikatuta?

a) Erabiltzaileen erregistro eguneraturik ez izatea.
b) Erabiltzaileei immobilizazio fisiko edo farmakologikoa egitea medikuaren agindurik gabe.
c) Langileen plantillan eginiko aldaketak ez jakinaraztea.
d) Zentro bat ixtea aldez aurreko baimenik gabe.

366. Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeari, abenduaren 14koa, jarraiki, administrazio-arau hausteagatik soilik hauen erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoak zigortu ahalko dira, egiletzat hartuta:

a) Arau-haustea pertsonalki egin dutenak.
b) Arau-haustea gauzatzeko ezinbestekoa izan den ekintza edo ez-egite baten bidez ara- haustearen exekuzioan laguntzen dutenak.
c) Arau-haustea nahita eta aurrez pentsatuta egin dutenak.
d) Aurreko hiru erantzunetatik bat ere ez da benetan zuzena.

367. Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Norberaren Autonomia Sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arretari buruzkoak:

a) Helburutzat du norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko herritarren eskubide subjektiboaren egikaritzean berdintasuna bermatuko duten oinarrizko baldintzak arautzea
b) Familien eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arteko harremana arautzen du.
c) Mendetasun-egoeran dauden pertsonen eta haien bizi-beharrak asetzeko artatuko dituzten erakundeen arteko harremana du ardatz.
d) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta aseguru-konpainien arteko harremana arautzen du, aseguru-estaldura egokiaren bidez beharrak beteko baitituzte..

368. Abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, Norberaren Autonomia Sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arretari buruzkoaren arabera, mendetasuntzat jotzen da:

a) Modu autonomo eta independentean bizitzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen egoera.
b) Adinaren, gaixotasunaren edo desgaitasunaren ondoriozko arrazoiengatik, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza garrantzitsuak behar dituzten pertsonen egoera iraunkorra
c) Adinaren, gaixotasunaren edo desgaitasunaren ondorioz une jakin batean beste pertsona batzuen arreta behar duten pertsonek pairatzen duten egoera.
d) Desgaitasun intelektuala edo mentala duten pertsonen egoera, erkidegoan autonomia pertsonalaren maila egokia izan dezaten.

369. Abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako eskubideen titular dira:

a) Mendetasun-egoeran dauden eta Espainiako lurraldean bost urtez bizi izan diren pertsonak
b) Mendetasun-egoeran dauden pertsonak, baldin eta egoera hori iraunkorra bada eta azken bost urteetan mantendu bada.
c) Mendetasun iraunkor edo aldi baterako egoeran dauden eta Espainiako lurraldean bost urtez bizi izan diren pertsonak.
d) Mendekotasun-egoeran daudenak eta Espainiako nazionalitatea dutenak, nahiz eta bizilekua Espainiako lurraldean ez izan.

370. Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta Emateko Sistemaren esparruan, autonomia-erkidegoei dagokie:

a) Norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko zerbitzuak planifikatzea, koordinatzea eta zuzentzea beren lurralde-eremuan
b) Arauaren esparruan emandako zerbitzuen babes-intentsitatea zehazteko irizpideak ezartzea.
c) Laguntza ekonomikoen baldintzak eta zenbatekoa erabakitzea.
d) Mendekotasun-graduak zehazteko baremoa adostea, balorazio-prozeduraren oinarrizko irizpideak eta balorazio-organoen ezaugarriak kontuan hartuta..

371. Mendetasunari arreta emateko prestazioek:

a) Ezin izango dute izaera ekonomikoko prestaziorik izan.
b) Mendetasun-egoeran dauden pertsonei bizitza autonomoa ahalbidetu beharko diete, eta tratu duina bermatu beren bizitza pertsonal, familiar eta sozialeko esparru guztietan
c) Agintari judizial eskudunak bakarrik eman ahal izango ditu, dagokion prozesu judizialean pertsonak prestazio horiek jasotzeko beharrezko baldintzak betetzen dituela frogatu ondoren.
d) Zentro eta zerbitzu publikoen bidez bakarrik eman ahal izango dira, eta ikastetxe pribatuek eta itunduek ezin izango dituzte eman, nahiz eta behar bezala egiaztatuta egon.

372. Norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko gizarte-zerbitzuek:

a) Besteak beste, mendetasun-egoerak prebenitzeko zerbitzuak, telelaguntza-zerbitzua, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eguneko eta gaueko zentro-zerbitzuak eta abar barne hartzen dituzte
b) Ez dituzte barne hartzen arreta pertsonaleko zerbitzuak ezta egoitza-arretako zerbitzuak ere.
c) Soilik emango dira mendetasun-egoeran dagoen pertsonak bere kabuz ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duenean.
d) Mendekoaren etxean eman beharko dira beti..

373. Mendetasun-egoera:

a) Honako gradu hauetan sailkatzen da: mendetasun moderatua, mendetasun larria eta mendetasun handia
b) Soilik gertatzen da pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko egunean hainbat aldiz laguntza behar duenean eta beste pertsona baten etengabeko eta ezinbesteko laguntza behar duenean.
c) Ez da gertatzen pertsonak bere autonomia pertsonalerako aldizkako edo mugatutako laguntza-beharrak dituenean.
d) Estatuko administrazio orokorreko kasuan kasuko balorazio-organoek zehaztuko dute, zeinek mendetasun-mailari buruzko irizpena emango baitute.

374. Mendetasun-egoeraren aitortza:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazioak emandako ebazpen bidez egingo da, eta lurralde horretan bakarrik izango du balioa.
b) Eskatzailearen bizilekuari dagokion autonomia-erkidegoko administrazioak emandako ebazpen bidez egingo da, eta Estatu osoko lurraldean izango du balioa
c) Estatuko Administrazioak emandako ebazpen bidez egingo da.
d) Estatuko administrazio orokorrak emandako ebazpenaren bidez emango da, eta mendekoa bizi den autonomia-erkidegoan izango du balioa.

375. Mendetasun-gradua:

a) Interesdunak, haren ordezkariek edo administrazio publiko eskudunek ofizioz eskatuta berrikusi ahal izango da
b) Ezingo da berrikusi, egoera atzeraezinetan bakarrik aitortzen dela ulertzen baita.
c) Soilik berrikusi ahal izango da interesdunak hala eskatzen duenean, mendetasun-egoeran hobekuntza edo okertzea izan duelako.
d) Mendetasun-egoeran dagoenak bere egoera aldatu dela ikusten duenean eta berrikuspen hori dagokion instantzia judizialera joaten denean soilik berrikusi ahal izango da.

376. Kode Zibilaren arabera, guraso-ahalak:

a) Beti bi gurasoek batera egikaritu behar dute.
b) Emantzipatu gabeko seme-alabak zaintzea, haiek ordezkatzea, haien ondasunak administratzea eta haien bizilekua erabakitzea barne hartzen du
c) Gurasoetako batek egikaritu beharko du besteak horretarako baliabide ekonomiko nahikorik ez duenean.
d) Guraso bakar batek egikaritu ahal izango du, salbu eta bestea berariaz aurka agertzen bada..

377.- Kode Zibilaren arabera, emantzipatu gabeko adingabeko seme-alabek:

a) Harremanak izateko eskubidea dute beren gurasoekin, nahiz eta haiek guraso-ahala ez egikaritu

b) Ez dute beren gurasoekin harremanak izateko eskubiderik, baldin eta gurasoek guraso-ahala egikaritzen ez badute.
c) Beren gurasoekin harremanak izateko eskubidea izango dute soilik dagokion ebazpen judizialak hala xedatzen duenean.
d) Ez dute gurasoekin harremanak izateko eskubiderik, horiek askatasunik gabe badaude espetxe batean.

378.- Kode Zibilaren arabera, gurasoek:

a) Seme-alaben ondasunak beren ondasunen arduraz eta diligentzia berberaz administratuko dituzte
b) Seme-alaben ondasunen jabe izango dira haiek adin-nagusitasunera iritsi edo emantzipatu arte.
c) Seme-alaben titularitateko eskubideei uko egin ahal izango diete, bai eta haien ondasun higiezinak edo merkataritza-establezimenduak besterendu edo kargatu ere.
d) Dohainik eskuratutako ondasunak administratu ahal izango dituzte, xedatzaileak esanbidez hala agindu duenean..

379.- Kode Zibilaren arabera, adingabe bat babesgabetasun-egoeran dagoenean:

a) Fiskaltzak haren zaintzarako beharrezko babes-neurriak hartu beharko ditu.
b) Eskumena duen erakunde publikoak haren zaintzarako beharrezko babes-neurriak hartu beharko ditu (KZren 172.1 art.).
c) Gurasoek beti mantenduko dute guraso-ahala beren seme-alaben gainean, nahiz eta erakunde publiko eskudunak haien zaintzarako babes-neurriak hartu.
d) Gurasoek eten egingo dute adingabearen gaineko guraso-ahala, herri-erakundeak adingabearen zaintzarako beharrezkoak diren babes-neurriak hartzen dituenean..

380.- Gurasoek, behar bezala egiaztatutako inguruabar larri eta iragankorrengatik, adingabea zaindu ezin dutenean, Kode Zibilaren arabera:

a) Eskatu ahal izango diote erakunde publiko eskudunari haren zaintza bere gain har dezala bi urtetik gorakoa izango ez den denboraldi baterako, salbu eta adingabearen interes gorenak luzapena gomendatzen badu
b) Erakunde publiko eskudunari eskatu beharko diote adingabearen adopzio-prozesua has dezala.
c) Adingabea familia-harrerako zentro batera entregatu beharko dute, eta automatikoki galduko dute haren gaineko guraso-ahala.
d) Guraso-ahala behin betiko galduko dute, erakunde publiko eskudunari aldi baterako zaintza bere gain hartzeko eskatzen badiote..

381.- Kode Zibilaren arabera, familia-harrerak honako modalitate hauek izan ditzake:

a) Premiazko familia-harrera, aldi baterako familia-harrera edo familia-harrera iraunkorra
b) Ebazpen judizial bidezko familia-harrera eta administrazio-ebazpen bidezko familia-harrera, adingabea atzerritarra edo nazionala den kontuan hartuta.
c) Adingabeak onartutako edo onartu gabeko familia-harrera.

d) Familia-harrera judiziala edo administratiboa, erabakia auzialdi judizial batean hartzen den edo administrazio-agintaritza batek hartzen duen kontuan hartuta, hurrenez hurren..

382.- Adopzioak, Kode Zibilaren arabera:

a) Adoptatzaileak 25 urtetik gorakoa izatea eskatzen du
b) Adoptatzailearen eta adoptatuaren artean gutxienez 5 urteko adin-aldea egotea eskatzen du.
c) Administrazio-ebazpen irmo bidez eratzen da.
d) Babesgabetasun-egoeran dagoen edozein adingaberen gainean egin ahal izango da, adoptatzailearekin duen odol-ahaidetasun-maila kontuan hartu gabe.

383.- Adopzio-espedientea hasteko, Kode Zibilaren arabera:

a) Beharrezkoa izango da adoptatzaile izendatzen dituen ebazpen judiziala.
b) Beharrezkoa izango da erakunde publikoak aldez aurretik adoptatzailearen edo adoptatzaileen aldeko proposamena egitea, eta haiek guraso-ahala egikaritzeko egoki deklaratuak izatea
c) Ez da beharrezkoa izango guraso-ahala egikaritzeko egokitasun-deklarazioa, adoptatzaileek seme-alaba biologikoak dituztenean.
d) Adopzio-hartzailearen edo adoptatzaileen aldeko egokitasun-adierazpena beharrezkoa izango da, bai erakunde publikoaren proposamenaren aurretik eman bada, bai proposamenaren ondoren eskuratu bada.

384.- Adopzioak, Kode Zibilaren arabera:

a) Adoptatuaren eta haren jatorrizko familiaren arteko lotura juridikoak azkentzea eragiten du
b) Jatorrizko familiako kideekin harreman oro behin betiko galtzea eragiten du.
c) Atzeraezinak diren ondorio juridikoak sortzen ditu, ezin izango baita inoiz haren azkentzea erabaki.
d) Behin-behineko ondorio juridikoak, administrazio-agintaritzak ezin izango baitu edozein unetan ezeztatu, hartutakoak hala jakinarazten badio.

.

385.- Kode Zibilaren arabera, tutoretzapean geratzen dira:

a) Babesgabetasun-egoeran dauden emantzipatu gabeko adingabeak eta abandonu-egoeran dauden adingabeak.
b) Babesgabetasun-egoeran dauden emantzipatu gabeko adingabeak eta guraso-ahalari lotuta ez dauden emantzipatu gabeko adingabeak
c) Abandonu-egoeran dauden emantzipatu gabeko adingabeak.
d) Babesgabetasun-egoeran dauden emantzipatu gabeko adingabeak



386.- Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren arabera:

a) Adingabe orok du bere interes gorena baloratua eta lehentasunezkotzat hartua izateko eskubidea, berari dagozkion ekintza eta erabaki guztietan
b) Adingabe orok du bere interes gorena lehentasunezkotzat hartua izateko eskubidea eremu publikoan, baina ez pribatuan.
c) Espainiako lurraldean dauden eta Espainiako nazionalitatea duten 18 urtetik beherakoak daude haren aplikazio-eremuan.
d) 18 urtetik beherako guztiek behar bezala babestuta egoteko eskubidea dute, salbu eta aldez aurretik askatasunaz gabetzeko zigorra ekarri dion delitu-jardueraren bat egin badute.

387. Edozein jurisdikzio-arlotako ebazpen oro, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera, honela hartu beharko da:

a) Adingabeak gaiari buruz adierazitako iritziaren arabera.
b) Fiskaltzak adierazitako iritziaren arabera.
c) Prozesuaren berme egokiak errespetatuz, bereziki adingabeak indarreko araudiaren arabera prozesuan parte hartzeko duen eskubidea
d) Prozesuan profesional kualifikatuek edo adituek esku hartu beharrik gabe..

388.- Adingabeek, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Fiskaltzari dagozkion kautela-neurriak eskatu ahal izango dizkiote, beren irudiak merkataritza-xedez erabiltzen direnean.
b) Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea dute
c) Ezingo dituzte dagozkien ekintzak baliatu beren intimitate pertsonalean legez kontrako esku-sartzea egin dutenen aurka, beren baimenarekin jardun badute.
d) Ez dute eskubiderik familiaren egoitzaren eta postaren bortxaezintasunerako, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidean modu ez-legitimoan sartu badira.

389. Adingabeek, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Etxearen zaintzan eta etxeko lanen burutzapenean parte hartu eta erantzukidetasunez jardun behar dute
b) Hezkuntza-zentroetako bizikidetza-arauak errespetatu behar dituzte, baldin eta behar bezala jakinarazi bazaizkie.
c) Harremanak dituzten pertsonak eta garatzen diren ingurunea errespetatu behar dituzte, baliabideak eta instalazioak hondatuta daudenean izan ezik.
d) Ikastetxeetako irakasleak eta beste langile batzuk errespetatu behar dituzte, jazarpena jasaten dutenean izan ezik; kasu horretan, eraso horietatik fisikoki eta ahoz defendatzeko eskubidea izango dute..



390. Beren eskubideen defentsa eta bermeari dagokionez, adingabeak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Bere eskubideen aurkakotzat jotzen dituen egoerak Fiskaltzaren jakinaren gainean jarri ahal izango ditu
b) Bere kexak Arartekoaren aurrean soilik aurkeztu ahal izango ditu.
c) Banaka baliatu ahal izango ditu bere erreklamazioak epaitegi eskudunen aurrean, eta prozeduraren kostuak bere gain hartu beharko ditu erreklamazioa onesten ez bada.
d) Nahitaez jo beharko du erakunde publiko eskudunera egoera konpon dezan, eta ez zaio aitortuko ekintza judizialak hasteko gaitasunik.

391. Herritar batek, bere lanbide edo jardueraren ondorioz, adingabe baten arrisku-egoera edo babesgabetasun posiblea hautematen duenean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Hurbilen dagoen agintaritzari jakinaraziko dio
b) Behar duen berehalako laguntza eman beharko dio, eta kasu larria denean bakarrik jakinarazi beharko die hurbileneko agenteei.
c) Gertakarien benetakotasuna egiaztatu beharko du hurbileneko agintaritzari jakinarazi aurretik, ustezko egilearen errugabetasun-presuntzioa babesteko.
d) Bakarka jardun beharko du, adingabearen bizitzan beharrezkoa ez den interferentziarik saihestuz.

392. Jatorrizko familia-ingurunean jarraitzea posible ez denean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Familia-harrera eratu ahal izango da
b) Adopzio-espediente berezia hasi ahal izango da, inguruabarrek hala gomendatzen badute.
c) Fiskaltzak, adingabea entzun ondoren, administrazio-agintaritza eskudunaren esku-hartzerik gabe adingabea kokatuko den erakunde publiko bat izendatu ahal izango du.
d) Beharrezko neurri polizial eta judizialak hartuko dira familia-ingurunearen gainean, adingabeak bertan jarraitu ahal izan dezan.

393. Familia-harreragileek, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Familia-harreraren izaerari eta ondorioei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango dute, bai eta aurretiazko prestakuntza, jarraipena eta laguntza tekniko espezializatua jasotzekoa ere (20 bis 1.a art.).
b) Ez dute konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango, salbu eta konpentsatu beharreko gastuak izan dituztela egiaztatzen badute.
c) Ezin izango dute adingabearekin inolako bidaiarik egin, nahiz eta horren berri erakunde publiko eskudunari eman.
d) Ez diote adingabeari entzungo eragiten dioten erabakiak hartu aurretik, 12 urtetik gorakoa denean izan ezik.

394. Familia-harreragileek, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Adingabearen ongizatea eta interes gorena zaindu beharko dituzte, hura elikatu, hezi eta hari prestakuntza integrala eman ingurune afektibo batean.
b) Ez dituzte adingabearen jatorrizko familiarekiko harremanak erraztu beharko, haiek izan badira adingabearen babesgabetasun-egoeraren eragileak.
c) Adingabearen jatorrizko familiaren nortasunaren sekretua bermatu beharko dute
d) Erakunde publiko eskudunari jakinaraziko diote familian gertatzen den eta bizikidetza arriskuan jar dezakeen edozein aldaketa; esaterako, ezkontideen dibortzioa, zeinak automatikoki ekarriko duen adingabearen harrera azkentzea.

395. Haurren babes-zentroetan bizikidetza eta segurtasuna bermatzeko neurriak. Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren arabera:

a) Prebentziozko eta deseskalada-neurriak izango dira, eta muturreko kasuetan adingabearen euste fisikoko neurriak ere barne hartuko dituzte (21 ter 1 art.).
b) Adingabeen zaintza-lana egiten duten pertsonen agintaritza-izaeran oinarritzen dira, lege-agenteak balira bezala edozein neurri errepresibo hartzeko legitimazioa dutelarik.
c) Administrazio-agintaritza eskudunak hartu beharko ditu, zentroko zuzendariak ez baitu horiek hartzeko eskumenik.
d) Azken batean, euste mekanikoko neurriak izan daitezke; neurri horietan, adingabea ohe artikulatu bati lotuta egon daiteke, edo objektu finko bati edo instalazioei edo objektu higigarriei ainguratutako objektu bati lotuta.

396. Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzearen arloan esku hartzen duten administrazio publikoak, erakunde pribatuak eta pertsona pribatuak, Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearekin bat etorriz:

a) Beharrezko erreserbaz jardungo dute haurren eta nerabeen arretaren eta babesaren esparruan, daukaten informazioaren tratamendu konfidentziala bermatzeko behar diren neurriak hartuz
b) Ez dute beren jarduketak elkarren artean lankidetzan eta koordinazioan garatzeko betebeharrik, nahiz eta erakunde arteko lankidetzaren printzipioaren arabera jardun behar duten.
c) Ezin izango dute jardun instantzia judizialek beren erabaki guztiak babestu gabe.
d) Indarkeriaren biktima diren adingabeen datu pertsonalak zabaldu ahal izango dituzte, iritzi publikoa kontzientziatu dadin eta antzeko gertakaririk berriro gerta ez dadin..

397. Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen arabera, adingabe orok

a) Ez dute administrazio- edo judizio-prozeduretan entzunak izateko eskubiderik, horietan parte hartzeko behar besteko irismenik ez dutelako.
b) Entzunak izateko eskubidea dute bai familia-eremuan bai zuzenean inplikatuta dauden administrazio- edo judizio-prozedura guztietan

c) Entzunak izan beharko dute bai familia-eremuan bai zuzenean inplikatuta dauden administrazio- edo judizio-prozedura guztietan; hala ez bada, espedientea eragingabe deklaratuko da edo prozedura judiziala deuseza izango da, hurrenez hurren.
d) Edozein indarkeria motaren biktima den prozeduren lekukotza emateko eskubidea du, baina horretarako profesional espezializatuen laguntza izan gabe, betiere hori egiteko heldutasun nahikoa duela ulertzen baita..

398. Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen arabera, adingabe orok:

a) Osasun-agintaritzak proposatutako txerto-egutegian aurreikusitako gaixotasun infekzioso-kutsakorren aurkako immunizazioa jasotzeko eskubidea dute
b) Osasun-agintaritzak proposatutako txerto-egutegian aurreikusitako gaixotasun infekzioso-kutsakorren aurka immunizatuak izan beharko dute.
c) Osasun-agintaritzak proposatutako txerto-egutegian aurreikusitako gaixotasun infekzioso-kutsakorren aurka immunizatuak izan beharko dute, baldin eta haien gurasoek hala erabakitzen badute.
d) Gaixotasun infekzioso eta kutsakorren aurka immunizatua izateko eskubidea du, soilik, epidemia deklaratzen denean bizi den erdigunean edo lurraldean.

399. Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen arabera, adingabe orok:

a) Hezkuntza inklusiboaren esparruan, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta unibertsitate-hezkuntza biltzen dituen oinarrizko irakaskuntza jasotzeko eskubidea du.

b) Berehala eskolatzeko eskubidea du, hezkuntza-sisteman berandu sartu bada, bizilekuz aldatu delako edo familiaren, pertsonaren edo gizartearen inguruabarrak aldatu direlako.

c) Oinarrizko hezkuntza jasotzeko eskubidea du, bost urtetik aurrera bakarrik.

d) Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak izateak gainerako ikasleen baldintza berberetan soilik du eskubidea derrigorrezko hezkuntzan sartzeko, baina ez derrigorrezkoa ez den hezkuntzan sartzeko.

400. Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearekin bat etorriz, adingabeei zuzendutako publizitateak:

a) Harreman pertsonaletan ezin izango du eduki bortitzik, pornografikorik edo esplotaziorik, gurasoek edo legezko ordezkariek berariaz baimendu ezean.
b) Produktuak eta zerbitzuak erostera bultzatu ahal izango ditu zuzenean, baldin eta osasungarriak badira, nahiz eta horretarako esperientziarik eza edo sinesgaiztasuna ustiatzen duten.
c) Ezingo dizkie helduen munduari dagozkion itxaropenak sortu, hala nola arrakasta ekonomikoarekin lotutakoak.
d) Zeharka, bereizi gabe edo ezkutuan egin ahal izango da adingabeei zuzendutako programak ematen diren bitartean.

401.- Legearen arabera, adingabeak

a) Ingurumen osasungarrian bizitzeko eta horren garapen iraunkorra izateko eskubidea dute, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ingurunea ezagutzeko eta hartaz gozatzeko eta naturarekin etengabeko harremana izateko eskubidea ere.
b) Gizarteratze osorako eskubidea dute, salbu eta haien familiak beharrezkotzat jotzen ez badu.
c) Beren herria edo hiria eta beren ingurunea ezagutzeko betebeharra dute.
d) Herritarrei aplikatu beharreko oinarrizko bizikidetza-arauak ezagutzeko betebeharra dute, betetzen ez badituzte erantzukizun pertsonala izango baitute.

402. Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen arabera, EAEko administrazio publikoek

a) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzera zuzenean bideratutako ekintzak garatu ahal izango dituzte, baita beren eskumenetatik harago ere, kasuaren inguruabarrek hala eskatzen dutenean.
b) Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria zeharka prebenitzeko eginkizuna beteko dute, haurren eta nerabeen ongizatea eta haien eskubideen egikaritza sustatzeko jarduketen bidez.
c) Delitu-jarduketa baten xede izan diren adingabeak babesteko lanak soilik egingo dituzte.
d) Adingabeak babestu beharko dituzte gizarte-zerbitzuek hala erabakitzen dutenean, eta betiere justizia-auzitegiek egokitzat jo badute.

403. Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen arabera, Haur eta Nerabeen Behatokiak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko adingabeen errealitatea eta lege hau aplikatuz garatzen diren politiken eragina etengabe aztertzea izango du eginkizun.
b) Euskal Autonomia Erkidegoan adingabeak barneratzeko dauden zentroak ikuskatzea izango du eginkizun.
c) Adingabeentzako egoitza-harrerako zentroei eska dakizkiekeen baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak arautzea izango du eginkizun.
d) Babesgabezia-egoeran dauden adingabeen familia harreragileek bete beharreko baldintzak ezartzea izango du eginkizun.

404. Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen arabera:

a) Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala eratuko du, haurrei eta nerabeei arreta ematen diharduten erakunde publikoek eta gizarte-eragileek parte hartzeko berariazko foro gisa.
b) Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua EAEko administrazio publikoek haurren eta nerabeen arloan parte hartzeko berariazko foro eta kontsulta-organo gorena izango da.
c) Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseiluak diseinatu eta betearaziko ditu haurrak eta nerabeak babesteko neurriak.
d) Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek soilik osatuko dute.

405. Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen arabera:

a) Familia-integraziorako erakunde laguntzaileak izango dira kalteberatasun-egoeran edo desanparo-egoeran dauden adingabeak babesteko jarduerak egiten dituztenak, bai eta indarkeriaren biktima diren adingabeak babesteko jarduerak egiten dituztenak ere, horretarako berariaz homologatu badira.
b) Familia-integraziorako erakunde laguntzaileak gaituta daude familia batek adingabeak adoptatzea helburu duten bitartekaritza-zerbitzuak egiteko.
c) Familia-integraziorako erakunde laguntzaileek ezingo dute bitartekotzarik egin adingabeen familia-harrerarako prozesuetan.
d) Eusko Jaurlaritzak homologatuko ditu familia-integraziorako erakunde laguntzaileak..

406. Espainiako organo judizialek, Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen arabera:

a) Borondatezko jurisdikzioko espedienteak ezagutzeko eskumena izango dute nazioarteko kasuetan, nazioarteko eskumen-foroak betetzen direnean
b) Eskumena izango dute bai nazioko bai nazioarteko kasuetan sortutako borondatezko jurisdikzioko espedienteak ezagutzeko.
c) Borondatezko jurisdikzioko espediente eta egintza guztietan beti Espainiako araudia aplikatuko dute.
d) Borondatezko jurisdikzioko espediente eta egintzei beti aplikatuko zaie borondatezko jurisdikzioko egintzek ondorioak izan behar dituzten tokiko araudia

407. Espedientea hasteko eskaera aurkeztuta, Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen arabera:

a) Idazkari judizialari soilik dagokio espedientea artxibatzeko dekretua ematea, onartezina denean.
b) Epaileari dagokio espedientea artxibatzeko dekretua ematea, onartezina denean.
c) Idazkari judizialari edo epaileari dagokio, eskumena duenaren arabera, bidezko dena erabakitzea
d) Justizia Administrazioaren letraduari dagokio espedientea artxibatzeko dekretua ematea, baldin eta, alderdi-eskariz, eskumen objektiboaren eta lurralde-eskumenaren arloko arauak betetzen dituen aztertzeko eskatu bazaio.

408. Borondatezko jurisdikzioaren espedientea, Legearen arabera:

a) Entzunaldiaren amaieratik edo azken eginbidea burutu denetik bost eguneko epean ebatziko da
b) Auto bidez ebatziko da.
c) Dekretu bidez ebatziko da.
d) Epaileak ebatziko du eta irmo bihurtuko da, nahiz eta gai beraren inguruan beste espediente bat hasi ahal izango den, baldintzak aldatu izan ala ez.

409. Borondatezko jurisdikzioaren espedientea abandonatutzat joko da, Legearen arabera:

a) Ofiziozko bultzada egon arren, interesdunek azken jakinarazpenetik sei hilabeteko epean jarduerarik sustatzen ez badute
b) Epaile eskudunak hala erabakitzen badu.
c) Hasieratik urtebete igaro bada.
d) Idazkari judizialak hala erabakitzen badu, aurrera egiteko aukerarik ez dagoela uste badu, hasieratik igarotako denbora kontuan hartu gabe.

410. Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzea baliozkoa izateko beharrezkoa denean, Borondatezko Jurisdikzioaren Legearen arabera:

a) Eskaera administrazio eskudunari aurkeztuko zaio adingabearen edo gaitasun juridikoa egikaritzeko desgaitasuna duen pertsonaren seme-alabatasunaren aitorpena egiteko.
b) Eskaera aurkeztuko da seme-alabatasun ez-ezkontzazkoaren aitorpena egiteko baimen judiziala eskatuz
c) Eskaera aurkeztuko da baimen judiziala eskatuz, seme-alabatasun ez-ezkontzazkoaren aitorpena egin ahal izateko eta Erregistro Zibilean inskribatzeko.
d) Onespen judiziala eskatuko da, legezko ordezkariaren esanbidezko adostasuna duenak adingabe baten ezkontzaz kanpoko filiazioa aitor dezan, gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriekin.

411. Tutoretza-espedientea ezagutzeko eskumena izango du, Borondatezko Jurisdikzioaren Legearen arabera:

a) Adingabearen ohiko bizilekuko edo egoitzako Lehen Auzialdiko Epaitegiak
b) Administrazioarekiko auzien epaitegiak.
c) Adingabearen egoitzari edo bizilekuari dagokion Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor-arloko Sala.
d) Adingabearen egoitzari edo bizilekuari dagokion Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala.

412. Tutoretza eta kuradoretza espedienteen izapidetzea, Legearen arabera:

a) Fiskaltzak edo tutoretza edo kuradoretza sustatzeko legez gaitutako edozeinek aurkeztutako eskaeraren bidez hasiko da
b) Eskaera legez gaitutakoek bakarrik aurkeztu ahal izango dute, baina Fiskaltzak ezin izango du.
c) Dokumentazio egokia erantsi beharko da, eta entzunaldian ezin izango du eskatzaileak parte hartu
d) Epaileak edo fiskaltzak ezin izango du ofizioz jardun.

413. Tutorea edo kuradorea, Legearen arabera:

a) Ordainsaria jaso ahal izango du hala eskatzen badu.
b) Ezingo du inolako ordainsaririk jaso.
c) Epaileak hala erabakitzen badu ordainsaria jaso ahal izango du, haren zenbatekoa finkatuz, esleitutako eginkizunen konplexutasuna eta hedadura kontuan hartuta
d) Kasu guztietan ordainsaria jaso beharko du.

414. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, Gobernuak genero-indarkeriaren inguruan garatu behar dituen politika publikoak formulatzeko ardura duen organoa edo erakundea honako hau da:

a) Berdintasunaren aldeko Konferentzia Sektoriala.
b) Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia.
c) Genero-indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza.
d) Berdintasun Ministerioa.

415. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoarekin bat etorriz, Autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta integrala emateko gizarte-zerbitzuak antolatzen dituztenean, printzipio hauek beteko dituzte (adierazi erantzun OKERRA):

a) Diziplina-anizkotasun profesionalaren printzipioa.
b) Prestazioen espezializazioaren printzipioa.
c) Premiazko arretaren printzipioa
d) Arreta eraginkor eta iraunkorraren printzipioa.

416. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, genero-indarkeriaren biktima den emakume langileari dagokionez, baieztapen hauetik zein EZ da zuzena?

a) Lan-harremana eteteko eskubidea izango du, eta lehenengo urtean lanpostua gordeko zaio.
b) Bi kasuetan, lan-harremana eteteak nahiz lan-kontratua azkentzeak legezko langabezia-egoera sortuko dute.
c) Eteteak iraun bitarteko denbora kotizazioaldi eragingarritzat joko da, Gizarte Segurantzaren prestazioei eta langabeziari begira.
d) Genero-indarkeriaren biktima diren beregaineko emakume langileei kotizatzeko betebeharra etengo zaie sei hilabetez, jarduerari lagatzen diotenean euren babesa edo gizarte-laguntza osorako eskubidea eragingarri egiteko; sei hilabete horiek benetan kotizatutakotzat hartuko dira, Gizarte Segurantzaren prestazio-ondoreetarako.

417. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiak:

a) Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkesta egingo du.
b) Gobernuak genero-indarkeriaren inguruan garatu behar dituen politika publikoak azalduko ditu.

c) Behatoki horri dagokio genero-indarkeriaren gaia dela eta, aholkularitza, ebaluazioa, erakundeekin elkarlanean aritzea, txostenak eta azterketak egitea, eta jarduera-proposamenak egitea.
d) Gai horretan gauzatutako ekintza guztiak koordinatu eta bultzatuko ditu, bertan eskumena duten administrazioekin elkarlanean eta modu koordinatuan arituz.

418. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa kontuan hartuta, adierazi erantzun OKERRA, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiei dagokienez:

a) Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiak sortu ahal izango dira lan-zamak hala gomendatzen duen epai-barrutietan.
b) Gai-kopuruaren arabera, epai-barruti batzuetan ez denean beharrezkoa epaitegien antolaketa garatzea, jardunbidean dauden instrukzioko epaitegi eta lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi batzuk Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegi bihurtu ahal izango dira.
c) Salbuespen gisa, jurisdikzioa probintzia bereko bi epai-barrutietara edo gehiagotara hedatzen duten Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiak ezarri ahal izango dira.
d) Epai-barruti bakoitzean Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegi bakarra egongo da, emakumearen aurkako indarkeriari buruzko gaiak ezagutzen dituen organo judizial espezifiko gisa, eta jurisdikzioa epai-barrutiko lurralde-esparru osoan izango du.

419. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, adierazi erantzun OKERRA, genero-indarkeriaren biktimen laguntza juridikoari dagokionez:

a) Biktimari izendatutako abokatuak legezko ahalmena izango du haren ordezkaritza prozesalerako ere, biktimak akusazio partikular gisa aurkeztea erabakitzen duenean.
b) Genero-indarkeriaren biktimek doako aholkularitza juridikoa jasotzeko eskubidea dute salaketa jarri aurreko unean.
c) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute abokatuaren eta prokuradorearen doako ordezkaritza izateko administrazio-prozesu eta -prozedura guztietan, prozesu edo prozedura horiek jasandako indarkerian oinarritzen direnean zuzenean edo zeharka.
d) Abokatuen elkargoek beharrezko neurriak hartuko dituzte, premiaz izendatzeko ofiziozko abokatua, genero-indarkeriaren ondoriozko prozeduretan.

420. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa kontuan hartuta, adierazi zein den Genero Indarkeriaren Sentsibilizaziorako eta Prebentziorako Estatuko Planari dagokionez erantzun OKERRA:

a) Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak plan hori ebaluatzeko urteko txostena egingo du, eta Diputatuen Kongresura bidaliko du, onar dezan.
b) Plan hori partaidetza zabaleko batzorde batek kontrolatu behar du; bertan parte hartu behar dutenen artean daude kaltedunak eta haien ingurunea, erakundeak, profesionalak eta gai horiek tratatzeari dagokionez gizartean ospe handia duten pertsonak.
c) Gizonei zein emakumeei zuzenduta dago, lan komunitario eta kulturarteko batetik.

d) Planak prestakuntza osagarriko eta birziklatzeko programa zabala aurreikusten du egoera horietan esku hartzen duten profesionalentzat.

421. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, Osasunaren Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan Genero-indarkeriaren aurkako Batzordea eratuko da. Adierazi Batzorde horri dagokionez erantzun OKERRA:

a) Batzordea osatuko dute gai horretan eskumena duten autonomia-erkidego guztietako ordezkariek.
b) Batzordeak urtero txostena emango du, eta hori bidaliko zaie Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiari eta Lurraldearteko Kontseiluko osoko bilkurari.
c) Batzordeak osasun-sektoreak indarkeria-mota hori ezabatzen laguntzeko egokitzat jotzen dituen neurriak proposatuko ditu.
d) Batzordeak Gobernuari eta autonomia-erkidegoei urtero bidaliko die txosten bat, emakumearen aurka gauzatutako genero-indarkeriaren bilakaerari buruz; txosten horretan zehaztuko dira aplikatutako tipo penalak eta biktimak babesteko akordatutako neurrien eragingarritasuna.

422. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, adierazi genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeko moduei dagokienez zein den OKERREKO erantzuna:

a) Oro har, Fiskaltzari edo organo judizialari jakinarazitako osasun-agiri ofizialen bidez.
b) Fiskaltzaren txosten bidez, demandatzailea genero-indarkeriaren biktima dela adierazten duten zantzuak daudela adierazteko.
c) Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo administrazio publiko eskuduneko harrera-zerbitzuen txostenaren bidez.
d) Babes-agindu baten bidez edo biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizialen bidez.

423. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, adierazi erantzun OKERRA, sexuan oinarritutako zuzeneko eta zeharkako bereizkeriari dagokionez:

a) Sexuan oinarritutako zuzeneko bereizkeria da, antzeko egoera batean, sexuaren ondorioz, pertsona batek, beste batekin alderatuta, tratu ez hain mesedegarria jasatea, jasan izana edo jasateko arriskua izatea.
b) Sexuan oinarritutako zuzeneko bereizkeria da emakume bati tratu kaltegarria ematea haurdunaldiarengatik edo amatasunarengatik.
c) Itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonekin alderatuta, sexuan oinarritutako zuzeneko bereizkeria dela jotzen da.
d) Bereizkeriatzat joko da zuzeneko nahiz zeharkako bereizkeria egiteko agindu oro, sexuan oinarritzeagatik.

424. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, negozio juridikoetan, sexuan oinarritutako bereizkeria diren edo sortzen duten egintza eta klausulak:

a) Deuseztagarriak dira, eta ez dute ondoriorik sortzen.
b) Deusezak dira, baina ondorioak sortzen dituzte haien deuseztasuna formalki deklaratu arte.
c) Deusezak dira, baino baliozkogarriak, zuzentzen badira.
d) Deusezak eta ondoriorik gabekoak dira.

425. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, adierazi erantzun ZUZENA emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidearen babes judizial eragingarriari dagokionez:

a) Edozein pertsonak auzitegiei eska diezaieke emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidearen babesa, ustez bereizkeria gertatu den harremanak irauten duen bitartean.
b) Jazarpena jasan duen pertsonak baino ez du legitimaziorik izango, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko auzietan.
c) Eskubide hori defendatzeko prozesu zibiletan, lan-arlokoetan eta administrazioarekiko auzibide-prozesuetan, parte hartzeko legitimazioa interes legitimodun pertsona fisikoek bakarrik izango dute.
d) Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko auzietan, jazarritako pertsonaz gain, legitimatuta egongo dira interes legitimoa duten pertsona fisikoak eta juridikoak.

426. Adierazi baieztapen hauetatik zein den OKERRA, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoari dagokionez:

a) Gobernuak, Estatuaren eskumenekoak diren gaietan, aldizkakotasunez onetsiko du Aukera-berdintasunaren Plan Estrategikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko neurriak jasotzen dituena. Plan hori Gorte Nagusiei aurkeztuko zaie, onets dezaten.
b) Botere publikoek sexu-aldagaia sistematikotasunez sartu behar dute estatistiketan, inkestetan eta egiten dituzten datu-bilketetan.
c) Izaera orokorreko xedapen-proiektuak, Ministroen Kontseiluak onetsi behar dituenean, txosten bat izan beharko dute generoan oinarritutako eraginari buruz.
d) Gobernuak aldizkako txosten bat egingo du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eragingarritasunari begira gauzatutako jardueren inguruan. Gorte Nagusiei emango zaie txosten horren berri.

427. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, adierazi zein den baieztapen OKERRA, Estatuko Administrazio Orokorrean eta horri lotutako edo horren mendeko antolakunde publikoetan emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun-planari dagokionez:

a) Gobernuak, legealdi bakoitzaren hasieran, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana onetsiko du Estatuko Administrazio Orokorrean eta horri lotutako edo horren mendeko antolakunde publikoetan.



b) Plan horrek ezarriko ditu lortu beharreko helburuak enplegu publikoan tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeari dagokionez, bai eta horiek lortzeko ezarri behar diren estrategia edo neurriak ere.
c) Diputatuen Kongresuak urtero kontrolatuko du Plan horren betepena.
d) Plan hori negoziatu beharko da enplegatu publikoen lege-ordezkariekin.

428. Zer da sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeria, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera?

a) Itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonei begira
b) Emakume bati tratu kaltegarria ematea haurdunaldiarengatik edo amatasunarengatik.
c) Tratu-desberdintasuna, sexuarekin lotutako ezaugarri batean oinarritua, baldin eta lanbide-jardueraren izaera edo jarduera hori gauzatzeko ingurua dela bide, ezaugarri hori oinarrizkoa eta erabakigarria bada lanbide-betekizun gisa.
d) Antzeko egoera batean, sexuaren ondorioz, pertsona batek, beste batekin alderatuta, tratu ez hain mesedegarria jasatea, jasan izana edo jasateko arriskua izatea.

429. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, aukeratu erantzun OKERRA, sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen kasuei dagokienez:

a) Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena gertatzen denean, pertsonaren duintasunaren aurka egiten da, asmoz edo ondorioz.
b) Sexu-jazarpenaz hitz egin ahal izateko, sexu-izaerako portaera fisikoa izan behar da; sexuan oinarritutako jazarpenean, berriz, pertsona baten sexuaren araberako portaera ahozkoa zein fisikoa izan daiteke.
c) Sexuan oinarritutako bereizkeriatzat joko da, halaber, eskubide bat edo eskubide-igurikimen bat eskuratzeko, aldez aurretik egoera jakin bat onartu behar izatea, egoera horrek sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena dakarrenean.
d) Jazarpena jasan duen pertsonak baino ez du legitimaziorik izango, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko auzietan.

430. Zer ezartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ekintza positiboei dagokienez (adierazi erantzun OKERRA)?

a) Botere publikoek neurri bereziak hartuko dituzte emakumeen mesedetan, gizonei begira egitezko desberdintasun-egoera nabariak zuzentzeko.
b) Eremu publikoan zein pribatuan nahitaezkoak izango dira, eta emakumeen alde aplikatuko dira beti.
c) Eremu pribatuan borondatezkoak dira, Legeak benetako berdintasuna lortzeko haien aplikazioa sustatzen badu ere.
d) Zentzuzkoak eta proportzionalak izan beharko dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuari dagokionez.

431. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, adierazi erantzun OKERRA, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioari dagokionez:

a) Bermatuko da enplegua lortzeko orduan, baita beregaineko lanaren kasuan ere.
b) Enplegu publikoaren esparruan bakarrik da aplikagarria.
c) Bermatuko da lan-baldintzetan, horien artean direla ordainsarien eta kaleratzeen ingurukoak.
d) Bermatuko da sindikatuen nahiz enpresaburuen erakundeetan afiliatu eta parte hartzean.

432. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak pertsona anitzeko organoetan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuari buruz ezartzen duena kontuan hartuta, adierazi aukera hauetatik zein izango den ZUZENA, oro har, 10 kidez osatutako organoa bada:

a) Gutxienez 5 emakume izan beharko dira.
b) Gutxienez 4 emakumeak izango dira, eta ezin izango dira 6 baino gehiago izan.
c) Gutxienez 5 gizon izan beharko dira.
d) Gehienez 5 gizon egon beharko dira.

433. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, adierazi zein den OKERRA emakumeen eta gizonen berdintasunerako planei dagokienez:

a) Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du eta, plan horretan, esku-hartze ildoak eta gidalerroak jasoko dira, koordinatuta eta oro har, EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak gidatzeko.
b) Udalek berdintasun-planak onartuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren esku-hartze ildo eta gidalerroei jarraikiz, eta bermatu egin beharko dute aipatu planetan jasotzen diren neurriak. Udalek banaka edo kide diren edo ondorio horietarako osa ditzaketen mankomunitate, kuadrilla edo elkartzeen bidez egin ditzakete jarduera horiek.
c) Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere jarduera-plan propioa egingo du; plan horiek behar diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egongo dira, benetan ezarriko direla bermatzeko.
d) Eusko Jaurlaritzak onartutako planek izan behar dituzte, gutxienez, egoeraren diagnostikoa, inplikatutako sailek edo arloek parte hartzeko bideak, aurrekontua, egutegia, helburuak, ekintzak eta ezarpen-, jarraipen-, ebaluazio- eta kontu emateko sistemak.

434. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera, administrazioaren araudian eta jardueran emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriei dagokienez, adierazi ondorengo baieztapenetatik zein EZ DEN ZUZENA:

a) Arau bat egiteko unean, EAEko administrazio publikoek ebaluatu egin behar dute proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran.
b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak EAEko administrazio publiko guztien arau-proiektuei buruzko txostena eman behar du, Legegintzako Dekretu honetan xedatzen dena egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, horren inguruko hobekuntzak proposatzeko.

c) Egindako genero-inpaktuaren ebaluazioaren arabera, administrazio-arauaren proiektuan honelako neurriak sartu behar dira: batetik, arau edo proiektu horiek emakumeen eta gizonen egoeran sor dezaketen eragin negatiboa indargabetzeko neurriak, eta, bestetik, hautemandako desberdinkeriak desagerrarazteko edo gutxitzeko eta sexuen berdintasuna sustatzeko neurriak.
d) Administrazio-egintzak ez dira araudiak egiteko izapideen mende egongo, enplegu-eskaintza publikoen deialdiak eta lekualdatze-lehiaketak izan ezik.

435. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduerak koordinatzeko organoa honako hau da:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.
b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
d) Berdintasunerako Administrazio-Unitatea.

436. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako prestazio ekonomikoei dagokienez, adierazi zein den baieztapen OKERRA:

a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko legez aurreikusitako gutxieneko adin-muga ez zaie aplikatuko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei, salbuetsita daude eta.
b) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek, aldi baterako harrera-pisuetan edo -zentroetan babestuta daudenean, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izango dute baldin eta pisu edo zentro horietan ez bada oinarrizko mantenua bermatzen.
c) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoera baten ondorioz ohiko bizilekua utzi behar duten eta beste pertsona batzuenean sartzen direnek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea dute, harrera egiten dietenak senitartekoak izan ala ez.
d) Eskuragarri dituzten prestazio ekonomiko orokorrez gainera, EAEko administrazio publikoek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei laguntza ekonomiko espezifikoetarako sarbidea bermatu behar diete; hala nola, ordainketa bakarreko laguntzak, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen duten biktimentzat.

437. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloan egindako arau-hausteen artean, oso arau-hauste larria izango da:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ikerketa-lana partzialki oztopatzea edo ukatzea.
b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bereizkeria arloko ikerketa-lana guztiz oztopatzea edo ukatzea.
c) Gutxienez hiru arau-hauste arin berriro egitea.

d) Gutxienez bi arau-hauste larri berriro egitea.

438. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, administrazio-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan arau-hauste larrien ondoriozko zehapenak ezartzeko eskumena dagokion agintaria izango da:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.
b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
c) Jaurlaritzaren Kontseilua.
d) Berdintasunerako administrazio-unitateak.

439. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeari buruz ezarritakoa kontuan hartuta, adierazi ondoko esaldietatik zein EZ den zuzena:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxiki zaio.
b) Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek ordezkari-kopuru bera izango dute batzordean.
c) Batzordearen eginkizunak, osaera, antolaketa eta funtzionamendu-araubidea erregelamenduz ezartzen direnak izango dira.
d) Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduerak koordinatzeko organoa da.

440. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, salbuespen gisa, baldin eta dagokion instituzio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duen organo edo erakundeak aldeko txostena ematen badu, justifikatuta egongo da ordezkaritza orekatuaren irizpidea ez aplikatzea pertsona anitzeko administrazio-organoetan, betiere honako kasu hauetan (adierazi erantzun OKERRA):

a) Objektiboki frogatzen denean sexu jakin batekoen artean ez dagoela behar adina pertsona organo hartan parte hartzeko gaitasun, trebakuntza eta prestakuntza egokia dutenak.
b) Emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa izanik, egokitzat jotzen denean emakumeek ordezkaritza handiagoa izatea, erabakiak hartzeko eremuetan ordezkaritza txikiegia izatearen ondorioz historikoki izan duten desberdinkeria-egoera zuzentze aldera.
c) Izendapena instituzio edo erakunde batek baino gehiagok egin behar duenean. Halakoetan, ordezkaritza orekatuaren irizpideari eutsi beharko zaio, erakunde berak izendatutako pertsonen taldeari dagokionez.
d) Objektiboki frogatzen denean organo horri dagokion erreferentziazko sektorean edo eremuan sexu jakin bateko pertsonen presentzia % 40tik beherakoa dela. Halakoetan, bermatu beharko da ordezkaritza txikiena duen sexuaren presentzia organo horretan ez dela inola ere % 30etik beherakoa izango.



441. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, enplegu publikoko hautaketa-epaimahaietan zein Administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako sariak emateko epaimahaietan, emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuta egon behar da. Horrek esan nahi du:

a) Gutxienez %50 emakumeek osatuko dutela.
b) Epaimahia lau pertsonak osatzen dutenean, nahikoa dela emakume bat egotea.
c) Epaimahia lau pertsonak osatzen dutenean, nahitaez bi emakume eta bi gizon egon behar direla.
d) Gizonen %50 baino gehiago ezin dela egon

442. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko plangintza soziolinguistikoaren mapa:

a) Eusko Legebiltzarrak egingo du, Jaurlaritzaren ekimenez.
b) Jaurlaritzak egingo du, Eusko Legebiltzarrari jakinarazi ondoren.
c) Jaurlaritzak egingo du, Eusko Legebiltzarrak proposatuta.
d) Eusko Legebiltzarrak egingo du, Jaurlaritzari jakinarazi ondoren.

443. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoaren arabera, nola inskribatu behar dira dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko erregistro publikoetan?

a) Beti euskaraz, gaztelaniara itzulita, hala eskatzen bada.
b) Bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan, erregistro-organoaren aukeran.
c) Dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean.
d) Nahitaez bi hizkuntza ofizialetan aldi berean.

444. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri-aginteek emandako arau-xedapen edo ebazpen ofizial oro bi hizkuntzatan idatzita egon beharko da, honakoagatik:

a) Euskadiko herritarrek ezagutu dezaten.
b) Publizitate ofiziala.
c) Erregistroa.
d) Gardentasuna.

445. Herri-administrazioan sartzeko hautaprobetan, nola baloratzen da euskararen ezagutza derrigorrezkoa ez den lanpostuetan?

a) Azken notaren % 50aren baliokidea den puntuazio finkoa du.
b) Kontuan hartu beharreko merezimenduetako bat da, eta Administrazioak haztatuko du.
c) Ezin da balioetsi hiztun ez direnak ez diskriminatzeko.
d) Ezagutza orokorren proba ordezkatzen du maila jakin batzuetan.

446. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren arabera, nori dagokio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Euskara Plana onartzea?

a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.
b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaiolarik.
c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, Osasun Arloko Mahaian ordezkaritza duten sindikatuei kontsulta egin ondoren.
d) Euskadiko Osasun Kontseiluari, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaiolarik.

447. Lehen mailako arretan euskara erabiltzeko gutxieneko helburuei dagokienez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak xedatzen du laguntza-zerbitzuak eta bezeroarentzako arreta-eremuetako zerbitzuak elebidunak izango direla osasun-zentroetako eragin- edo jarduera-eremuetako euskaldunen ehunekoa baldin bada:

a) % 45etik gorakoa.
b) % 45etik gorakoa eta % 70era artekoa.
c) % 50etik gorakoa.
d) % 70etik gorakoa.

448. 67/2003 Dekretuaren arabera, ondorengo pertsonetatik zein gera daiteke salbuetsita Osakidetzako hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-araubide orokorra betetzetik, hala eskatuz gero?

a) Planaren hasieran 30 urte dituen pertsona finko bat.
b) Planaren hasieran 45 urte baino gehiago dituen pertsona finko bat.
c) 50 urte dituen behin-behineko pertsona bat.
d) Derrigorrezko unibertsitate-titulua duen pertsona finko bat.

449. 67/2003 Dekretuaren xedea da:

a) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Euskara Plana onartzea.
b) Lanpostu funtzionaletako hizkuntza-eskakizunak onartzea.
c) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Euskara Planaren oinarriak ezartzea.
d) Lanpostu funtzionalen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak onartzea.

450. Ezarritako lehentasun-ordenaren arabera, zein da normalizazio-prozesuaren aplikazio-eremuen hierarkia zuzena?

a) Atentzio espezializatua, lehen mailako atentzioa eta zerbitzu orokorrak.
b) Lehen mailako atentzioa, atentzio espezializatua, eta administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu orokorrak.
c) Administrazio-zerbitzuak, lehen mailako atentzioa eta atentzio espezializatua.
d) Haurren arreta, medikuntza orokorra eta atentzio espezializatua.

.

451. Osasun-zerbitzu publiko baten mendeko ospitale batean, ospitaleratzean, erlijioren bat duten adierazteko eskatzen zaie paziente guztiei. Datu hori "antolaketa arrazoiengatik" behar dutela esanez justifikatzen du ospitaleak. Erabiltzaile bati sarrera ukatzen zaio bere niqab kentzen ez den bitartean, zentroko zuzendaritzak uste baitu ospitalearen neutraltasunak hala eskatzen duela. Pazienteak protesta egin du eta bere eskubide konstituzionalak urratu dituela argudiatu du.

a) Jarduera konstituzionala da, osasuna babesteko eskubideak zerbitzua eskuratzeko baldintza horiek ezartzea ahalbidetzen baitu.
b) Jarduera konstituzionala da, Estatuaren akonfesionaltasunak galarazi egiten baitu ikastetxe publikoetako erlijio-adierazpen oro.
c) Jarduerak Konstituzioa urratzen du, inor ezin baita behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpena egitera, eta askatasun ideologiko eta erlijiosoa, bere adierazpenetan, legeak babestutako ordena publikoa mantentzeko beharrezkoa denagatik soilik mugatu daiteke; gainera, botere publikoek osasun publikoa antolatu eta babestu behar dute.
d) Jarduketa horrek Konstituzioa ideologiaren arloan baino ez du urratzen, eta ez, ordea, erlijioaren arloan; izan ere, osasun-zerbitzu publiko baten mendeko zentro batean sinbolo erlijiosoak ez erakusteko edo ez soinean eramateko betebeharra ezar daiteke.

452. Imajina ezazu Bilboko Udaleko funtzionarioa zarela eta egiaztatu behar duzula, parte-hartze politikorako administrazio-prozedura baterako, ea pertsona jakin batzuk euskal herritar izaera politikoa duten hala ez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 7.1 artikuluaren arabera.

Honako pertsona-talde hauetatik, zeinek dauka, zeinek dauka euskal herritar izaera hori?:

a) Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan jaiotako pertsonek.
b) Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenek.
c) Gutxienez urtebetez Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna egiaztatzen duten pertsonek.
d) Hala eskatu eta dagokien udal erregistroan inskribatzen diren pertsona guztiek.

453. Trantsizio energetikoari buruzko lege-proiektua izapidetzen da Eusko Legebiltzarrean. Mahaiak legegintzako eskumen osoa duen batzordean izapidetzea erabaki du, erregelamenduaren arabera, eta, horri esker, batzordeak testua behin betiko onar dezake, osoko bilkuratik pasatu beharrik gabe.

Prozeduraren azken fasean, batzordean irizpena onartu ondoren, legebiltzar-talde txiki batzuek uste dute proiektuaren edukiak garrantzi berezia duela politikan eta gizartean, eta uste dute ganbera osoak osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko lukeela.

Arauzko epearen barruan, talde horiek ekimen bat sustatzen dute, testua osoko bilkurara eraman dadin.

Erabateko legegintza-eskumena duen batzorde batean lege-proiektu bat onartu ondoren, zein kasutan onartu behar da ezinbestez testua ganberako osoko bilkuran?

a) Legebiltzarreko Mahaiak hala eskatzen duenean araugintzako teknikaren arrazoiengatik.
b) Bozeramaleen Batzordeak aho batez hala eskatzen duenean.
c) Erregelamenduzko epearen barruan, legebiltzarkideen bosten batek edo bi legebiltzar-taldek hala eskatzen dutenean.
d) Beti, batzordean erabilitako prozedura edozein dela ere.

454. 16 urteko adingabe bat empresa pribatu batek kudeatzen duen adingabeen zentro batean dago, Foru Aldundiaren administrazio-emakidaren bidez. Diziplina-zehapen baten ondoren, adingabekoak kexa aurkeztu du Arartekoaren aurrean, tratu diskriminatzailea eta motibazio-falta izan daitekeelakoan. Hala ere, bere amak zigor hori bera errekurritua zuen ordurako judizialki. Arartekoak espedientea eskatzen duenean empresa emakidadunak ez du bidali nahi, erakunde pribatua delako, eta foru zuzendariak dokumentazioa ez entregatzeko agindu du. Zer jarduera-aukera du Arartekoak kasu honetan?

a) Kexa ez onartzea, adingabea internatuta dagoelako.
b) Zerbitzuaren funtzionamendu orokorra ikertzea, baina zehapena zehazki aztertzen hasi gabe, baldin eta judizializatuta badago.
c) Jarritako zehapena zuzenean deuseztatzea.
d) Zentroa empresa pribatu batek kudeatuta dagoelako, eskumenik ez duela adieraztea.

455. Eusko Jaurlaritzako lehendakariak bat-batean dimisioa aurkeztu du arrazoi pertsonalengatik. Eusko Legebiltzarrak ez du lortu hautagai berri bat inbestitzea lehen bozketan, ezta bigarrenean ere. Behin-behinekotasun presidentzialeko aldi bat ireki da krisi betearazlea konpondu bitartean.

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arabera, adierazi zein den Lehendakaritzaren bitarteko egoeraren gehieneko muga:

a) Lau hilabetekoa da.
b) Bi hilabetekoa da.
c) Hiru hilabetekoa da.
d) Hilabete batekoa da.

456. Gobernuak errege lege-dekretu bat onartu du, Konstituzioaren I. tituluan aitortutako zenbait eskubideren egikaritza mugatzen duena, krisi ekonomiko batek eragindako premia berezi eta presazko egoera justifikatuz. Diputatuen Kongresuak errege lege-dekretua baliozkotu du konstituzioan ezarritako epearen barruan.

Arau horren baliozkotasunari dagokionez, adieraz ezazu baieztapen zuzena:

a) Errege lege-dekretua baliozkoa da; izan ere, Kongresuaren baliozkotzeak konstituzioaren aurkako edozein urraketa konpontzen du.
b) Errege lege-dekretua baliozkoa da, premia berezi eta presazko egoerak edozein gai arautzea ahalbidetzen baitu, baldin eta baliozkotua bada.
c) Errege lege-dekretua baliogabea da; izan ere, ezin die eragin Konstituzioaren I. tituluan araututako eskubide, betebehar eta askatasunei.



d) Errege lege-dekretua baliozkoa da, baldin eta hiru hilabeteko epean Konstituzio Auzitegian aurkaratzen ez bada.

457. Udal batek ordenantza bat onartu du, estatu-mailako lege batean aitortutako eskubide baten egikaritza mugatzen duena, lege horretan aurreikusi gabeko baldintza gehigarriak ezarriz. Herritar batek ordenantza horren aplikazioan emandako administrazio-egintza bat aurkaratzen du, ordenantza Zuzenbidearen aurkakoa dela alegatuz.

Egoera horren aurrean, adieraz ezazu baieztapen zuzena:

a) Ordenantza baliozkoa da, toki-erakundeek lege estatalei erregelamenduen bidez libreki garapena eman diezaioketelako.
b) Ordenantza baliozkoa da, baldin eta ez bada zuzenean aurkaratu ezarritako epean.
c) Herritarrak ezin du zeharka ordenantza aurkaratu aplikazio-egintzaren bidez.
d) Herritarrak egintza aurkaratu dezake ordenantzaren legez kanpokotasuna alegatuz, nahiz eta hura zuzenean errekurritu ez izan.

458. Udal batek establezimendu bat ixteko agindua ematen du, aurretik administrazio-ebazpen bat eman eta interesdunari jakinarazi ondoren. Ondoren, Administrazioak ebazpen hori gauzatzen du, partikularraren eskubideak mugatuz.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Administrazioak ezin ditu bere egintzak materialki gauzatu inolaz ere.
b) Gauzatze materiala epailearen aurretiazko baimenarekin bakarrik egin daiteke.
c) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, Administrazioak bere egintzak gauzatzeko ahalmena duelako, aurretiazko ohartarazpena eginda eta legearekin bat.
d) Gauzatze materiala baliozkoa izango da soilik interesdunak baimena ematen badu.

459. Ministerio batek eskumen jakin baten erabilera organo administratibo menpeko bati delegatzen dio, eta erabakia dagokion aldizkari ofizialean argitaratzen da. Ondoren, organo hierarkikoki goragokoak, behar bezala arrazoitutako erabaki baten bidez, delegazioaren eremuan sartzen den gai jakin baten ezagutza eta ebazpena bere gain hartzea erabakitzen du.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduna ez dator bat Zuzenbidearekin; izan ere, eskumena eskuordetzan eman ondoren, organo eskuordetza-emaileak behin betiko galtzen du bere egikaritza.
b) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, organo hierarkikoki goragokoak gai jakin baten ezagutza bereganatu dezakeelako, behar bezala arrazoitutako erabaki baten bidez.
c) Jarduera baliogabea da, baldin eta organo delegatuaren adostasuna ez badago.
d) Jarduera baliozkoa izango litzateke soilik delegazioa aurretik indargabetu izan balitz.

460. Interesdunak eskaera aurkezten dio administrazio publiko bati, eta, ebazteko eta jakinarazteko legez ezarritako gehienezko epea igaro ondoren, ez du ebazpen espresurik jasotzen. Ondoren, Administrazioak ebazpen adierazia ematen du, epez kanpo, gaiaren mamiaz ebazteko.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Administrazioak galdu egiten du ebazteko eskumena behin isiltasun administratiboa gertatuta.
b) Epez kanpoko ebazpena deuseza da zuzenbide osoz, epez kanpo eman delako.
c) Administrazioak beti du ebazpen espresua emateko betebeharra, isiltasun administratiboak sortutako ondorioei kalterik egin gabe.
d) Ebazpena baliozkoa izango da soilik interesdunak berariaz onartzen badu epez kanpo ematea.

461. Administrazio publiko batek kontratu bat lizitatzen du prozedura irekian, adjudikazio-irizpide batzuk ezarriz. Hala ere, ez klausula administratibo partikularren agirian ezta lizitazio-iragarkian ere ez da zehazten irizpide horien ponderazioa ezta haien garrantzi-ordena ere.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, baldin eta ponderazioa adjudikazioa egin aurretik ezartzen bada.
b) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, baldin eta kontratazio-mahaiak ondoren ezartzen badu ponderazioa.
c) Jarduera ez dator bat Zuzenbidearekin, esleipen-irizpideak eta haien haztapena aldez aurretik agertu behar baitira baldintza-agirietan edo lizitazio-iragarkian.
d) Jarduera baliogabea izango litzateke soilik lizitatzaileei benetako kaltea eragiten zaiela frogatzen bada.

462. Leonor andreak, fakultatibo espezialistak, 2012tik izendapen finkoa duenak, karrera profesionaleko III. gradua aitortuta du 2019tik.
2021eko urtarrilean, % 50eko lanaldi-murrizketa eskatu zuen legezko zaintzagatik. Aldi horretan, proportzionalki murriztutako oinarrizko ordainsariak jasotzen ditu; proportzionalki murriztutako berariazko osagarria jasotzen du; helburu indibidualen araberako produktibitate-plus aldakorra jasotzen du, bere benetako lanaldira egokitua, eta ospitalean zerbitzu eraginkorrak ematen jarraitzen du.

2022ko martxoan, karrera profesionaleko IV. graduan sartzeko gutxieneko denbora betetzen du, eta dagokion ebaluazioa eskatzen du. Ebaluazio positiboa 2022ko abenduan ebatzi zen, eta IV. gradua aitortu zitzaion. Administrazioak erabaki du aldaketa horren ondorio ekonomikoak ebazpenaren datatik aurrera hasiko direla (2022ko abendua), ez martxotik aurrera.
2023ko otsailean, Leonor Osasun Publikoko zuzendariorde nagusi izendatu zuten, eta zerbitzu berezietara igaro zen. 18 hilabetez goi-kargudunaren ordainsariak baino ez ditu jasotzen, ez du berariazko osasun-osagarririk jasotzen, ez du produktibitate aldakorrik jasotzen eta ez du asistentzia-jarduerarik egiten.

2024ko irailean, kargua utzi eta zerbitzu aktibora itzuli zen. And. Leonorrek honako hau eskatu du:

1. Zerbitzu berezietan, karrera-osagarri osoa ordaintzea.
2. Zegokion zerbitzuaren batez besteko produktibitatea ordaintzea.
3. Berariazko osagarria osorik aitortzea lanera itzultzen denetik, beste atxikipen funtzional baten beharrik gabe.
4. IV. mailako ondorio ekonomikoek 2022ko martxora arteko atzeraeragina izatea (gutxieneko denbora bete zuen unea).

Bestalde, Administrazioak onartzen du zerbitzu berezietan emandako denbora administrazio-ondorioetarako zenbatzen dela, produktibitatea ukatzen diola zerbitzu berezietan emandako denboran, graduaren atzeraeraginezko ondorioak ukatzen dizkiola, eta berriz lanean hasi denetik jasotzen duen berariazko osagarria aitortzen diola.

Administrazio-ebazpenarekin ados ez zegoenez, Leonor andreak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen.
Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren arabera, zein da irtenbide juridikoki zuzena?

a) Errekurtsoa osorik baietsi behar da; izan ere, karrera profesionala eta haren ondorio ekonomikoak zerbitzu-denboraren ondorio dira automatikoki, eta ordainsari-osagarriak estatutu pertsonal finkatuaren parte dira.
b) Bidezkoa da 2022ko martxotik aurrerako IV. mailaren atzeraeraginezko ondorioak aitortzea eta estatutu-lotura mantentzeagatiko zerbitzu berezietan batez besteko produktibitateagatik ordaintzea.
c) Ez dagokio inolako ondorio ekonomikorik aitortzea, ez lanaldi-murrizketan, ez zerbitzu berezietan, ez baitago lanaldi osoko asistentzia-prestaziorik.
d) Errekurtsoa partzialki baietsi behar da: zerbitzu berezietan emandako denbora karreraren ondorioetarako zenbatzen da, baina produktibitateak prestazio eraginkorra eskatzen du; osagarri espezifikoa benetan betetzen den lanpostuari lotzen zaio; eta karrera-osagarriak ondorio ekonomikoak sortzen ditu formalki aitortzen denetik.

463. Laugarren urteko mediku egoiliar batek, prestakuntza egiaztatutako irakaskuntza-unitate batean egiten duenak, osasun-administrazioari jakinarazi dio bere lanpostua behin betiko utzi behar duela genero-indarkeriaren biktimatzat hartu ondoren, bere egoera pertsonalak zentro horretan zerbitzuak ematen jarraitzea eragozten baitio. Arrazoi horrengatik kontratua azkendu ondoren, egoiliarrak informazioa eskatu du prestakuntza espezializatua beste osasun-zentro batean jarraitzeko aukerari buruz, alegatuz ebaluazio positiboarekin gainditu dituela prestakuntza-programako zenbait aldi.

1146/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

a) Genero-indarkeriaren biktima den langilearen erabakiz kontratua azkentzen bada, prestakuntza-programa behin betiko amaituko da, eta, beraz, egoiliarrak berriz hasi beharko du espezialitatea, prestakuntzarekin jarraitu nahi badu.
b) Kasu horretan, osasun-administrazioak beste irakaskuntza-unitate batean jarraitzeko aukera eman ahal izango dio egoiliarrari, baina egindako prestakuntza-aldiak berriro ebaluatu beharko dira onartu aurretik.
c) Egoiliarrak eskubide automatikoa izango du prestakuntza-programa berera itzultzeko tutoreak izendatutako beste irakaskuntza-unitate batean, eta lortutako ebaluazio guztiei eutsiko die.
d) Genero-indarkeriaren biktima izateagatik lanpostua behin betiko uzten duen langileak kontratua amaitzea erabakitzen duenean, osasun-administrazioak beste irakaskuntza-unitate batzuetan prestakuntzarekin jarraitzeko aukera eskainiko du kontratu berrien bidez, eta baliozkotzat joko dira dagoeneko eginda dauden eta ebaluazio positiboa izan duten prestakuntza-aldiak.

464. San Donatoko Udalak langile mota desberdinei eragiten dien barne-berrantolaketa onartu du. Sail berean Administrazioarekin harreman juridiko desberdina duten lau langilek lan egiten dute:

• Koldo karrerako funtzionarioa da, eta zailtasun tekniko bereziko eta erantzukizun handiko lanpostu bat betetzen du. Gainera, ezohiko zerbitzuak egin ditu bere ohiko lanalditik kanpo hainbat hilabetez.
• Berta bitarteko funtzionarioa da, kidego bereko lanpostu huts bat betetzeko izendatua, eta azpitaldeari dagokion soldata, aparteko ordainsariak eta lanpostuari lotutako osagarri jakin batzuk jasotzen ditu.
• Mikel, praktiketako funtzionarioa, oposizio-fasea gainditu duena eta behin betiko sartu aurreko hautaketa-ikastaroa egiten ari dena.
• Ane Udaleko lan-kontratudun langile finkoa da, eta bere ordainsariak udal-langileen hitzarmen kolektiboaren bidez arautzen dira.

Bilera batean, giza baliabideen arduradunak planteatu du nola zehaztu behar diren horietako bakoitzaren ordainsariak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (2015). Zalantzak sortzen dira zer faktorek eragin ditzaketen funtzionarioen ordainsari osagarriak, zer osagarri jaso ditzaketen bitarteko funtzionarioek, zer ordainsari dagozkien praktiketako funtzionarioei eta nola zehazten diren lan-kontratudun langileen ordainsariak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (2015), honako baieztapen hauetatik zein da zuzena deskribatutako egoerari dagokionez?

a) Bitarteko funtzionarioek atxikita dauden azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak baino ez dituzte jasotzen, eta ezin dute lanpostuari edo errendimenduari lotutako ordainsari osagarririk jaso.
b) Funtzionarioen ordainsari osagarriek honako faktore hauei erantzun diezaiekete, besteak beste: administrazio-karreran aurrera egitea, lanpostuaren zailtasun tekniko edo erantzukizun berezia, lortutako errendimendua edo emaitzak, eta lanaldi arruntetik kanpo egindako aparteko zerbitzuak.
c) Praktiketako funtzionarioek sartu nahi duten kidegoko karrerako funtzionarioen guztizko ordainsari berberak jaso behar dituzte nahitaez.
d) Lan-kontratudun langileen ordainsariak administrazio publiko bakoitzaren funtzio publikoko legeek baino ez dituzte zehazten.

465. EAEko administrazio publiko bateko Gizarte Zerbitzuen Sailak ikusi du nabarmen eta aldi baterako handitu direla Europako funtsekin finantzatutako eta hiru urteko iraupena izango duen herritarrei arreta emateko programa berri bati lotutako espedienteak. Egoera horri aurre egiteko, programa hori gauzatzeko hainbat lanpostu sortzea erabaki du.

Programa gauzatzen den bitartean, administrazioak egiaztatzen du hasieran sortutako lanpostuetako batek koordinazio-funtzio gehigarriak eta ardura-maila handiagoa eskatzen dituela jardueren diseinuari eta talde teknikoaren gainbegiratzeari dagokienez. Gainera, lanpostu horiei esleitutako enplegatu publikoetako batek gerora sortutako desgaitasuna du, eta horrek lanpostuaren baldintza jakin batzuk egokitzea eskatzen du bere eginkizunak betetzen jarraitu ahal izateko.

Euskal Enplegu Publikoaren Legean (2022) xedatutakoaren arabera, jarduketa hauetako zein egokitzen da behar bezala lege honen araubide juridikora?

a) Administrazioak aldi baterako lanpostuak sor ditzake iraupen mugatuko programak gauzatzeko; hala ere, lehendik dagoen lanpostu baten funtzioen funtsezko aldaketa negoziazio kolektiboaren bidez baino ezin da egin, aurreko lanpostua amortizatu beharrik gabe.
b) Administrazioak lanpostu koiunturalak sor ditzake aparteko lan-zamei erantzuteko, baina funtzioen edo erantzukizunen edozein funtsezko aldaketa lanpostu beraren barruan mantendu beharko da, eta ez da bidezkoa izango lanpostu hori amortizatzea, ezta beste bat sortzea ere.
c) Administrazioak aldi baterako lanpostuak sor ditzake programa espezifikoetarako, bere eginkizunak eta erantzukizun-mailak askatasunez alda ditzake amortizatu beharrik gabe, eta lanpostua egokitu, karrerako funtzionarioak direnean bakarrik.
d) Administrazioak koiunturazko lanpostuak sor ditzake aldi baterako programak gauzatzeko; lanpostuaren funtsezko ezaugarrietan funtsezko aldaketa bat gertatzen bada, aurrekoa amortizatu eta berri bat sortu beharko du, edo lehendik dagoen beste batean integratu, eta, gainera, lanpostua egokitu beharko du desgaitasuna duen enplegatu publiko baten irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoa denean.

466. Juan 2025ean hil zen. Anarekin ezkondu zen 20 urtez, eta 2015ean dibortziatu ziren. Dibortzioaren ondoren, Anak konpentsazio-pentsio bat jasotzen zuen, eta Juan hil zenean iraungitzen zen. Ondoren, Juan Mariarekin ezkondu zen, eta harekin bizi izan zen 10 urtez, hil zen arte. Biek eskatzen dute alarguntza-pentsioa.
Errege Dekretu Legegile 8/2015, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren arabera, nork du alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea eta nola banatuko da?

a) Mariak bakarrik izango du eskubidea, bera baita ezkontidea heriotzaren unean.
b) Biek izango dute eskubidea, eta pentsioa kausatzailearekin bizi izandako denboraren proportzioan banatuko da, gutxienez % 40 bermatuz bizirik dagoen ezkontidearen alde.
c) Anak bakarrik izango du eskubidea konpentsazio-pentsio baten hartzekoduna izateagatik.
d) Biek izango dute eskubidea, eta pentsioa zati berdinetan banatuko da haien artean.

467. Autonomia Erkidego batek, osasunaren arloko bere eskumenak baliatuz, Osasun Arloak ezabatzea erabakitzen du, sistema sanitarioaren antolaketa-egitura gisa, eta haien ordez lurralde-oinarririk gabeko unitate funtzionalak ezartzen ditu.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, Autonomia Erkidegoek beren sistema sanitarioa askatasunez antola dezaketelako.
b) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, baldin eta sistemaren eraginkortasuna bermatzen bada.
c) Jarduera ez da zuzenbidearekin bat datorrena, Osasun Arloak sistemaren oinarrizko egiturak direlako legearen arabera.
d) Jarduera zuzenbidearen aurkakoa izango litzateke soilik arreta sanitarioaren kalitatea murrizten dela frogatzen bada.

468. Ospitale publiko batean lan egiten duen mediku batek paziente bati arreta emateari uko egiten dio, eskatutako tratamenduarekin ados ez dagoelako. Zentroko zuzendaritzak arreta ematen jarraitzeko eskatzen dio, eta erantzukizunak izan ditzakeela ohartarazten dio.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Medikuaren jarduera zuzenbidearekin bat dator, edozein kasutan uko egin dezakeelako arreta emateari.
b) Medikuaren jarduera zuzenbidearekin bat dator, baldin eta bere erabakia irizpide klinikoetan oinarritzen bada.
c) Medikuaren jarduna ez dator bat Zuzenbidearekin, uko egiteko eskubidea pazientearen arreta ez jasotzeak baldintzatzen baitu.
d) Jarduera zuzenbidearen aurkakoa izango litzateke soilik pazientearen osasunean kaltea egiaztatzen bada.

469. Osasun Sistema Nazionalaren esparruan, osasun-plan integral bat onartzea planteatzen da, patologia jakin bati heltzeko, eta barne hartzen ditu prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta errehabilitazioko jarduera koordinatuak lurralde osoan.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduera ez da zuzenbidearekin bat datorrena, Legeak ez duelako aurreikusten patologia zehatzak modu integralean lantzeko tresnarik.
b) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, Legeak osasun-plan integralak aurreikusten dituelako patologia jakinetarako.
c) Jarduera zuzenbidearekin bat dator soilik plan horiek autonomia-izaera badute.
d) Jarduera zuzenbidearekin bat etorriko litzateke soilik jarduera asistentzialetara mugatzen bada.

470. Paziente batek patologia larria pairatzen du eta zuzenean zentro pribatu batera jotzen du, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzuetara berehala jotzeko aukerarik gabe. Ondoren, jasotako tratamenduaren premia dela eta, gastuen itzulketa eskatzen du.

Egoera honi dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Itzulketa beti dagokio, tratamendua egokia izan bada.
b) Itzulketa soilik dagokio pazienteak gaitasun ekonomiko nahikorik ez duela egiaztatzen badu.
c) Itzulketa bakarrik dagokio premia larriko egoera eta baliabide publikoak erabiltzeko ezintasun objektiboa egiaztatzen badira.
d) Itzulketa automatikoki dagokio zorro erkidean sartuta dauden prestazioetan.

471. Osasun-zentro batean, artxibo klinikoaren arduradunak detektatu du historia kliniko asko daudela paper-euskarrian, asistentzia-prozesuak duela hiru urte amaitu zitzaizkien pazienteei dagozkienak. Espazioa optimizatzeko eta biltegiratze-kostuak murrizteko, zentroko zuzendaritzak historia kliniko horiek suntsitzea proposatu du, uste baitu ez direla erabilgarriak asistentzia-jarduerarako, eta denbora asko igaro delako jada.

41/2002 Legearen arabera, zuzena al da historia kliniko horiek suntsitzeko erabakia?

a) Bai, izan ere, osasun-laguntza amaitu eta arrazoizko denbora igaro ondoren, dokumentazio klinikoa ezaba daiteke.
b) Bai, baldin eta erreklamazio edo prozedura judizialik ez badago.
c) Ez, dokumentazio klinikoa baldintza egokietan gorde behar delako legez ezarritako denboran, eta gutxieneko bat egongo delako asistentzia-prozesu bakoitzaren alta-datatik aurrera.
d) Ez, baina bakarrik pazienteak bere historia klinikoa gordetzea berariaz eskatu badu.

472. Gaixo bat hil da euskal osasun-sistemako ospitale batean. Asistentzia-prozesuan zehar, idatziz jaso zuen bere historia klinikoan berariaz kontra egiten ziola gertaera kliniko jakin batzuk (bere osasun mentalarekin zerikusia dutenak) hirugarren batzuei jakinarazteari hil ondoren.

Aste batzuk geroago, alaba zaharrenak historia klinikoaren kopia osoa eskatu zion osasun zentroari, heriotzaren nondik norakoak ezagutzeko interes legitimoa argudiatuz. Dokumentazioan honako hauek agertzen dira: txosten kliniko osoak (diagnostikoa, bilakaera eta tratamendua); profesionalen ohar subjektiboak, eta gertakari bereziki sentikorrak, zeintzuei buruz pazientea espreski agertu baitzen haiek zabaltzearen aurka. Zentroak erabaki behar du nola jokatu aplikatu beharreko araudiaren arabera.

38/2012 Dekretuaren arabera, zein da juridikoki zuzena den jarduera?

a) Informazio partziala eskuratzeko aukera ematea, ohar subjektiboak eta pazienteak espresuki aurka egin zien gertakariak kenduta.
b) Sarbidea erabat ukatzea, pazientea berariaz aurka dagoelako.
c) Historia klinikoaren kopia osoa ematea, interes legitimoa duen zuzeneko senidea delako.
d) Irispidea izateko edozein modu gauzatzeko, aldez aurreko baimen judiziala eskatzea.

473. Osasun-arloko sail eskudunak entitate pribatu batekin harreman juridiko bat formalizatzen du osasun-zerbitzuak emateko, aurretiazko homologaziorik egin gabe. Administrazioak uste du homologazio hori ez dela beharrezkoa, baldin eta hitzarmenak alderdien arteko eskubide eta betebeharrak bermatzen baditu eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzen baditu.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, hitzarmenak alderdien eskubide eta betebeharrak bermatzen baditu.
b) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, baldin eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzen badira.
c) Jarduera Zuzenbidearen aurkakoa izango litzateke soilik baliabide publikoen erabilera optimoa kontuan hartu izan ez balitz.
d) Jarduera zuzenbidearen aurkakoa izango litzateke soilik baliabide publikoen erabilera egokia kontuan hartu ez balitz.

474. Paziente batek ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkezten du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Entitate Publikoaren menpeko zerbitzu sanitario baten funtzionamenduagatik. Prozedura izapidetu ondoren, administrazio-ebazpen espresu baten bidez amaitzen da.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Ebazpena Entitate Publikoko zuzendari nagusiari dagokio, eraginkortasun administratiboko arrazoiengatik.
b) Ebazpena dagokion zerbitzu-erakundeko zuzendari-kudeatzaileari dagokio.
c) Ebazpena Entitate Publikoko Administrazio Kontseiluari dagokio.
d) Ebazpena osasun-arloan eskumena duen sailburuari dagokio.

475. Osasun Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordetzak ebazpen bat ematen du, Osasun Sailaren 650.000 euroko gastu bat baimentzeko. Espedientean ez da ageri sailburuaren erabakirik, ezta Jaurlaritzaren Kontseiluaren esku-hartzerik ere.

Egoera horri dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Jarduera zuzenbidearekin bat dator, sailburuordetzak oro har kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa duelako.
b) Jarduera Zuzenbidearen araberakoa da, baldin eta aurrekontuan behar besteko kreditua badago.
c) Jarduera ez da zuzenbidearekin bat datorrena, 500.000 eurotik gorako gastuen baimena Osasuneko sailburuari dagokiolako, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskumenen kalterik gabe.
d) Jarduera zuzenbidearen aurkakoa izango litzateke soilik gastua sailburuordetzaren funtzioekin lotuta egongo ez balitz.

476. Pablok 45 urte ditu, eta Osakidetzako ospitale batera joan da bizkarreko minaren tratamendua aztertzera. Artatzen duen fakultatibo espezialistak azaltzen dio bi aukera kliniko daudela: tratamendu kontserbatzailea edo kirurgia. Pablok, antsietate handiz, berariaz adierazi du ez duela informazio tekniko gehiago jaso nahi arriskuei eta prozeduraren xehetasunei buruz, baina gehitu du bere prozesuaren arduraduna nor den jakin nahi duela, eta txosten klinikoaren eta bere historia klinikoan jasota dauden osasun-datuen kopia eraman nahi duela. Azkenean, oraingoz ebakuntzarik ez egitea erabaki du, nahiz eta ohartarazi dioten erabaki horrek bere egoera okertu dezakeela. Pablok ez du inolako dokumenturik sinatu nahi, bere hitzezko ezezkoa nahikoa dela uste baitu. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubide eta Betebeharren Adierazpena onartzen duen 147/2015 Dekretuaren arabera, adierazi aukera zuzena:

a) Pazienteak informazioa jasotzeari uko egin dionez, eskura dituen aukera klinikoen artean erabakitzeko eskubidea ere galtzen du.
b) Pablok uko egin diezaioke informazioa jasotzeari, baina ezin du ezer ez egiteko aukera hautatu proposatutako alternatiba klinikoen aurrean.
c) Pablok eskubidea du informazio gehiago ez jasotzeko erabakia errespetatua izan dadin, profesional arduraduna nor den jakiteko eta bere datuen eta txosten klinikoen kopia lortzeko; gainera, tratamendua ukatzen badu, bere gain hartu behar du erabakia, eta idatziz utzi behar du, legez eska daitekeenean edo gomendagarria denean.
d) Pablok kirurgiari uko egin diezaioke, baina soilik ezezko horrek ezin badu bere osasuna kaltetu edo heriotzara eraman.

477. A pazientea, biriketako gaixotasun kroniko baten fase terminalean, euskal ospital batean ingresatuta, ezgaitasun-egoeran dago, mediku arduradunaren iritziz. Ezkontide bizikidea eta bi seme-alaba heldu ditu, eta ez dago aurretiazko borondateen adierazpenik.

Uztailaren 8ko 11/2016 Legearen arabera, nor arduratuko da pazienteari buruzko informazioa jasotzeaz eta informazioan oinarritutako baimena emateaz edo baliogabetzeaz?

a) Nolanahi ere, agintari judizialek erabakitzen dutena.
b) Legezko ordezkaria, halakorik balego.
c) Legezko ordezkaritzarik ezean, ahaiderik hurbilenak eta, gradu beraren barrenean, zaharrenak.
d) Seme-alabak.

478. Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Zerbitzu Integratuen Erakundean, Kudeaketa Ekonomikoko Goi Mailako Teknikari-Teknikari lanpostu funtzional bat betetzeko barne-prozesu baterako deialdia egiten da. Deialdian, baldintza gisa ezartzen da Zuzenbideko, Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura edo gradua izatea, lanpostu funtzionalaren definizioaren arabera (186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa, Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituena).

Administrari izendapena duen langile batek (C1 Taldea), Zuzenbideko Gradu titulua duenak, prozesuan parte hartzea eskatu du, bere titulazioak eskatutako baldintza betetzen duela eta 10 urte baino gehiago kudeaketa ekonomikoko funtzioak betetzen daramatzala argudiatuz. Giza Baliabideetako Zuzendaritzak ez du bere eskabidea onartu, izan ere, 186/2005 Dekretuaren arabera, lanpostu funtzionalak ez dira titulazioaren arabera definitzen, dagokien lanbide-taldean egotearen arabera ere definitzen dira, eta sartzeko deitutako lanposturako eskatzen den sailkapen-taldekoa izan behar da.

Osakidetzako lanpostu funtzionalei buruzko 186/2005 Dekretuaren arabera, lanpostu funtzional baterako sarbidea honela dago zehaztuta:

a) Deialdian eskatutako titulazio akademikoagatik bakarrik.
b) Erakundean duen antzinatasunagatik, baldin eta antzeko eginkizunak egiaztatzen badira.
c) Lanpostu funtzionalaren erregelamenduzko definizioagatik, talde profesionala, titulazioa eta funtzioak barne.
d) Zerbitzu Erakundeko Zuzendaritzaren erabakiz bakarrik.

479. Osakidetzako langile batek laguntza ekonomikoa eskatu du tratamendu medikoengatik, eta adierazi du Gizarte Segurantzaren arreta jasotzen ari dela. Hala ere, eskaera berrikustean, ikusten da jasotzen ari zaren tratamenduak Gizarte Segurantzaren sistema publikoak estaltzen dituela, eta sistema hori aurreikuspen publikoko sistematzat hartzen da.

Ondorengo aukeretatik, zein da egokiena langilearen laguntza-eskaerari dagokionez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen 2007ko, 2008ko eta 2009ko Akordioaren arabera?

a) Langileak laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea du, eskaera behar bezala aurkeztu zelako eta tratamendua ez delako baztertutzat zehaztu.
b) Langileak ez du laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubiderik, jasotzen ari den tratamenduak Gizarte Segurantzak eta aurreikuspeneko beste sistema publiko batek estalita daudelako.
c) Langileak laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea du, Gizarte Segurantzak ez baititu tratamendu mediko guztiak estaltzen.
d) Langileak laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea du, baina tratamendua Gizarte Segurantzatik edo beste aurreikuspen-sistema publiko batetik kanpo egiten bada bakarrik.

480. Hiriberdeko Udala parkeak eta lorategiak berritzeko lanak egiten ari da. Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaile batek egindako ikuskapen batean, ikusi zen lan-eremuetako batean makineria astuna eta erreminta elektrikoak erabiltzen dituzten langileak ez direla babes-ekipamendu egokiak erabiltzen ari, eta lan-baldintzek arrisku larria eta berehalakoa dutela langileen segurtasunerako, bereziki makinen eremuetan seinaleztapen egokirik ez dagoelako eta erremintak egoera txarrean daudelako.
Laneko ikuskatzaileak zehaztu duenez, berehalako neurririk hartzen ez bada, istripu larria gerta daiteke.
Ikuskatzailearen ekintza:
Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileak zona horretako lanak berehala geldiarazteko agintzen du, harik eta Udalak segurtasun-akatsak konpondu arte.

Zer egin behar du Hiriberdeko Udalak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera lanak geldiarazteko agindu ondoren?

a) Udalak lanean jarraitu behar du, ezin baitu proiektu publiko bat geldiarazi Udal Kontzejuaren onespenik gabe, baina arazoaren berri emango die interesdunei eta balizko eraginpekoei, eta Ikuskaritzaren esku jarriko ditu gabeziak konpontzeko dituen bitarteko guztiak.
b) Udalak obraren arduradunei bakarrik jakinarazi behar die geldiarazpena, eta langileei jakinarazi gabe jarraitu behar du lanean.
c) Udalak geldiarazpenaren berri eman behar die berehala eraginpeko langileei, Segurtasun eta Osasun Batzordeari eta langileen ordezkariei, eta geldiarazpenaren berri eman behar dio Lan Ikuskariari.
d) Udalak berehala edo gehienez 12 orduko epean jakinarazi beharko die geldiarazpenaren berri eraginpeko langileei eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari, eta Lan Ikuskariari jakinarazi beharko dio.

481. Hiriberriko Udalak erronka bati egin behar dio aurre bere herri-lanen sailean. Udaleko mantentze-taldea espaloiak berritzen ari da hiriko hainbat eremutan. Laneko segurtasun-arduradunak langileen kexak jaso ditu lan-baldintzekin lotutako zenbait arriskuri buruz, hala nola makina astunak erabiltzeari eta pintura-lanetan produktu kimiko jakin batzuen eraginpean egoteari buruz.
Ikusi da langile batzuk bibrazioen eraginpean egon daitezkeela makina astunak erabiltzeagatik. Langileen osasunean eragina izan dezaketen konposatu kimikoak dituzten pinturak ere erabili dira. Segurtasun Sailak arriskuen ebaluazioa egiteko ardura du.

Egin beharrekoak:

1. – Lanari lotutako elementu arriskutsuak zehaztea (makineria, produktu kimikoak, etab.).
2. – Arrisku horien eraginpean dauden langileak identifikatzea.
3. – Arriskua ebaluatzea ezarritako irizpideen arabera, langileen iritziak eta eskura dauden ezagutza teknikoak kontuan hartuta.

39/1997 Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan aipatzen den arriskuak ebaluatzeko prozeduraren arabera, zein izango litzateke prozedura egokia Udalarentzat kasu honetan arriskuen ebaluazioa egitean?

a) Udalak eskura duen informazio teknikoan soilik oinarritu behar du bere ebaluazioa, langileei kontsultatu gabe, erabilitako makineria konplexua eta espezializatua baita.



b) Udalak arriskuen identifikazioa eta langileen esposizioa barne hartzen dituen ebaluazioa egin behar du, erakunde eskudunen gidei jarraituz eta aplikatu beharreko araudi espezifikoak eta beharrezkoak diren neurketak kontuan hartuz.
c) Ebaluazioa soil-soilik lan-baldintzetan zentratu behar da, inolako neurketa edo azterketarik egin gabe, eta segurtasun-arduradunaren behaketan soilik oinarrituta.
e) Prozedurak baztertu egin behar du langileei kontsulta egitea, haien esku-hartzea ez baita beharrezkoa makineria eta produktu kimikoak erabiltzearen ondoriozko arrisku teknikoak ebaluatzeko.

482. Herritar batek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten du epez kanpo, administrazio-ebazpen irmo baten aurka. Administrazioak egoera hori alegatzen du prozesuan.

Egoera horri dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Errekurtsoa onartu behar da, egintza legez kanpokoa bada.
b) Errekurtsoa onartu daiteke interes publikoa badago.
c) Errekurtsoa ezetsi (onartezin deklaratu) behar da epez kanpo aurkeztu delako.
d) Errekurtsoa izapidetzea dagokio eta funtsari buruz ebaztea.

483. Lierni, lan-harremana duen langilea, eta diskriminazioagatik barne-erreklamazio bat aurkeztu eta egun gutxira agurtu zuten. Haren ustez, kaleratzeak berdintasunerako oinarrizko eskubidea urratzen du, eta judizialki aurkaratu nahi du. Gainera, kaleratzea deuseztatzeko eskatu du, oinarrizko eskubideak urratzeagatik.

36/2011, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera, zer bide prozesal jarraitu beharko luke?

a) Oinarrizko eskubideak babesteko prozesu bat baino ez du aurkeztu behar, eta ezin du kaleratzeari buruzko inolako uzirik metatu.
b) Askatasunez hauta dezake oinarrizko eskubideak babesteko prozesuaren edo kaleratzeko prozesu-modalitatearen artean.
c) Nahitaez izapidetu behar du demanda kaleratzearen prozesu-modalitatearen arabera, eta oinarrizko eskubideak babesteko uzia metatu behar du bertan, zeina lehentasunezkoa izango baita.
d) Bi demanda aurkeztu behar ditu: bata kaleratzeagatik eta bestea oinarrizko eskubideak urratzeagatik.

484. Casablancan bizi den AEBetako herritar bat Gasteizera joan da, klinika pribatu batean ebakuntza egiteko. Operazioa, alta eta berehalako jarraipena Espainian egiten dira. Hala ere, egun batzuk geroago, Marokon bertan, konplikazio larriak pairatzen ditu eta Espainian klinika horren eta ebakuntza egin zion fakultatiboaren aurkako kontratuz kanpoko erantzukizun demanda zibila planteatzea erabaki zuen, esanbidezko edo isilbidezko mendetasun-hitzarmenik egon gabe. Demanda abuztuaren 1ean aurkeztu zen, eta, gainera, grabazio kirurgikoa eta zenbait erregistro kliniko digital lehenbailehen gordetzea komeni zen. Marokotik bideokonferentziaz deklaratzea eskatu du auzi-jartzaileak. Lekuko gisa proposatutako erizain batek eta ospitaleko peritu batek deklaratu eta txostena euskaraz aurkeztuko dutela iragarri dute. Lekuko gisa proposatutako erizain batek eta ospitaleko peritu batek deklaratu eta txostena euskaraz aurkeztuko dutela iragarri dute. Alderdi demandatuak honako hau dio: 1) Espainiako auzitegiek ez dute eskumenik, auzi-jartzailea Espainiatik kanpo bizi delako eta emaitza kaltegarria Marokon agertu zelako; 2) abuztuan ezin da inolako jarduera zibilik egin; eta 3) euskarazko deklarazio eta dokumentuek ez dute baliorik izango, baldin eta haseratik gaztelaniazko itzulpena ez badago. Espainiako auzitegien nazioarteko eskumen judizialari dagokionez:

a) Espainiako auzitegiek ez lukete eskumenik izango, demandatzailea Espainiatik kanpo bizi delako.
b) Espainiaren aldeko esanbidezko mendetasuna balego soilik izango lirateke eskudunak Espainiako auzitegiak.
c) Espainiako auzitegiek eskumena dute, kontratuz kanpoko betebeharren arloan nahikoa delako egitate kaltegarria Espainiako lurraldean gertatu izana.
d) Espainiako auzitegiek ez dute eskumenik, ondorioak Marokon agertu zirelako.

485. Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutuak orain dela urte batzuk helburu asistentzialarekin lortutako lagin biologiko batzuk erabili nahi ditu ikerketa proiektu baterako. Laginak kodifikatuta daudenez eta ezin direnez hainbat paziente aurkitu, dagokion Etika Batzordeak aldeko txostena egin du. Ikerketa biomedikoaren 14/2017 Legearen arabera, adierazi zein den aukera zuzena:

a) Lagin horiek erabil daitezke kodetuta daudelako.
b) Paziente guztien baimena izanez gero bakarrik erabili ahal izango dira.
c) Salbuespen gisa erabil daitezke baimen berririk gabe, baldin eta lortzea ezinezkoa bada edo zentzuzkoa ez den ahalegina eskatzen badu eta legezko baldintzak betetzen badira.
d) Biobanku nazional batean badaude bakarrik erabil daitezke.

486. MEDVOICE S.L. Osakidetzako ospitale publiko batek kontratatutako enpresa pribatu bat da, eta txosten eta historia klinikoak diktatzeko eta transkribatzeko plataforma bat kudeatzeaz arduratzen da. Zerbitzu horren bidez profesionalen ahotsak, pazienteen identifikazio-datuak eta larrialdi- eta alta-txostenetan jasotako osasun-datuak tratatzen dira. Paziente batek transkribatutako txosten batean berari ez dagokion aurrekari psikiatriko bat oker agertzen dela detektatu du, eta sartzeko eta kentzeko eskaera aurkeztu du MEDVOICEn. Hilabete pasa da erantzunik gabe. Azkenik, enpresak esan dio ezin duela oraindik erreklamaziorik aurkeztu Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean, zeren eta, merkataritza-enpresa pribatua denez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (DBEA) baitu eskumena; eta nahitaez jo behar duelako MEDVOICE SLren Datuak Babesteko Ordezkariarengana aldez aurretik.

a) Erreklamazioa nahitaez DBEAri zuzendu behar zaio, enpresa pribatu bat ezin baita geratu Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren eskumenean, ospitale publiko baterako datuak tratatu arren.
b) Pazienteak Datuak Babesteko Ordezkariarengana jo behar zuen lehenik, nahitaez; hark bi hilabeteko epean erantzuten ez bazuen bakarrik egin zezakeen erreklamazioa Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean.
c) Datuak Babesteko Euskal Agintaritza eskuduna izan daiteke; izan ere, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoak autonomia-erkidegoetako agintariei esleitzen die eskumena sektore publiko autonomikoaren edo tokikoaren tratamenduei eta zuzeneko edo zeharkako kudeaketaren bidez zerbitzuak ematen dituztenei dagokienez, eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren 16/2023 Legeak zerbitzu publikoak ematen dituzten erakunde pribatuetara eta tratamenduaren arduradun gisa jarduten dutenetara hedatzen du bere esparrua; gainera, hautazkoa da aldez aurretik datuen babeserako ordezkariarengana jotzea.
d) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak eskumena izango luke soilik erreklamazioa zuzenean Ospitalearen aurka aurkeztu izan balitz, baina ez eskubideen eskaera enpresa kontratistaren aurka aurkeztu zenean.

487. Herritar batek Administrazioak oraindik lantzen ari den informazioa eskatzen du.

Egoera horri dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Administrazioak kasu guztietan eman behar du informazioa.
b) Administrazioak eskaera onartu gabe utzi dezake, informazioa lantze-prozesuan dagoelako.
c) Administrazioak prozedura eten behar du informazioa amaitu arte.
d) Administrazioak automatikoki sarbide partziala eman behar du.

488. Miren, 68 urtekoa, narriadura kognitibo progresiboa jasaten ari da. Xabier semearekin bizi da. Azken horrek urteak daramatza medikuarengana laguntzen, gastu arruntak kudeatzen eta eguneroko bizitzan laguntzen. Mariak ez zuen aldez aurretik prebentzio-ahalmenik eman, eta ez zuen borondatezko laguntza-neurririk ezarri. Berriki, Mariaren jabetzako etxebizitza bat saldu beharra sortu da, haren egoitza eta etorkizuneko zainketak finantzatzeko.

Kode Zibilaren arabera, zer laguntza-neurri hartu behar da lehentasunez, neurri judizialik hartu behar izan gabe pertsonaren premiei erantzuteko nahikoa denean?

a) Tutoretza.
b) Kuradoretza adierazgarria.
c) Egitezko zaintza.
d) Guraso-ahal luzatua

489. Kepa eta Ane trafiko-istripu batean hil ziren, 14 urteko alaba bat utzita, Laura. Aitona-amonek ezin dute haren ardura hartu. Testamentuan, gurasoek Carlos anaia izendatu zuten tutore, eta horrek kargua onartu zuen. Senideen artean eztabaidarik ez dagoenez, borondatezko jurisdikzioko espediente bat hasi da Lauraren tutoretza eratzeko.

Zein organok du borondatezko jurisdikzioan tutoretza eratzeko espedientea izapidetzeko eskumena?

a) Tutoretzapekoaren egoitzako Erregistro Zibila.
b) Tutoretzapekoaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegia.
c) Tutoretzapekoa bizi den tokiko udalak.
d) Fiskaltza.

490. Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuen arloan dituen eskumenen esparruan, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonentzako beste prestazio ekonomiko bat ezartzea erabaki du. Horretarako, prestazio hori arautzeko prozedura hasten du, zuzeneko ekintzaren zati gisa, gizarte-zerbitzuen arloko dagokion organo aholku-emaileari aldez aurreko txostena eskatu gabe.

Sektoreko elkarte batek neurria aurkaratu du, sistemaren prestaziotzat jotzeko legez ezarritako prozedurari jarraitu ez zaiola alegatuz.

Deskribatutako testuinguruan, gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 39.4 artikuluaren arabera, zer baldintza da beharrezkoa prestazio bat Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzaren parte deklaratzeko?

a) Dekretu bidez deklaratu behar da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.
b) Hiru foru-aldundiek aho batez onartu behar dute.
c) Prestazio ekonomikoei bakarrik aplika dakieke.
d) Erkidegoko biztanleria osoaren % 10i eragin behar dio, gutxienez.



491. Karmele, 82 urtekoa, bakarrik bizi da. Endekapenezko gaixotasun bat dela-eta, eguneroko laguntza behar du garbitzeko, janzteko eta otorduak prestatzeko. Bere alaba Anek artatu ohi du, baina zaintza horiek lanarekin uztartzen ditu. Dagokion prozedura hasi ondoren, administrazio eskudunak Karmenen egoera baloratzen du eta II. mendekotasun-gradua aitortzen dio (mendekotasun larria). Administrazio eskudunak egokitzat jotzen badu Anek ama familia-etxean zaintzen jarraitzea, honako hau onar dakioke:

a) Familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa.
b) Ikasketa-beka bat.
c) Kotizaziopeko pentsio automatikoa.
d) Langabezia-prestazioa.

492. Luzia, 16 urtekoa, eta bere anaia Diego, 11 urtekoa, umezurtz geratu dira gurasoak istripu batean hil ondoren. Testamentuan, gurasoek bere lagun Luis izendatu zuten tutore. Konfiantzazko pertsona horrek harreman bikaina du bi adingabeekin. Hala ere, amaren aldeko amonak uste du bera izan behar dela haurren zaintza bere gain hartu behar duena. Tutoretzaren eraketa ebazten den bitartean, adingabeak amamarekin bizi dira, eta amamak haien eguneroko premiei erantzuten die.

Gurasoek Luis tutore izendatzea:

a) Ez du eraginkortasun juridikorik.
b) Bereziki kontuan hartu beharko du agintaritza judizialak.
c) Tutore bihurtzen du automatikoki.
d) Amonak berresten badu bakarrik da baliozkoa.

493. Sarak 8 urte ditu. Gizarte-zerbitzuek gurasoen arretarik eza larriko egoera bat detektatu dute: eskola-absentismoa behin eta berriz, oinarrizko zaintzarik eza eta substantziak etxean kontsumitzeko arazoak. Erakunde publiko eskudunak babesgabezia-egoera deklaratzen du eta Sararen tutoretza hartzen du bere gain. Hainbat aukera aztertu ondoren, adingabea aldi baterako Anak eta Xabierk osatutako senar-emazte batekin bizitzea erabaki du. Senar-emazte horiek aldez aurretik familia harreragile gisa baloratu dira. Harreran, Sara aldian-aldian harremanetan egoten da bere guraso biologikoekin, eta Anarekin eta Xabierrekin bizitzen jarraitzeko nahia adierazten du, seguru eta ondo zainduta sentitzen delako. Erakunde publikoak aldizka berrikusten du kasua, eta babes-jarduketa ororen printzipio gidaria adingabearen interesa da. Desanparoa eragin zuten arrazoiak desagertzen badira eta berriz elkartzea onuragarria da Sararentzat:

a) Ezin izango da inoiz jatorrizko familiarekin itzuli.
b) Familiaren itzulera adingabearen intereserako baloratu beharko da.
c) Harrera adopzio bihurtzen da nahitaez, eta, beraz, ezingo da guraso biologikoekin itzuli.
d) Erabakia harreragileei bakarrik dagokie.

494. Anek 14 urte ditu eta Donostian bizi da. Bere ikastetxean diskriminazio-iruzkinak jasaten ditu sare sozialetan, familia-jatorriagatik. Anek eskatu du bere iritzia entzun behar dela uste duelako konetarioak neutralizatzeko neurriak eztabaidatuko diren bileretan parte hartzeko. Era berean, gurasoek ikastetxearen eta eskumeneko zerbitzuen esku-hartzea eskatzen dute. Aldi berean, udalak programa bat jarri du abian gazteentzako aisia-espazioak diseinatzeko eta udalerriko nerabeei kontsulta egiteko. Egoera horretan, zer eginkizun dagokio ikastetxeari, adingabearen interes gorena eta parte hartzeko, berdintasunerako eta babeserako eskubideak kontuan hartuta.

a) Bizikidetza-plan bat egitea, hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako jardueren programazioa ezartzen duena, gatazkak modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzeko.
b) Haurrek parte hartzeko programak diseinatzea.
c) Ane eta adingabeak sistematikoki baztertzea eragiten dien kontsulta publikoko edozein prozesutatik.
d) Anek jasandako diskriminazioaren aurkako neurri judizialak hartzea.

495. Gorka eta Arantxa dibortziatuta daude, eta Jon izeneko 13 urteko semea dute. Biek dute guraso-ahala. Jon atzerrian kokatutako nazioarteko ikastetxe batean onartua izan da. Arantxaren ustez, lekualdatzea oso onuragarria da bere prestakuntza akademikorako, eta Gorka, berriz, aurka dago, familia-harremanari kalte egingo diola uste duelako. Adingabearentzat garrantzi berezia duen erabaki bati buruzko akordiorik lortu ez duenez, Arantxak borondatezko jurisdikzioko espediente bat aurkeztu du, gai horri buruz erabakitzeko ahalmena eslei dakion. Izapideak egin bitartean, ikasketak atzerrian egin nahi dituela adierazi du Jonek. 13 urte izatean:

a) Bere iritziak ezin izango dira entzun, ezta aintzat hartu ere, gaitasun juridikorik ez duelako.
b) Heldutasunaren arabera entzun beharko zaio, eta, behar izanez gero, espezialisten laguntza izango du, bere iritziak behar bezala eman ahal izan ditzan.
c) Abokatu baten bidez baino ezin du esku hartu.
d) Haren iritzia loteslea da espedientea izapidetzeko.

496.
Aseguru-etxe batek aseguru mediko pribatua eskaintzen du. Kontratazioan, bezero bati jakinarazten dio haurdun dagoen jakin behar duela, eta, hala bada, aseguruaren prima handiagoa izango dela, haurdunaldiarekin lotutako kostuak direla eta.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, jarduera hauetako zein EZ DA ZUZENA?

a) Aseguru medikoa eskaintzea, sexuaren ziozko primak bereizi gabe.
b) Prima eta prestazio berberak aplikatzea, haurdunaldia edozein dela ere.
c) Aseguratutako pertsonaren osasuna babesteko arrazoiak direla-eta, haurdunaldiari buruzko informazioa eskatzea.
d) Aseguruaren prima handitzea, eskatzailea haurdun dagoelako.

497. Maria genero-indarkeriaren biktima da, eta errenta baxuen eta enplegua lortzeko zailtasun berezien baldintzak betetzen ditu. 1/2004 Lege Organikoan aurreikusitako ordainketa bakarreko gizarte-laguntza eskatzeko prozesuan dago. Mariak adingabeko seme bat eta haren ama ditu bere ardurapean. Ama berarekin bizi da eta % 45eko desgaitasuna aitortua du.

1/2004 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, Mariak jaso lezakeen laguntzaren zenbatekoari dagokionez, adierazi baieztapen OKERRA:

a) Mariak familia-erantzukizunik edo desgaitasunik ez badu, laguntzaren zenbateko orokorra langabeziagatiko sei hilabeteko sorospenaren baliokidea izango da.
b) Mariak familia-kargarik ez balu, eta berak % 33ko desgaitasuna aitortuta izango balu, hamabi hilabeteko sorospenari dagokion laguntza egokituko litzaioke.
c) Semea eta ama bere kargura izanik, Mariak familia-erantzukizunak dituenez, laguntzaren zenbatekoa hamasei hilabeteko langabezia-sorospena izango da nahitaez.
d) Mariak familia-erantzukizunak dituenez eta, gainera, berarekin bizi den pertsonetako batek % 33tik gorako desgaitasuna duenez, zenbatekoa hogeita lau hilabeteko sorospenera iritsi daiteke.

498. Mendiko aterpetxe bateko begirale plaza bat betetzeko hautaketa-prozesu batean, erakundeak eskatzen du hautagaiak erreskateak egin ahal izatea eremu malkartsuetan, 25 kg material kargatuz. Hautagaietako batek salatu du eskakizun hori sexuagatiko bereizkeria dela.

3/2007 Lege Organikoaren arabera, ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du egoera hori behar bezala?

a) Tratu-desberdintasuna zilegi izango litzateke eskatutako ezaugarria (gaitasun fisiko zehatza) lanposturako funtsezkoa eta erabakigarria den lanbide-betekizuna bada.
b) Enplegu publikoan bakarrik da nahitaezkoa tratu-berdintasuna, eta, beraz, enpresa pribatuak askatasunez finka ditzake sexuaren araberako betekizun desberdinak.
c) Sexu desberdineko pertsonen arteko edozein tratu-desberdintasun debekatuta dago kasu guztietan.
d) Nahikoa da merezimendu- eta gaitasun-irizpideak formalki errespetatzea, bereizkeriarik egon ez dadin.



499. Carolina Gasteizen bizi da, eta mezularitza-enpresa batean lan egin zuen. Bertan, gainbegiraleak bereizkeriazko tratua eman zion haurdunaldia zela-eta. Estresak eragindako baja baten ondoren, Carolinak enpresa uztea erabaki zuen 2025eko otsailaren 15ean, bereizkeriazko tratua behin betiko eten zen eguna. Gaur, 2026ko martxoaren 10ean, Carolina emakumearen eskubideen aldeko elkarte batera joan da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean kexa formal bat aurkez dezaten haren izenean.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta, Carolinaren kexa Emakundek izapidetzeko onar dezan:

a) Carolinak egiaztatu beharko du aldez aurretik agortu duela enpresaren aurkako administrazio-bidea edo bide judiziala.
b) Ezin izango du kexarik jarri, gertaeren unean euskal herrikidetasun zibila duten herritarrek baino ez dutelako aukera hori.
c) Elkarteak berak hasi ahal izango du prozedura Carolinaren izenean, nahiz eta elkartearen baimenik ez izan.
d) Carolinaren kexa ez da onartuko, urtebete baino gehiago igaro delako kexa eragin dezakeen jokabidea amaitu zenetik.

500. Herritar batek eskaera bat aurkeztu du euskaraz Euskal Autonomia Erkidegoko udal batean, udalaren dirulaguntza lortzeko. Administrazioak espedientea izapidetu du eta ebazpena gaztelaniaz soilik jakinarazi dio, euskarazko bertsiorik eskaini gabe eta interesdunak beste hizkuntza aukera bat egin gabe.

Herritarrak administrazio-jardunaren aurka egiten du, bere hizkuntza-eskubideak urratzeagatik.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, zein eskubide urratu da planteatutako kasuan?

a) Administrazio-egintza guztiak euskaraz idazteko eskubidea.
b) Administrazioarekiko harremanetan hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eta arreta aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea.
c) Administrazioak bere jardueretan euskara bakarrik erabiltzeko eskubidea.
d) Gaztelania inola ere ez erabiltzeko eskubidea.